# BAPATEAN 2004

Grabaketak: Amaia Agirre, Martin Aramendi, Estitxu Arozena, Laxaro Azkune, Jon Barrocal, Eneko Bidegain, Xabier Begiristain, Unai Elizasu, Xabier Enbeita, Felix Irazustabarrena, Josema Leitza, Aitor Mendiluze, Oihane Perea.

Hautaketa eta transkribaketa: Amaia Agirre eta Martin Aramendi

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea

Doinuen izendapena: Martin Aramendi *Bertso Doinutegian* oinarrituz.

EHBE

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.
© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Maketazioa: LANKU
Argitaratzaileak:
ELKARLANEAN S.L.
Portuetxe kalea, 88 bis

BERTSOZALE ELKARTEA
Igeldo pasealekua, 25
Donostia

I.S.B.N.:
I.S.B.N.:
L.G.:

# AURKIBIDEA

Hitzaurrea
Bertso saioen mugimendua
Tauletako kontzeptuen azalpena
Zenbait azalpen
Txapelketa eta sariketak
1. Herrialde mailako txapelketak
2. Eskolarteko txapelketak
3. Bat-bateko sariketak
4. Bertsopaper lehiaketak
Bat-bateko bertso hautatuak
Bat-bateko sariketak
Saioen aurkibidea
Bertso hautatuak - KD
Bertsolarien aurkibidea
Izen eta izengoitien deskribapena

# HITZAURREA

Ez naiz hitzaurregile. Eta baietza eman nuenean ez dakit zeren eraginpean nengoen. Beharbada arabar adiskide bertsolari batek opari emandako uxualaren efektua itzungi gabe zen artean. Baina dagoeneko berandu da. Iparraldean dioten bezala, “hitza hitz, bestela gizona hits”. Eta emandako hitzari itzuri egitea larritzat jotzen dudanez, hona berba hauek hitzaurre gisa.

**Aramaio eta Araba**

Gertuenetik hasiko naiz.

Mende erdia gainean, eta duela hiruzpalau egun jakin dut Manuel Olaizola *Uztapide* zenak gure familia aipatzen duela bere *Lengo egunak gogoan* liburuan. Ez dakit ezin barkatuzkoa den, baina ahalgingarria bai gutxienez. Hau lotsa! Eta liburua (liburuak esan beharko, bi liburuki dira eta) urteetan izan dut etxeko egongelan, telebistaren gainaldean. Badakizu, apaingarritzat izaten diren horiek bezal-bezalaxe. Eta ez pentsa informazioa liburutik iritsi zaidanik, anaia zaharrari ez dakit nork emaniko liburuko fotokopia batzuetatik baizik.

Uztapidek harro sentitzeko hitzak botatzen ditu gure familiaz (“Oso pameli ona zan”, etab.). Garai hartan, Araban, Aramaio zen bertsolarien plaza bakarra: “Gu pozik joaten giñan Aramaiora bertsotara, Araban izan giñala esateko ere; baña etzegoan beste iñora joanik, eta erri batekin konformatu behar”. Eta kontuak nola aldatu diren jakin (edo gogora) ditzazun, irakurle, irakur Uztapideri Aramaiora bertsotara joateko egin behar zuten abentura: “Errenterian artu bostak eta erdietako trena eta Donostiko Amarara joan; an sei ta erdietan egoten zan trena, ta orren zai piska bat egon egin bear; gero, arekin Maltzagaraño joan; an Bitoriakoa artu eta Arrasatera. Andik ere autobusa bear, berriz, Aramaiora joateko. Etzan bereala izaten gosaria, ara iritxita!”. Badira kontu interesgarri gehiago Arabaz eta “Bitoria”-z esaten dituenak, baina horretan utziko dugu.

Gure zorionerako, Araban gauzak aldatu dira Uztapideren denboratik hona. Aramaio da orain ere Arabako herri euskaldun (ia) huts bakarra, baina bertsolaritza ez da Aramaion amaitzen. Orain Araban hainbat lekutara iristen dira bertsolariak. Begira: 2004an 97 bertso-saio antolatu ziren Araban; horien erdiak Gasteiz eta lautadako herrietan, eta beste erdiak gainerako eskualdeetan, batez ere *Aiaraldea*n eta Aramaio barne hartzen duen *Gorbeia inguruak* deitzen den horretan.

Eta Araba eta hiriburua aipatu berri ditudala, jokatu berri da Gasteizen 2005eko Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Jakina denez, Asier Otamendik eraman du berriro ere txapela. Otamendik berak esan du elkarrizketa batean: “Bospasei plaza ditugu urtean, eta txapelketa bizigarri gertatzen da”. Uztapideren garaiarekin konparatuz gero, asko aurreratu dugu Araban. Baina gaurko egunetik begiratuta, txapeldun batek urtean bospasei plaza bakarrik egitea tamalgarria da. Jakina, non gauden badakigu, ez gara inozoak. Asierri eta Oihaneri Txapelketa Nagusia zabalegi gertatzea ez litzateke harritzeko, baina badugu fedea eta badugu esperantza maila onean utziko dutela Araba. Gure desiorik onena beraiendako!

**2004ko uzta**

Eta txokotik goazen zabalera, Arabatik Euskal Herrira. Izan ere, zerbait esan beharko dut bertsolaritzak 2004an gure Herrian eman duen uztaz.

Ni ez nauzu bertsozale porrokatua, bertso-saio den-denetara joan eta bertsolaritzaz agertzen den guztia irensten duen horietakoa (horren froga ezin garbiagoa eman dut gorago). Eta 1988tik hona agertu diren *Bapatean* guztietan hauxe izango zen beharbada oso-osorik

irakurri dudan bakarra. Hitzaurrea idatzi beharrak derrigortu nau horretara. Baina gustura egindako irakurketa izan da, eta eskerrak eman behar hau agindu didanari.

Gutxi gorabehera 50 herritan egindako saioetako zati aukeratuak agertzen dira liburuan. Antologia moduko bat, baina mugatua. Oso mugatua, 2004an Euskal Herri osoan bota ziren bertsoekin alderatuz gero. Milaka bertso botako ziren; ehunka batzuk baino ez dituzu hemen (622, zehatzak izateko). Ez bota ziren bertso onen guztiak, baina bertso on asko bai. Eta biribil-biribilak ez direnak ere bai. Helburua ez baita izan bertso punta-puntakoenak soilik agertzea, ikuspegi zabalagoa ematea baizik.

Gaiak, esan beharrik ez dago, askotarikoak dira: politika, maitasuna, drogak, immigrazioa, gerra, erretiroa, homosexualitatea, parranda, *bullying*a, kartzela, langileria, erlijioa, eritasuna… Horiek eta askoz gehiago. Bizitzaren eta gizartearen isla, Euskal Herriaren argazki mugatua, baina argazki bat.

Ia 100 bertso-sorta dira liburuan dituzunak. Denboraz eta gogoz ondo bazabiltza, nik egin dudana egin, denak irakurri. Asti eta grina gehiegirik ez baduzu, aukera bat egin behar. Guztiz subjektiboa dela jakinik, horra 10 saioko nire aukera: S. Lizaso (Gabiria); Lujanbio-Egaña-Colina-Martin-Maia-Iturriaga (Altzo); E. Goikoetxea (Arrasate); Iturriaga (Bilbo); Egaña (Beasain); Colina-Arzallus (Donibane Lohizune); Egaña-Murua (Zornotza); A. Agirre (Amasa); Irazu (Abadiño); eta Peñagarikano-S. Lizaso (Donostia).

Orain zure txanda da: irakurri, entzun, kantatu, gozatu… eta ondo bizi!

Txipi Ormaetxea Lasaga
Gasteiz, 2005-04-20

# Bertso-saioen mugimendua

2004. URTEAN ANTOLATU DIREN BERTSO-SAIOAK

**2004KO BERTSO SAIOAK**

| **PROBINTZIAK** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 77 | 139 | 195 | 48 | 7 | 37 | 98 | 5 | 18 | 21 | 647 |
| Bizkaia | 56 | 83 | 138 | 11 | 0 | 19 | 38 | 25 | 12 | 7 | 389 |
| Nafarroa | 13 | 23 | 73 | 21 | 12 | 12 | 22 | 6 | 0 | 15 | 185 |
| Araba | 31 | 3 | 10 | 11 | 1 | 6 | 22 | 10 | 3 | 0 | 97 |
| Iparraldea | 9 | 11 | 25 | 0 | 0 | 9 | 7 | 8 | 18 | 5 | 92 |
| Denera | 186 | 259 | 441 | 91 | 20 | 83 | 187 | 54 | 51 | 48 | 1420 |

| **GIPUZKOA** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bidasoa Beherea | 0 | 9 | 11 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 6 | 0 | 26 |
| Deba Beherea | 5 | 16 | 29 | 2 | 0 | 2 | 13 | 0 | 1 | 4 | 72 |
| Deba Garaia | 7 | 8 | 22 | 3 | 0 | 2 | 8 | 1 | 1 | 1 | 53 |
| Donostialdea | 20 | 29 | 41 | 7 | 3 | 10 | 22 | 1 | 2 | 5 | 140 |
| Errenterialdea | 6 | 15 | 11 | 11 | 1 | 10 | 7 | 0 | 4 | 0 | 67 |
| Goierri | 10 | 30 | 33 | 13 | 2 | 6 | 19 | 1 | 2 | 3 | 119 |
| Tolosaldea | 15 | 15 | 32 | 0 | 0 | 0 | 13 | 0 | 2 | 4 | 81 |
| Urola Kostaldea | 14 | 17 | 16 | 12 | 1 | 7 | 16 | 2 | 0 | 4 | 89 |
| Denera | 77 | 139 | 195 | 48 | 7 | 37 | 98 | 5 | 18 | 21 | 647 |

| **BIZKAIA** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arrati Nerbioi | 4 | 5 | 8 | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 20 |
| Bilbo Handia | 29 | 24 | 48 | 4 | 0 | 8 | 23 | 10 | 10 | 3 | 159 |
| Durangaldea | 8 | 21 | 29 | 3 | 0 | 2 | 6 | 4 | 0 | 1 | 74 |
| Enkartazioak | 1 | 0 | 7 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 9 |
| Gernika Bermeo | 3 | 11 | 11 | 1 | 0 | 3 | 2 | 4 | 0 | 0 | 35 |
| Markina Ondarroa | 8 | 16 | 18 | 2 | 0 | 5 | 3 | 2 | 2 | 2 | 58 |
| Plentzia Mungia | 3 | 6 | 17 | 0 | 0 | 1 | 3 | 3 | 0 | 1 | 34 |
| Denera | 56 | 83 | 138 | 11 | 0 | 19 | 38 | 25 | 12 | 7 | 389 |

| **NAFARROA** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bidasoa | 4 | 15 | 34 | 6 | 1 | 6 | 8 | 3 | 0 | 0 | 77 |
| Erdalgunea | 3 | 6 | 14 | 3 | 11 | 4 | 7 | 0 | 0 | 2 | 50 |
| Mendebaldea | 6 | 3 | 22 | 11 | 0 | 2 | 7 | 3 | 0 | 0 | 54 |
| Pirinioak | 0 | 0 | 3 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 |
| Denera | 13 | 24 | 73 | 21 | 12 | 12 | 22 | 6 | 0 | 2 | 185 |

| **ARABA** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiaraldea | 1 | 0 | 4 | 1 | 0 | 0 | 7 | 1 | 1 | 0 | 15 |
| Errioxa Arabarra | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 3 |
| Gorbeia inguruak | 5 | 1 | 2 | 3 | 0 | 1 | 4 | 2 | 1 | 0 | 19 |
| Ibarrak | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 |
| Kantauri arabarra | 1 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 1 | 0 | 7 |
| Lautada | 21 | 0 | 2 | 5 | 1 | 5 | 10 | 4 | 0 | 0 | 48 |
| Mendialdea | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 |
| Denera | 31 | 3 | 10 | 11 | 1 | 6 | 22 | 10 | 3 | 0 | 97 |

| **IPAR EUSKAL HERRIA** | **Jaialdiak** | **Plaza Librekoak** | **Lagun artekoak** | **Sari-ketak** | **Hitzal-diak** | **Ekital-dipekoak** | *Bereziak* | **Txapel-ketak** | **Didak-tikoak** | **Gainera-koak** | **Denera** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAM | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 3 | 0 | 1 | 3 | 1 | 10 |
| BNafarroa – Zuberoa | 3 | 5 | 11 | 0 | 0 | 1 | 4 | 3 | 7 | 0 | 34 |
| Lapurdi barne | 5 | 6 | 13 | 0 | 0 | 5 | 3 | 4 | 8 | 4 | 48 |
| Denera | 9 | 11 | 25 | 0 | 0 | 9 | 7 | 8 | 18 | 5 | 92 |

# Tauletako kontzeptuen azalpena

Jaialdiak: lau bertsolari edo gehiago eta gaiak emanda.
Plaza librea: bi-hiru bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartea: jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Txapelketak: Bat-batekoak: Euskal Herrikoa, herrialdetakoak edo eskolartekoak.
Sariketak: Bat-batekoak: elkarteek, udalek edo motibo jakin baten inguruan antolatuak.
Hitzaldiak: Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatuak.
Ekitaldipekoak: Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...)
Bereziak: Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak.
Gainerakoak: Aurreko sailetan sartzen ez direnak.

***Herrialdeak:***

Herrialdeetako sailkapen berritua , azken urteetan, euskararen azterketa soziolinguistikoak egiteko erabiltzen den sailkapenean oinarritu da.

GIPUZKOA
Bidasoa Beherea: Hondarribia eta Irun.
Deba Beherea: Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Gatzaga.
Deba-Garaia: Arrasate, Antzuola, Bergara, Elgeta, Leintz-Gatzaga, Errigoiti, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta.
Donostialdea: Lasarte-Oria, Donostia, Astigarraga, Hernani, Andoain, Urnieta eta Usurbil.
Errenterialdea: Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzun.
Goierri: Mutiloa, Ordizia, Beasain, Lazkao, Itsasondo, Idiazabal, Zegama, Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Segura, Gabiria, Altzaga, Zaldibia, Zerain, Ataun, Olaberria...
Tolosaldea: Aduna, Tolosa, Alkiza, Amezketa, Altzo, Anoeta, Bidegoyan, Ibarra, Larraul, Ikaztegieta, Lizartza, Zizurkil, Villabona, Irura, Albiztur, Asteasu, Abaltzisketa...
Urola Kostaldea: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia, Aizarnazabal, Errezil eta Aia.

BIZKAIA
Arrati-Nerbioi: Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zeanuri, Zeberio, Orozko, Otxandio, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Arantzazu, Ubide, Urduña...
Bilbo Handia: Arrigorriaga, Berango, Muskiz, Bilbo, Deio, Erandio, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Sondika, Etxebarri, Loiu, Basauri...
Durangaldea: Durango, Abadiño, Berriz, Elorrio, Mallabia, Ermua, Iurreta, Mañaria, Igorre, Amorebieta-Etxan, Zaldibar, Zornotza, Atxondo, Lemoa...
Enkartazioak: Galdames, Balmaseda, Zalla, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa,

Sopuerta...
Gernika-Bermeo: Arratzu, Bermeo, Gernika-Lumo, Muxika, Nabarniz, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Gerrikaitz, Sukarrieta, Morga, Ibarrangelua, Kortezubi, Forua...
Ibarrak:
Markina-Ondarroa: Amoroto, Berriatua, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondaroa, Aulesti, Mendexa, Ispaster, Gizaburuaga, Etxebarria, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz.

Plentzia-Mungia: Gatika, Mungia, Plentzia, Sopelana, Urduliz, Lemoiz, Gorliz, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Arrieta, Barrika, Fruiz, Maruri-Jatabe, Meñaka.

NAFARROA
Bidasoa: Oitz, Donamaria, Ituren, Eratsun, Beintza-Labaien, Arizkun, Elizondo, Anitz, Arantza, Bera, Etxalar, Lesaka, Amaiur, Doneztebe, Irurita, Igantzi...
Erdalgunea: Iruñea, Brañain, Burlata, Berriozar, Zizur Nagusia, Tutera, Antsoain, Arre, Etxauri, Atarrabia, Gares, Noain, Tafalla, Lizarra, Uxue...
Mendebaldea: Altsasu, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lizarrraga, Lakuntza, Uharte Arakil, Etxarren, Gartzaron, Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Uhitzi, Lekunberri...
Pirinioak: Garralda, Orreaga, Orbaitzeta, Aribe, Hiriberri, Izaba, Erronkari, Burgi, Agoitz, Zangoza, Zubiri, Erro, Eugi, Otsagi...

ARABA
Aiaraldea: Izarra, Aiala, Arrespaldiza eta Artziniega.
Errioxa Arabarra: Bilar, Oion, Eskuernaga, Elciego, Kripan, Labastida, Lantziego, Laguardia, Lapuebla de Labarca...
Gorbeia inguruak: Aramaio, Legutiano, Zigoitia, Urkabustaiz eta Zuia.
Ibarrak: Zanbrana, Añana, Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantaron...
Kantauri arabarra: Amurrio, Artziega, Aiara, Llodio eta Okondo.
Lautada: Agurain, Gasteiz, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Asparrena, Barrundia, Iruña Oka, Donemiliaga, Burgelu...
Mendialdea: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra.

IPARRALDEA
BAM: Baiona, Angelu eta Miarritz.
Behe Nafarroa – Zuberoa: Jatsu, Irulegi, Baigorri, Sohüta, Amikuze, Donaixti, Urdiñarbe, Donibane-Garazi, Aiziritze, Ortzaize, Izpura, Arrosa, Banka...
Lapurdi barnealdea: Hendaia, Urruña, Ziburu, Sara, Azkaine, Senpere, Uztaritze, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Basusarri, Hazparne, Bidarria, Lekorne, Larresoro...

# Zenbait azalpen

1.– Orain arteko Bapatean liburuek 600 bertso inguru jaso dituzte, 1995ekoak izan ezik, hura 300 bertsokoa izan baitzen. 2004ko honek 625 bertso dakartza.

2.- Azken urteetako esperientziari jarraituz, liburua 2 KD gehigarriz osatzen da, eta liburuko hainbat sorta entzuteko modua eskaintzen du. Horretarako, liburuan musika ikur bat itsatsi zaie entzun daitezkeen bertso sortei.

3.- Bapatean 2004 osatzeko irizpideak aurreko liburuetan ibilitako berberak izan dira.

4.- Liburu hau antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu liburuaren corpus nagusiak, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik. Beraz, liburu honek plazaz plaza dabiltzan bertsolarien ekarpena islatzen du.

5.- Jakin badakigu egiten diren bertso-saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. Besterik da zer grabatzen den: 2004an 253 saio grabatu dira entzuteko euskarrietanan, 380 bat ordu.

6.- 2004. urtean bat-batean kantatu diren bertsoak hartzen ditu kontuan liburu honek, baina ez Arabako Txapelketan, Nafarroako Txapelketan, Gipuzkoako Txapelketan eta Eskolartekoetan kantatuak . Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jasotzen, baina bai Gazte Sariketetakoak.

7.- Liburu hau osatzeko oinarria Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, audio grabazioak eta horiei dagozkien fitxak izan dira.


8.- Lan hau egiteko, modu batera edo bestera esku hartu dute:

- Oihana Aranburu, Nere Erkiaga eta Arantza Mariskal XDZko kideek.
- Amaia Agirre, Martin Aramendi, Laxaro Azkune, Eneko Bidegain, Xabier Begiristain, Xabier Enbeita, Felix Irazustabarrena, Oihane Pereak, grabaketa eta bilketa lanetan.
- Transkribaketa lanetan, Martin Aramendi eta Amaia Agirrek.
- Azken orrazketa lanetan Arkaitz Goikoetxea eta Juanjo Respaldizak.

9.- Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, oso garrantzizkoa izan da jasotako diru laguntza: Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Saiolerdatzarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarena.


**Bertsozale Elkartea**

# TXAPELKETAK, SARIKETAK, LEHIAKETAK…

# TXAPELKETAK, SARIKETAK, LEHIAKETAK…

## 1.- HERRIALDE MAILAKO TXAPELKETAk

**III. Arabako Bertsolari Txapelketa**
Txapelketa hiru fasetan burutu da: kanporaketak, finalaurreak eta finala.

***Kanporaketak:***

2004-03-06 Eskuernaga Kultur etxean

Irati Anda
Rikardo Gonzalez de Durana
Iker Agirre
Lader Meaza
Orlando Arreitunaindia
Amaia Altube
Hodei Lopez de Arkaute

2004-03-13 Agurain Erakusketa aretoa

Iñaki Viñaspre
Alberto Martinez "Beitto"
Andere Arriolabengoa
Serapio Lopez
Iker Ibarrola
Iratí Mendiguren
Markel Bekares
Josu Ormaetxea
Iraia Sasieta

***Finalaurreak:***

2004-03-27 Aramaio Kultur etxea

Zigor Enbeita
Asier Otamendi
Ruben Sánchez
Andere Arriolabengoa
Orlando arreitunaindia
Oihane Perea

2004-04-03 Laudio Lehen Heziketako udal eskola

Manex Agirre
Juan Mari Juaristi
Ricardo Gonzalez de Durana
Serapio Lopez
Alberto Martinez "Beitto"

***Finala:***

2004-04-25 Gasteizko Printzipal Antzokian

Asier Otamendi (txapelduna)

Oihane Perea
Manex Agirre
Juan Mari Juaristi
Iñaki Viñaspre
Ruben Sanchez

***Epai-mahaia:*** Felix Irazustabarrena, Xabier Ormaetxea, Patxi Aizpurua, Karmele Madinabeitia (idazkaria)

***Gai-jartzaileak:*** Irati Lotina, Naroa Sasieta, Lierni Altuna, Alfredo Remirez

***Antolatzailea:*** Arabako Bertsozale Elkartea

**IX. Bizkaiko Bertsolari Txapelketa**

Txapelketa lau fasetan burutu da: lehenik, udaberrian, Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak, eta ondoren, udazkenean, kanporaketak, finalaurreak eta finala.

**Bizkaiko Eskualdeetako txapelketak**

**Arratialdeko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-16 Zeanuriko kultur etxean finala

Igor Meñika
Eñaut Intxaurraga
Javier Olivares
Iñaki Iturrioz
Manex Sagarna
Iñaki Lasa

**Bilboko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-16 Bilboko Bordatxo jatetxean 2. sailkapen saioa

Matxalen Zabaljauregi, Jurgi Garitagoitia, Javier Martinez “Guti”, Eleder Aurte

2004-05-07 Bilboko Josetxo Ortxarkoagan 3. sailkapen saioa

Jon Eizmendi, Oihana Bartra, Urtzi Urrutikoetxea, Alain Martinez, Josu Martinez, Txaber Fernandez.

2004-05-21 Basauriko Ibaiganen finala

Matxalen Zabaljauregi
Oihana Bartra
Urtzi Urrutikoetxea
Jon Eizmendi
Jurgi Garitagoitia
Javier Martinez “Guti”
Josu Martinez
Alain Martinez
Mikel Galarza
Eleder Aurte

Txaber Fernandez

**Busturialdeko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-14 Gernika-Lumoko Elai-Alai antzokian finala

Amaia Jauregizar
Onintza Enbeita
Ander Elortegi
Anertz Muniategi
Iker Belaustegi
Xabier Enbeita
Jon Rementeria
Amaia Uribe

**Durangaldeko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-08 Durangaldeko txapelketa 1. sailkapen saioa

Jon Unanue, Eneko Abasolo "Abarkas", Beñat Ugartetxea, Ander Salaberria

2004-05-15 Durangoko Kurutziaga ikastolan 2. kanporaketa

Gorka Lazkano, Jon Agirre, Garikoitz Sarriugarte, Peru Magdalena, Ibai Guridi, Gentzane Jimenez

2004-05-29 Iurretako frontoian finala

Eneko Abasolo "Abarkas"
Peru Magdalena
Jon Unanue
Beñat Ugartetxea
Garikoitz Sarriugarte
Ander Salaberria
Gorka Lazkano
Alfonso Jimenez
Jon Agirre
Ibai Guridi

**Enkarterrietako I. Bertsolari txapelketa**

2004-05-15 Muskizko kultur etxean finala

Jon Barrocal
Jokin Castaños
Aingeru Basterretxea

**Ipar-Uribeko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-07 Gatikako frontoian 1. sailkapen saioa

Ekaitz Larrazabal, Gabi Basañez, Iker Gangoiti, Jagoba Pereda, Joanes Igeregi, Miren Ibarluzea, Pello Etxebarria, Unai Angulo

2004-05-14 Lezamako Goioltzako txokoan 2. sailkapen saioa

Aitzol de Castro, Alberto de Abajo, Beñat Vidal, Josu Landeta, Ortzi Garitano, Xabier Paia

2004-05-22 Getxoko Andres Isasi musika eskolan finala
Ortzi Garitano
Miren Ibarluzea
Joanes Igeregi
Iker Gangoiti
Xabier Paia
Aitzol de Castro
Jagoba Pereda
Gabi Basañez
Ekaitz Larrazabal
Unai Angulo
Alberto de Abajo
Beñat Vidal
Pello Etxebarria
Josu Landeta

**Lea-Artibaiko III. Bertsolari txapelketa**

2004-05-02 Gizaburuagako Frontoian finala
Gorka Ostolaza
Joseba Artza
Oier Azula
Lander Ibarluzea
Aitor Goti
Lander San Martin
Erramun Muniozguren

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2004**

***Kanporaketak:***
2004-10-10 Munitibako frontoian
Arkaitz Ugartetxea
Garikoitz Sarriugarte
Xabier Enbeita
Urtzi Urrutikoetxea
Ander Salaberria
Jokin Castaños

2004-10-17 Arrigorriagako Lonbo aretoa
Oihana Bartra
Iker Belaustegi
Javi Olivares
Juanjo Respaldiza
Matxalen Zabaljauregi
Josu Landeta

2004-10-24 Gernika-Lumoko Lizeo antzokian
Onintza Enbeita

Xabier Paia
Eneko Abasolo “Abarkas”
Gorka Ostolaza
Amaia Jauregizar
Joanes Igeregi

2004-10-31 Gatikako frontoian
Arkaitz Estiballes
Gorka Lazkano
Beñat Ugartetxea
Joseba Artza
Igor Meñika
Ibai Guridi

2004-11-07 Zeanuriko frontoian
Eñaut Intxaurraga
Anertz Muniategi
Jon Unanue
Iñaki Iturrioz
Amaia Uribe
Lander Ibarluzea

***Finalaurrekoak:***
2004-11-21 Bermeoko frontoian
Arkaitz Estiballes
Iratxe Ibarra
Alfredo Paia “Fredi”
Onintza Enbeita
Oihane Enbeita
Beñat Ugartetxea

2004-11-28 Getxoko Getxo aretoa
Etxahun Lekue
Unai Iturriaga
Arkaitz Ugartetxea
Oihana Bartra
Enero Abasolo
Garikoiz Sarriugarte

2004-12-05 Elorrioko Arriola antzokian
Igor Elortza
Xabier Paia
Igor Muniategi
Eñaut Intxaurraga
Joseba Artza
Gorka Lazkano

***Finala:***
2004-12-19 Bilboko Euskalduna antzokia
Igor Elortza
Unai Iturriaga
Arkaitz Estiballes

Alfredo Paia “Fredi”
Igor Muniategi
Iratxe Ibarra
Xabier Paia
Etxahun Lekue

***Epai-mahaia:*** Abel Muniategi, Joseba Santxo, Trino Azkoitia, Joxin Iturrioz, Moises Enbeita, Josu Arroyo, Mirari Azula, Iñigo Olabarrri, Josu Telleria, Ainhoa Munitxa, Asier Ibaibarriaga.

***Gai-jartzaileak:*** Josu Goikoetxea, Zuriñe Iarritu, Leire Aurrekoetxea, Bernardo Mandaluniz, Xiomara Gezuraga, Asier Ibaibarriaga, Leire Bilbao

***Antolatzailea:***

Bizkaiko Bertsozale Elkartea. Babeslea Bizkaiko Foru Aldundia eta BBK.

**XXXIV. Nafarroako Bertsolari Txapelketa**

Txapelketa hau hiru fasetan burutu da: lehenik, Nafarroako bertso liga, eta ondoren, finalaurreak eta finala.

**III. Nafarroako bertso liga**

2004-01-02 Irurtzun: Estitxu Arozena, Artiz Saragueta, Jon Barberena, Josetxo Elizetxe, Erika Lagoma
2004-01-10 Arbizu: Julen Zelaieta, Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Josema Leitza, Julio Soto, Diego Riaño
2004-01-10 Betelu: Xabier Legarreta “Arano”, Iñigo Ibarra, Jon Elizetxe, Oier Lakuntza
2004-01-10 Arruitz: Bittor Elizagoien, Oskar Estanga, Mikel Altzuart, Juan Mari LopezI
2004-01-10 Etxarri Aranatz: Xabier Silveira, Joseba Beltza, Eneko Lazkoz, Manolo Arozena
2004-01-30 Ultzama: Estitxu Arozena, Iñigo Ibarra, Josema Leitza, Juan Mari Lopez
2004-01-31 Urdiain: Bittor Elizagoien, Joseba Beltza, Jon Barberena, Oier Lakuntza, Erika Lagoma
2004-01-31 Bakaiku: Julen Zelaieta, Oskar Estanga, Eneko Lazkoz, Josetxo Etxenike
2004-01-31 Astiz: Xabier Silveira, Aritz Saragueta, Jon Elizetxe, Julio Soro, Diego Riaño
2004-02-14 Lizarra: Xabier Legarreta “Arano”, Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Mikel Altzuart, Manolo Arozena
2004-02-06 Garralda: Julen Zelaieta, Iñigo Ibarra, Jon Barberena, Juan Mari Lopez
2004-02-07 Anitz: Bittor Elizagoien, Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Jon Elizetxe, Josetxo Etxenike, Diego Riaño
2004-02-07 Iruñea Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Mikel Altzuart, Julio Soto
2004-02-07 Berriozar: Xabier Legarreta “Arano”, Aritz Saragueta, Eneko Lazkoz, Manolo Arozena, Erika Lagoma
2004-02-07 Lizarrabengoa: Xabier Silveira, Joseba Beltza, Josema Leitza, Oier Lakuntza

***Txapelketarako sailkatuak:***

Julio Soto, Estitxu Arozena, Josema Leitza, Xabier Legarreta “Arano”, Manolo Arozena, Erika Lagoma, Xabier Silveira, Eneko Lazkoz, Julen Zelaieta, Oskar Estanga, Iñigo Ibarra, Joseba

Andoni Beltza, Juan Mari Lopez, Bittor Elizagoien, Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Jon Barberena, Jon Elizetxe.

**Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2003**

***Finalaurreak:*** 2004-03-06 Leitzako zinema

Julio Soto
Estitxu Arozena
Josema Leitza
Xabier Legarreta “Arano”
Manolo Arozena
Erika Lagoma

2004-03-07 Etxarri Aranazko zineman

Xabier Silveira
Eneko Lazkoz
Julen Zelaieta
Oskar Estanga
Iñigo Ibarra
Joseba Andoni Beltza

2004-03-13 Doneztebeko zineman

Juan Mari Lopez
Bittor Elizagoien
Jose Juan Zubieta “Etxabe”
Jon Barberena
Jon Elizetxe
Julio Soto

***Finala:*** 2004-03-28 Lesakako Zambra aretoa

Xabier Silveira
Estitxu Arozena
Bittor Elizagoien
Jon Barberena
Juan Mari Lopez
Xabier Legarreta “Arano”
Manolo Arozena
Jose Juan Zubieta “Etxabe”

***Epaimahaia:*** Gaizka Sarasola,Jon Abril, Joxe Urroz, Mikel Bujanda, Saioa Mitxelena.

***Gai-jartzaileak:*** Alaitz Rekondo, Mikel Berekoetxa, Iñigo Olaetxea.
***Antolatzailea:*** Nafarroako Bertsozale Elkartea. Babeslea, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea erakundea, eta laguntzaile nagusia, Nafarroako Aurrezki Kutxa.

**2.- ESKOLARTEKO TXAPELKETAK[•]**

Urtero bezala udaberrian burutu ziren Eskolarteko Txapelketak, lehenik herrialdez herrialde eta gero Euskal Herri mailakoa. Hona emaitza:

**VIII. Arabako Eskolarteko Txapelketa**

***Kanporaketak:***

Gaztetxoak:
2004-05-22 Amurrio
2004-05-22 Legutiano

Gazteak:
2004-05-07 Amurrio
2004-05-15 Aramaio
2004-05-21 Agurain

***Finala:*** 2004-06-05 Gasteiz

Gaztetxoak:

- Markel Arriolabengoa (txapelduna)
- Garazi Dorrondoro (bigarren)
- Xabi Igoa
- Olatz Ezpeleta
- Ander Lertxundi
- Kepa Jorge
- Joana Kamara
- Ieltxu Ibarra

2004-06-05 Gasteiz

Gazteak:

- Iker Agirre (txapelduna)
- Izar Mendiguren (bigarren)
- Markel Bekares
- Yera Rodríguez
- Hodei Lopez de Arkaute
- Jon Ladrón
- Xabier Lasa
- Jagoba Apaolaza

***Gai-jartzaile:*** Taldea
***Aurkezle:*** Irati Lotina

***Antolatzailea:*** Arabako Bertsozale Elkartea eta Arabako Ikastolen Elkartea.

---

[•] Eskolarteko herrialdeetako bertso idatzien emaitzak bertso-paper lehiaketen atalean daude.

**XXI. Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa**

***Finala:*** 2004-06-04 Bilbo El Carmen aretoa

Gaztetxoak:

- Jone Uria (txapelduna)
- Aitor Beitia (bigarren)
- Miren Amuriza
- Ander Aldazabal
- Xabier Iturraspe
- Illargi Zuazua

(14-15 urte):

- Arrate Illaro (txapelduna)
- Itsaso Paia (bigarren)
- Eñaut Uruburu
- Beñat Romero
- Enea Pinillos
- Amaia Aurrekoetxea

Gazteak (15-16 urte):

- Josu Martinez (txapelduna)
- Jon Agirre (bigarren)
- Manex Sagarna
- Olatz Ibarluzea

***Antolatzailea:*** Bizkaiko Ikastolen Elkartea

**XXIV. Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa**

***Kanporaketak:*** 2004-04-30 Andoain

2004-05-07 Orio

2004-05-14 Arrasate

2004-05-21 Beasain

***Finala:*** 2004-05-28 Zarautz

Gaztetxoak:

Goierri-Urretxuko taldea:(txapelduna):

Ainhoa Mujika, Amaia Iturrioz, Joseba Agirrezabalaga, Manex Mantxola

Añorga-Zubietako taldea:

Asier Azpiroz, Kepa Matxain, Jon Aiarza-Marien

Hernaniko taldea:

Oier Iurramendi, Jon Hidalgo, Iñaki Otxotorena

Elgoibar ikastolako taldea:

Danel Mendibil, Mikel Olaizola, Mikel Arrieta.

Gazteak:

- Alaia Marin (txapelduna)
- Beñat Gaztelumendi (bigarren)
- Aitzol Munduate
- Oier Aizpurua
- Naiara Arreseigor
- Unai Gaztelumendi

Aritz Garin
Karmele Mitxelena

***Gai-jartzaile eta aurkezlea:*** Andoni Egaña.
***Epai-mahaia:*** Mikel Aizpurua, Antton Kazabon eta Imanol Lazkano.

***Antolatzailea:*** Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

**XI. Iparraldeko Eskolarteko Txapelketa**

***Kanporaketak:*** 2004-05-13 Hazparne
2004-05-17 Baiona
2004-05-18 Garazi

***Finala:*** 2004-06-06 Aiherra (Gaztetxoak)
Hendaia: (txapelduna)
Maddalen Arzallus, Kristiñe Txoperena, Marga Berra, Maite Celestino
Garazi A:
Mattin Luku, Bixente Luku, Iban Falxa
Kanbo C:
Ximun Cazaubon, Maiana Irigoien, Antton Kurutxet
Kanbo A:
Txomin Elosegi, Eztitxu Oiarburu, Ugo Carrère

***Gai-jartzaile eta aurkezle:*** Karlos Aizpurua
***Epai-mahaia:*** Beñat Soule, Mixel Itzaina eta Erik Etxart.
***Antolatzailea:*** Iparraldeko Bertsozale Elkartea.

2004-06 –04 Itsasu (Gazteak)
Mizel Mateo
Patxi Iriart (txapelduna)
Ekhi Erremundegi
Elorri Ameztoi
Gillen Hiribarren (bigarren)
Maindi Murua
Odei Barroso

***Gai-jartzaile eta aurkezle:*** Miren Aretxe
***Antolatzailea:*** Iparraldeko Bertsularien Lagunak

**XVIII. Nafarroako Eskolarteko Txapelketa**

***Finala:*** 2004-05-29 Elizondo

Gaztetxoak:
Maialen Uizi (txapelduna)
Unai Artieda (bigarren)

Bianditz Narbarte
Josu Sanjurjo
Ioar Zainta
Julen Balesztena
Maialen Belarra
Iker Gorestarrazu
Maite Mendibil

Gazteak:
Julio Soto (txapelduna)
Garazi Taberna (bigarren)
Ekaitz Astiz
Aitor Arangoa
Aimar Karrika
Xabi Salbador
Alazne Untxalo

***Antolatzailea:*** Nafarroako Bertsozale Elkartea

**XVI. Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa**

***Finala:*** 2004-06-19 Mungia

Gaztetxoak (14 urte arte): banaka
Maialen Uizi
Unai Artieda
Asier Azpiroz
Mikel Olaizola
Mattin Luku
Bixente Luku
Maddalen Arzallus
Kristiñe Txoperena
Jone Uria
Aitor Beitia
Markel Arriolabengoa
Garazi Dorronsoro

Gazteak (15-18 urte): banaka
Beñat Gaztelumendi
Alaia Martin
Ane Zelaia
Julio Soto
Garazi Taberna
Patxi Iriat
Gillen Hiribarren
Mizel Mateo
Josu Martinez
Jon Agirre
Iker Agirre

Izar Mendiguren

***Epai-mahaia:*** Mikel Aizpurua, Beñat Gaztelurrutia, Rikardo Gonzalez de Durana, Josema Leitza, Eneko Bidegain.
***Gai-jartzailea:*** Unai Iturriaga
***Antolatzailea:*** Ikastolen Elkartea Bertsozale Elkartearen laguntzarekin

**3. Bat-bateko bertso sariketak:**

**III. Abra saria**
Herria: Algorta (Getxo)
Antolatzailea: Algortako Bertsolari eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-03-13
Finalistak: Xabier Paia (lehenengo), Iñaki Apalategi (bigarren), Beñat Lizaso, Jokin Labaien, Ander Lizarralde, Egoitz Zelaia

**I. Aizkorpe bertsolari txapelketa**
Herria: Segura
Antolatzailea: Segura irratia
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-11-11
2004-11-18
2004-11-25
2004-12-02
Finala: 2004-12-16
Finalistak: Nahikari Gabilondo (lehenengo ), Iker Zubeldia (bigarren), Iñigo Izagirre, Iñaki Gurrutxaga, Unai Agirre, Andoni Otamendi.

**VII. Argi Berri saria**
Herria: Ordizia
Antolatzilaea: Argi Berri elkartea
Mailak: Bakarra
Finalistak: Agin Rezola, Iñaki Viñaspre, Oihana Bartra, Antón Fernández, Beñat Lizaso, Gorka Iribar
Finala: 2004-03-27
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Oihana Bartra eta Beñat Lizaso

**VII. Axari saria**
Herria: Idiazabal
Antolatzailea: Axari elkartea
Mailak: Bakarra
Finalistak: Manex Agirre, Iban Urdangarin, Xumai Murua, Jon Elizetxe, Jose Angel Aranburu, Izarne Zelaia
Finala: 2004-04-02
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Jose Angel Aranburu eta Iban Urdangarin

**V. Aztiri saria**
Herria: Gabiria (Aztiria auzoa)
Antolatzailea: Aztiri elkartea
Mailak: Bakarra
Finalistak: Miren Artetxe, Unai Muñoa, Xabier Astigarraga, Oskar Alberdi, Aritz Aranburu, Iñaki Iturrioz
Finala: 2004-03-13
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Miren Artetxe eta Aritz Aranburu

**XII. BBK saria**
Herria: Bizkaia
Antolatzailea: BBK, BBE, BIE
Mailak: A maila: 18 urte arte (1985ean jaioak barruan)
B maila: 18-23 urte (1980ean jaioak barruan)
Kanporaketak: 2004-03-02 Markina-Xemein: Lea-Artibai eta Durango
2004-03-03 Bilbo: Bilboaldea eta Ipar-Uribe
2004-03-09 Igorre: Arratia eta Lea-Artibai
2004-03-10 Derio: Ipar-Uribe eta Busturialdea
2004-03-16 Durango: Durangaldea eta Arratia
2004-03-17 Arratzu: Busturialdea eta Bilboaldea
Finala: 2004-03-27
Sailkapena:
1. Ipar-Uribe
2. Arratia

Finalistak: Ipar-Uribe:
A: Beñat Vidal, Olatz Iberluzea, Joanes Igeregi
B: Miren Ibarluzea, Iker Gangoiti, Xabier Paia
Arratia:
A: Manex Sagarna, Jurek Zienkiewic, Jon Agirre
B: Gorka Intxaurbe, Iñaki Iturrioz, Javi Olivares

**IX. Berritxu saria**
Herria: Berriatua
Antolatzailea: Herriko bertsozale taldea
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-07-02
Finalistak: Lander Ibarluzea, Oier Azula, Beñat Gaztelumendi (lehenengo), Julio Soto, Patxi Iriart (bigarren), Izar Mendiguren, Josu Martinez, Jon Agirre.

**III. Bertsotan Bagare Bertsolari Gazteen Arabako saria**
Herria: Araba
Antolatzailea: Bagare Euskal tokia, Arabako euskal kantuzaleen elkartea, Arabako Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-11-05 Arespaldiza
2004-11-12 Añana
2004-11-19 Gopegi
Finala: 2004-11-25 Gasteiz
Finalistak: Iñigo Izagirre (lehenengo), Xabier Paia (bigarren), Julen Zulaika, Jon Elizetxe, Miren Artetxe, Enaitz Alustiza.

**II. Erniarraitz saria**
Herria: Azpeitia, Azkoitia, Zestua
Antolatzailea: Erniarraitz Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-03-05 Zestua
2004-03-12 Azkoitia
Finala: 2004-03-26 Azpeitia
Finalistak: Felix Zubia, Leire Ostolaza, Nahikari Gabilondo, Iñigo Manzisidor "Mantxi" (bigarren), Jokin Uranga (lehenengo), Beñat Lizaso

**GR-4 Bertso bidea**
Herria:
Antolatzailea: Hernani, Lasarte, Oiartzun eta Orioko bertso-eskolak
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-03-06 Oiartzun-Hernani
2004-03-16 Orio - Oiartzun
2004-03-19 Oiartzun - Lasarte:
2004-03-27 Lasarte - Orio
2004-04-03 Orio - Hernani
2004-04-17 Hernani - Oiartzun
2004-04-24 Lasarte - Hernani
2004-05-01 Orio - Lasarte
2004-05-08 Hernani - Orio
2004-05-15 Lasarte - Oiartzun
2004-05-22 Hernani - Lasarte
2004-05-28 Oiartzun - Orio
Finala: 2004-07-04
Sailkapena: 1. Lasarte
2. Orio
Finalistak: Lasarte: Unai Muñoa eta Andoni Otamendi
Orio: Ibai Esoain eta Xabier Sukia
Oiartzun: Ander Lizarralde eta Juanito Mitxelena
Hernani: Iñaki Zelaia eta Iker Osa

**XXVIII. Lizardi saria**
Herria: Zarautz
Antolatzailea: Udala
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-08-27 Zarautz
Finala: 2004-09-03
Finalistak: Miren Artetxe (lehenengo), Iker Zubeldia (bigarren), Jose Anjel Aranburu, Beñat Lizaso, Oihana Bartra, Iban Urdangarin, Agin Rezola, Arkaitz Oiartzabal.

**I. Mariano Izeta saria**
Herria: Elizondo
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-11-26

Finalistak: Jon Barberena (lehenengo), Mizel Mateo, Alazne Untxalo, Erika Lagoma (bigarren), Julen Zelaieta, Oier Lakuntza, Julio Soto, Jon Elizetxe.

**I. Nafarroa oinez saria**
Herria: Lizarra
Antolatzailea: Nafarroa Oinez eta Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-02-14
Finalistak: Estitxu Arozena (lehenengo), Julen Zelaieta, Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Jose Juan Zubieta “Etxabe”

**XXXII. Osinalde saria**
Herria: Gabiria
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-04-02 Axari
2004-03-13 Aztiria
2004-03-27 Argi Berri
Finala: 2004-04-16
Finalistak: Miren Artetxe, Aritz Aramburu, Oihana Bartra (lehenengo), Beñat Lizaso, Iban Urdangarin, J. Angel Aranburu.

**III. Plazatik gaztetxera saria**
Herria: Gipuzkoa
Antolatzailea: Mutrikuko bertso eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-04-30 Elgeta
2004-05-08 Bergara
2004-05-14 Deba
Finala: 2004-05-29 Mutriku
Finalistak: Oihana Bartra (lehenengo), Xabier Astigarraga, Manex Agirre, Mikel Arrillaga (bigarren), Jokin Labaien, Andere Arriolabengoa.

**VI. Txantxangorri saria**
Herria: Errenteria
Antolatzailea: Ereintza elkatea. Xenpelar Bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-06-25
Finala: 2004-07-10
Finalistak: Aitor Albistur, Jon Ansa (bigarren), Josu Oiartzabal (lehenengo), Arkaitz Oiartzabal, Iker Goñi, Manex Mujika.

**I.Urkabustaiz saria**
Herria: Izarra
Antolatzailea: Lan eta Jolas Kultur elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-02-21
Finalistak: Iñigo Izagirre (lehenengo), Miren Artetxe (bigarren), Xabier Paia, Julen Zelaieta, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre

**XVIII. Xenpelar saria**
Herria: Errenteria
Antolatzailea: Xenpelar bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2004-12-04 Errenteria
Finala: 2004-12-08 Errenteria
Finalistak: Iñaki Apalategi (lehenengo), Oihana Bartra (bigarren), Julen Zelaieta, Iban Urdangarin, Beñat Lizaso, Xumai Murua

**Zumaiako VI. txapelketa**
Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiako bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2004-04-23
Finalistak: Unai Gijarro (lehenengo), Maialen Velarde (bigarren), Felix Aizpurua, Manex Elola, Maddi Gallastegi, Gaizka Gastiain, Jokin Gijarro, Gorka Iribar, Oihan Iribar, Josu Manzisidor, Markel Peñalba.

**4.- Bertsopaper lehiaketak**

**Arabako eskolarteko VIII. bertsolari txapelketa: bertsopaperak**
Herria: Araba
Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea / Arabako Ikastolen Elkartea
Mailak: A maila: 14 urte arte
B maila: 15-18 urte
Sarituak: A maila: 1. Xabier Igoa
2. Olatz Ezpeleta
B maila: 1. Markel Bekares
2. Izar Mendiguren

**XX. Basarri saria**
Herria: Zarautz
Antolatzailea: Zarauzko udala. Euskara zerbitzua
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Jose Luis Urdangarin, “1764: gau baten kronika"
2. Alaitz Sarasola, "Amona mantangorriari begira”

**Bizkaiko eskolarteko XX. txapelketa: bertso idatziak**
Herria: Bilbo
Mailak: A:LH 5. maila
B: LH 6 maila
C: DBH 1. maila
D: DBH 2. maila
E: DBH 3. maila
F: DBH 4tik 19 urtera
Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen elkartea
Sarituak: A: Ainhoa Mendia
B: Ane Aranburu
C: Xabier Iturraspe
D: Jone Uria
E: Arrate Illaro

F: Manex Sagarna

**XVIII. Garriko eguna**
Herria: Muxika (Areatza)
Antolatzailea: Garriko bertso-eskola
Mailak: A: 11 urte artekoak
B: 12-13 urte artekoak
C: 14-18 urte bitartekoak
Sarituak: A: 1. Mirari Erkiaga
2. Goizalde Aransolo
B: 1. Gurutz Uruburu
2. Urko Lasa
C: 1. Ander Elortegi
2. Jon Agirre

**Gipuzkoako eskolarteko XXIV. bertsolari txapelketa**
Herria: Donostia
Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea
Mailak: A: LH 2. zikloa
B: LH 3. zikloa
C: DB lehen zikloa: 12-14 urte bitarte
D: DBH bigarren zikloa eta A DBHO: 14-18 urte bitarte
Sarituak: A: Haritz Mujika
B: Ane Labaka
C: Eneritz Arzallus
D: Alaia Martin

**VI. Ibon Zabala bertsopaper lehiaketa**
Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Karmele Mitxelena “Kopeta ilun”
2. Aitzol Pikabea “Maitasun gutuna”

**Iparraldeko XII. bertsupaper lehiaketa**
Herria:
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak elkartea
Mailak: A: 3. urtea
B: 4. urtea
C: 5. urtea
Sarituak: A: Ortzi Murua, Amaiur Renteria, Bittor Thicoipe, Ana Moucada, Amaiur Jauregi, Xabier Dupauf, Maika Bachu
B: Unai Bourgeois, Akhi Harzia, Jaimo Lacroix, Ximun Lastiri, Oihan Indart, Iban Lacoste, Ilazki Ortego
C: Leire Atxotarena, Martin Orkoloaga, Eztitxu Oiarburu, Luxi Lavielle Louise Ugartemendia, Jon Ander Inda, Oihana Barrenquy

**VII. Joanito Dorronsoro bertsopaper lehiaketa**
Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiko bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Xabier Azkua

2. Maddi Gallastegi

**Joxe Iriarte bertsopaper lehiaketa**
Herria: Altsasu
Antolatzailea: Kima elkartea
Mailak: A: LH 5. eta 6. maila
B: BH 1. eta 2. maila
C: DBH 3. eta 4. maila
D: Nagusiak
Sarituak: A: 1. Mar Gonzalez ; 2. Maria Benitez
B: 1. Lorea Gastaminza ; 2. Nekane Senar
C: 1. Garazi Barandallaren ; 2. Ane Zubeldia
D: 1. Alaitz Sarasola ; 2. Julen Zelaieta

**XIII. Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa**
Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkartea
Mailak: A: 13 urte arte
B: 14-18 urte
C: 1984an edo aurretik jaiotakoentzat
Sarituak: A: 1. Mikel Dorronsoro
2. Izaro Zinkunegi
3. Naiara Aldasoro
B: 1. Alaia Martin
2. Karmele Mitxelena
3. Aitor Urbieta
C: 1. hutsik
2. Iñigo Legorburu
3. hutsik

**XVII. Nafarroko eskolarteko bertsolari txapelketa**
Herria: Nafarroa
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: A maila: LH 3. eta 4.
B maila: LH 5. eta 6.
C maila: DBH 1. eta 2.
D maila: DBH 3. eta 4.
Sarituak: A maila: 1. Jone Olaetxea; 2. Amaia Astiz; 3. Iñigo Urzain
B maila: 1. Maialen Belarra; 2. Ainhoa Blanco; 3. Mikel Claver
C maila: 1. Xumar Bakero; 2. Amaiur Esparza; 3. Ana Carmona
D maila: 1. Aitor Arangoa; 2. Garazi Barandaia; 3. Ekaitz Astiz

**II. Neguko bertsopaper lehiaketa**
Herria: Beasain
Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea / Bertsoaren Beasaingo lagunak
Mailak: A maila: 2004an 18 urte baino gutxiago beteko dituztena
B maila: 2004an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak
Sarituak: A maila: 1. Manu Goiogana, “Eskaleen eskaria”
B maila: 1. Uxue Alberdi, "Ordulariek zentzua galtzen duten horietan”

**IV. Okelar saria**
Herria: Mutriku
Antolatzailea: Mutrikuko bertso-eskola
Mailak: A gazteak: 16 urte arte
B helduak: 16 urtetik gora
Sarituak: A: 1. Itxaso Paia, “Izan nazu ama”
2. Hutsik
B: 1. Mikel Arrillaga, “Ume hari begira”
2. Manu Goiogana, “Ilunabar gordinak”

**IV. Oñati hiria literatur saria: ipuinak, olerkiak eta bertsopaperak**
Herria: Oñati
Antolatzailea: Udala
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Ekaitz Goikoetxea, "Itsasertzetik, zuri Kaxiano!"

**II. Sabino Arana bertsopaperen lehiaketa**
Herria: Bilbo
Antolatzailea: Sabino Arana Kultur Elkargoa
Mailak: A: LH 2. zikloa 3. eta 4. mailak
B: LH 3. zikloa 5. eta 6. mailak
C: DBH 1. ETA 2.
D: DBH 3.A ETA 4.A
Sarituak: A: 1. Ainhoa Begiristain
2. Ander Larrion
3. Iñaki Dorronsoro
B: 1. Amaia Iturrioz
2. Nagore Larrañaga
3. Aloña Zumeta
C: 1. Nekane Zinkunegi
2. Mikel Olaizola
3. Xabier Iturraspe
D: 1. Arrate Illano
2. Silvia Etxaniz
3. Hutsik

**X. San Andres bertsopaper lehiaktea**
Herria: Eibar
Antolatzailea: ... eta Kitto! euskara taldea
Mailak: A: 14 urte arte
B: 14 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Eider Escribano
2. Jokin Bergara
B: 1. Irati Agirreazaldegi
2. Oskar Esparza

**VII. San Antontxu bertsopaper lehiaketa**
Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sarituak: A: 1. Joseba Santxo “Ume bardinagoak”

**Soraluzeko II. bertso antzerki lehiaketa**
Herria: Soraluze
Antolatzailea: Pil pilean kultura elkartea
Mailak: A: 18 urtetik behera
B: 18 urtetik aurrera
Sartituak: A: 1. Ainhoa Mendibil, "Bakardadeari azken berbak"
B: 1. Mikel Arrillaga, "Albistearen harrira"
2. Eneko Beretxinaga, "Larunbat gaueko kronika"

**II. Urretxindorra bertsopaper sariketa**
Herria: Bilbo
Antolatzailea: Errekaldeko lagun artea kultur taldea
Mailak: A maila: 12 urte arte
B maila: 13-18 urte
Sarituak: A: 1. Aitziber Ramirez, "Txiroak"
2. Gizanre Laisexa, "Euskal Herria dago"
3. Oihane Ramirez, "Kutsadura"
B: 1. Josu Martinez, "Bertso sex"
2. Txaber Fernandez, "Nunca máis!!!"
3. Imanol Martinez, "Bihotza ala burua?"

**Urretxu eta Zumarragako XX. bertsopaper lehiaketa**
Herria: Urretxu eta Zumarraga
Antolatzailea: Urretxu eta Zumarragako udalak
Mailak: A maila: L.H. 1. eta 2. maila
B maila. DBH 1. eta 2. maila
Sarituak: A : 1. Amaia Iturrioz
2. Imanol Urteaga
B : 1. Manex Mantxola
2. Joseba Angulo

**Villabonako bertso eta ipuin lehiaketa**
Herria: Villabona
Antolatzailea: Udala
Mailak: A: LHko 3. eta 4. maila
B: LHko 5. eta 6. maila
C: BH
Sarituak: B: 1. Irati Oiazabal
2. Kepa Iguaran
3. Jone Iriarte
C: 1. Oihana Iguaran
2. Ainhoa Barandiaran
3. Joseba Iturbe
4. Jokin Alkizalete

**XIII. Xabier Munibe bertsopaper lehiaketa**
Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Udaberri eta Indarlan guraso elkartea
Mailak: A maila: DHB lehen zikloa
B maila: DHB bigarren zikloa
Sarituak: A: 1. Nekane Zinkunegi, "Etxetik alde egitea erabaki dut"

2. Joseba Iturbe, "Baserritarren bizitza"
3. Lide Rekondo, “Takolo”
B: 1. Silvia Etxaniz, "Nahi eta ezina..."
2. Jokin Sudupe, "Euskal Herriko egoera azken urte hauetan"
3.Larraitz Eizmendi, “Tratu txarrak jasotzen dituen emakume arrunt bat naiz”

**VIII. Xalto bertsopaper sariketa**
Herria: Goizueta
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: A maila: LH 3. eta 4. maila
B maila: LH 5. eta 6. maila
Cmaila: LBH 1. eta 2. maila
Sarituak: A: 1. Ainhoa Zabaleta
B: 1. Maria Eskudero
C. 1. Ane Taberna

**XVI. Zapirain anaiak bertsopaper lehiaketa**
Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Esteban Martiarena, “Animali ugari pizti bakarrean”
2. Mikel Arrillaga, “Ongi etorri, ongi joan”

# BAT-BATEKO
# BERTSO HAUTATUAK

**Oñati (2004-01-05)**

*Bertsolariak: A. Mendiluze, J.M. Irazu, U. Iturriaga, J. Maia, S. Colina eta M. Lujanbio*

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

350-400 entzule inguru elkartu ziren Zubikoa kiroldegian errege bezperan urtero izaten den jaialdian. Saio gustagarria egin zuten bertsolariek, bertso on ugari, eta bertsoaldi batzuk bete-betak. Jaialdi handi hauetan ohikoa denez, denetariko gaiak izan ziren.

*A. Mendiluze*

Gaia: Gaur ere tratu txarrak jaso dituzu, baina ez daukazu adorerik salaketa jartzeko.

Neurria: berezia
Doinua: Txikitatikan edukia dut

Hasarratuta aterako zen
gaurkoan ere lanetik
ez dabil ondo errelebotan
jarri zuten egunetik;
etxera behintzat sartzen denean
irtenda bere onetik
pasa orduko atetik
ez naiz libratzen kolpetik.
Salaketa bat jarri nezake
Baina salatu zergatik?
Jo egiten nau baina ez du nahi
Maite nauela badakit. (bis)

Bere bizitzan gainditu ditu
hainbat traba, hainbat hesi
eta lehenengo egunetik ni
sentiarazi berezi
baina kontuak aldatu eta
ezin argirik ikusi
ezin naiz joan ihesi
bada hau ez det merezi
Jotzen nau eta maite nauela
Bururatzen zait lehenbizi
Bai, bai, maite nau egia da bai
Baina ezin naiz hola bizi. (bis)

Barrua daukat nik ubelduta
ez da bakarrik azala
lehen alditan pentsatzen nuen
errua nerea zala
baina dudatan jarri det hori
kolpe gehio jaso ahala
nahiz eta izan zerbitzala
beti tratatzen nau hala.

Azken aukera emango diot
nik maitasunez bezala
baina benetan da azkena hau
ta aukeratu dezala. (bis)

## DONOSTIA (2004-01-24)

*Bertsolariak: A. M. Peñagarikano, A. Egaña, I. Elortza, M. Lujanbio,*
*S. Lizaso, I. Murua, U. Iturriaga eta J. Maia.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea

Donostiako Kursaalean izan zen Bertso Eguna 2004. Mila lagunetik gora hurbildu ziren eszenatoki berezia oinarri zuen bertso jaialdira. Bertsolariak altura eta modu ezberdinetan kokatu zituzten entzuleen gozagarri: bata besteari begira, aldamio gainean, oholtzaren bazter batean... Kokapenak zer ikusi handia izan zuen.

### *I. Murua-M. Lujanbio*

Gaia: Iruñeko Foruen monumentua duzue hori. Bertan inskripzio hau dago idatzia: "Gu gaurko euskaldunok gure aitasoen illezkorren oroipenean bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko." Maialen da Iruñeko monumentua. Murua da Iruñeko kaleetan doana, eta inskripzio hori irakurri duena.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Balentin Berriotxoarena

I. Murua: Ai, emakume, hemendik horra
bidea ez det erreza
batzuk biraoka ari gera ta
bestek erreza ta erreza;
gure hizkuntza menpean dago
kanpokoa da jueza...
Emea zera bizi emaile
ta eman zaiguzu babesa. (bis)

M. Lujanbio: Metrotan gora egin ninduten
ez daukat balio hutsa
ni izango naiz garai batean
herri hau zenaren funtsa;
nere harritik, nere gelditik
emango dizut laguntza
baina gaur egun bizi direnek
bizi behar dute hizkuntza. (bis)

I. Murua: Halaxe da bai baina gaur egun
bizirik degu krisia
gainbehera goaz jatorrenak ta

goian da hipokresia;
lehen zerbait ginan, jarri digute
sarea eta hesia...
zure harritik hilzori danai
eman zaiozu bizia. (bis)

M. Lujanbio: Begirada ta bizia ematen
ni saiatuko naiz beti
baina Nafarro ta Euskal Herriak
ez dabiltza ez amesti;
hementxe jarri ninduten sendo
ta ai zergatik baneki!
Lema merkeak errezak dira
ta hitz biziak garesti. (bis)

I. Murua: Hitz biziari sua emanez
lema hor dago ezagun
batzuk gu gutxik ahal egin behintzat
egunero gera jardun
baina Nafarron laguntz premia
haundia nola daukagun
zazpi izanak zazpi gerala
benetan sinets dezagun. (bis)

M. Lujanbio: Zuek sinistu behar dezute
ia sinisten dezuten!
Puntaren puntan hemen nago ni
inork ezin nazake ken;
bestela aspaldi bota ninduten
bajatu, eraitsi, eten...
eskerrak gero agintariak
txiki samarrak dauzkaten! (bis)

*A. M. Peñagarikano-S. Lizaso*

Gaia: Hementxe daukagu talaia batean eserita, itsasoari begira dagoen bikotea. Luzaro ibili dira elkarrekin, gehiegi agian. Une hau baketsua da, zoragarria. Peñagarikanok uste du Lizaso deklaratu egingo zaiola, baina Lizasok garbi dauka lagun bezala soilik nahi duela.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

A. M. Peñagarikano: Gu oso goxo gaudela hemen
ez al dezu nabarmendu?
Eta Bilintxen bertso politak
nik burutik ezin kendu
eta gaur bezin atrebitua
sekula ez naiz egondu...
nik horregatik galdetzen dizut

nahi al zenukeen ezkondu.

S. Lizaso:

Zer arraiotan jartzen didazu
hainbat konpromezu klase?
Ahalegindu naiz baina hala're
zurekin ezin naiz ase.
Hau bukatu da ta esateko
une egokia hauxe ;
maitasuna ere joan egiten da
olatuak bezelaxe.

A. M. Peñagarikano:

Itsas ertzera etorri gera
gustora biok batera
ta une hontan hau da golpea
nere bihotzaren ertzera!
Zu bapatean ausartu zera
orain ezetz esatera...
hainbat urtetan muxu ematen
hontako ibili al gera?

S. Lizaso:

Muxu emanaz lekua utzi
genedukan ametsari
nahiz azkenean ez dun ekarri
uste gendun aina sari;
geure jarreran, geure posturan
ez ote dago nabari?:
lehen alkarri begira ginan
ta orain itsasoari.

A. M. Peñagarikano:

Pentsa ezazu hori entzunda
triste egiten naizela
pentsatzen nuen nere biziko
kuttuna bera hau zela
eta bapaten eman didazu
zuk horren susto itzela;
benga, maitea, ezkon gaitezen
Adan ta Eba bezela.

S. Lizaso:

Alperrik hainbat konparaketa
alperrik hainbat istori
zure ondoan ez dut itxaro
amestu hainbeste zori.
Erori eta altxa ezina
gertatu zaie askori
gu balantzakin libra gintezke
oaindik ez gera erori.

A. M. Peñagarikano:

Oraindik ere nere zalantzek
erabat beldurtzen naute
baina badaukat itxaropena
lortu behar det zerbaite.
Hainbat urtetan esan didazu

“Nik bihotzez zaitut maite”
muxu haundi bat eman nahi dizut
puxkat gerturatu zaite.

S. Lizaso : Zuk beste zerbait lortu nahi dezu
zabiltzala zabiltzala
baina gainean ez dut hartu nahi
nik ezkontzaren itzala;
ez zazu uste garai batean
ni gezurtia nintzala
zu bihotzetik maite zaitut nik
baina lagun bat bezala.

*A.M. Peñagarikano*

Gaia: Esan didatenez, Peña, azkenaldian behin baino gehiagotan esan duzun esaldia da honako hau: “bizitza ez da matematika”.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

Pentsamenduak dauzkat
nere barrenean
orain hiru hilabete
une txarrenean...
matematika ez dela
diot azkenean;
nik konprenditu nuen
halako unean
gure anai zaharrena
galdu genunean.

Beti hitz egiten nion
anaiari hika.
Minbiziak hondatu
bere bi birika:
geroztik egunetan
gaitza hor segika...
Gazte utzi gintuen
gaztetxo apika.
Bizitza problema da
ez matematika.

Matematikak behar
dira ofizinan
baina emaitza txarrak
gero medizinan
gaitzari aurre eginez
indarrez ta grinan...

Hemen negok geroztik
ulertu ezinan
berrogeita hamar urtekin
nola joan zinan.

Berdin zaio goizean
berdin iluntzean
beti egongo baita
gure bihotzean
negar egiten degu
hartaz oroitzean;
amak oroitzen hau hi
bere otoitzean
eta nik oroitzen haut
bertso bakoitzean.

## ZUBIETA (2004-01-24)

*Bertsolariak: A. Sarriegi, I. Apalategi, J. Uranga, F. Paia, S. Colina, J. Sorozabal, I. Lazkano, A. Arzallus eta X. Amuriza.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea

Araeta sagardotegian izan zen afaria. Ohi bezala jantokia afaltiarrez beteta eta oso giro ona. Bertso saioa ez zen luzea izan baina ale onak entzuteko parada eduki zuten bertara joandakoek.

### *I. Lazkano-A. Arzallus*

Gaia: Imanolek idatzi berri duen liburuan Ametsen hitzek ere badute lekua. Ametsen hitzek hala diote: "Haurrari aitonaren eskuak erakutsi dio bideak non dituen zuloak, eta aitonaren behatzak seinalatu dio bideak non duen atajua. Horiek gustatzen zaizkio bilobatxoari, sekretu horiek.".

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Mendiko umea naiz

A. Arzallus: Puntutan nola egin behar dan
kontatu zaidazu.
I. Lazkano: Aitonak badaduka
nahi dan hainbat mezu.
A. Arzallus: Egin behar al diot
ondokoai kasu?
I. Lazkano: Neri entzunda ondo
ikas dezakezu.

I. Lazkano: Ahal bada segi zazu
aitonen urratsa

A. Arzallus: hola ondo pasatu
nitzazke arratsak.
I. Lazkano: Zu zerade guretzat
biharko esperantza
A. Arzallus: amonek ez badute
astintzen erratza.

A. Arzallus: Horiek ere fuerte
etorriko dira
I. Lazkano: beti ez zaitez egon
amonei begira
A. Arzallus: baina iloba hortikan
ikasten ari da
I. Lazkano: hortik igo nahi dezu
bertsoen gurdira.

I. Lazkano: Bizitza hola da-ta
hortatik ikasi;
A. Arzallus: aizu, nola behar da
plazaz plaza hasi?
I. Lazkano: Gizatasunak izan
behar du nagusi
A. Arzallus: hori beharko didazu
zuk zeuk erakutsi.

A. Arzallus: Hori eskolan nola
ez degun ikasten
I. Lazkano: horregatik dakigu
hoik nola doazten;
A. Arzallus: bukatzen baino errezago
izaten da hasten
I. Lazkano: ikasi behar dezu
geureari eusten.

I. Lazkano: Patxara dezu gazte
gauzik prezisona
A. Arzallus: hori beti izan da
bertute bat ona;
I. Lazkano: pixkana egiten da
munduan gizona
A. Arzallus: baina laister ez a(ha)l naiz
egingo aitona?!

A. Arzallus: Ordun idatzi beharko
det nik liburua
I. Lazkano: hortako argi izan
behar da burua
A. Arzallus: baina mereziko dun
ez da segurua
I. Lazkano: bai maitatzen badezu
gure ingurua.

I. Lazkano: Lehena ez da txar ta
lehenari eutsi
A. Arzallus: nik lehendik datorrenik
ez nuke nahi hautsi;
I. Lazkano: horregatik behar da
geurean sinetsi
A. Arzallus: zerbait etorri dadin
bihar edo etzi.

A. Arzallus: Nola hitz egiten da
aho bizarrik gabe?
I. Lazkano: Horretarako jaio
behar baita trebe
A. Arzallus: eta ni ez ote naiz
dohai horren jabe?
I. Lazkano: Ikasten saiatzea
zeuretzako hobe.

I. Lazkano: Gauzak ikasten dira
pixkana-pixkana
A. Arzallus: hargatik etorri naiz
aitonarengana;
I. Lazkano: nik ere jarri dizut
gerorako plana
A. Arzallus: baina ondo betetzen
izango da lana.

A. Arzallus: Amona hor ari da
bazkaia prestatzen
I. Lazkano: beraz ziur da jana
ta ez nau kezkatzen;
A. Arzallus: dena hoztu baino lehen
sukaldera goazen
I. Lazkano: tripa ondo betetzea
baitegu eskatzen.

I. Lazkano: Horrenbestez bukatu
zagun gure festa
A. Arzallus: gehiegi luzatzean
gauza onik ez da;
I. Lazkano: gu bertsotan ai gera
ta hark afaia presta
A. Arzallus: zuek segi zazute
sagardoz gainezka.

**DONOSTIA (ZUBIETA) (2004-01-24)**

*Bertsolariak: A. Sarriegi, I. Apalategi,*
*J. Uranga, F. Paia, S. Colina, J. Sorozabal,*
*I. Lazkano, A. Arzallus eta X. Amuriza.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea

Araeta sagardotegian izan zen afaria. Ohi bezala, jantokia afaltiarrez beteta eta oso giro ona. Bertso saioa ez zen luzea izan, baina ale onak entzuteko parada eduki zuten hara joandakoek.

*I. Lazkano-A. Arzallus*

Gaia: Imanolek idatzi berri duen liburuan Ametsen hitzek ere badute lekua. Ametsen hitzek hala diote: “Haurrari aitonaren eskuak erakutsi dio bideak non dituen zuloak, eta aitonaren behatzak seinalatu dio bideak non duen atajua. Horiek gustatzen zaizkio bilobatxoari, sekretu horiek.”

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

A. Arzallus: Puntutan nola egin behar dan
kontatu zaidazu.
I. Lazkano: Aitonak badaduka
nahi dan hainbat mezu.
A. Arzallus: Egin behar al diot
ondokoai kasu?
I. Lazkano: Neri entzunda ondo
ikas dezakezu.

I. Lazkano: Ahal bada segi zazu
aitonen urratsa
A. Arzallus: hola ondo pasatu
nitzazke arratsak.
I. Lazkano: Zu zerade guretzat
biharko esperantza
A. Arzallus: amonek ez badute
astintzen erratza.

A. Arzallus: Horiek ere fuerte
etorriko dira
I. Lazkano: beti ez zaitez egon
amonei begira
A. Arzallus: baina iloba hortikan
ikasten ari da
I. Lazkano: hortik igo nahi dezu
bertsoen gurdira.

I. Lazkano: Bizitza hola da-ta
hortatik ikasi;
A. Arzallus: aizu, nola behar da

| | |
|---|---|
| | plazaz plaza hasi? |
| I. Lazkano: | Gizatasunak izan |
| | behar du nagusi |
| A. Arzallus: | hori beharko didazu |
| | zuk zeuk erakutsi. |
| | |
| A. Arzallus: | Hori eskolan nola |
| | ez degun ikasten |
| I. Lazkano: | horregatik dakigu |
| | hoik nola doazten; |
| A. Arzallus: | bukatzen baino errezago |
| | izaten da hasten |
| I. Lazkano: | ikasi behar dezu |
| | geureari eusten. |
| | |
| I. Lazkano: | Patxara dezu gazte |
| | gauzik prezisona |
| A. Arzallus: | hori beti izan da |
| | bertute bat ona; |
| I. Lazkano: | pixkana egiten da |
| | munduan gizona |
| A. Arzallus: | baina laister ez a(ha)l naiz |
| | egingo aitona?! |
| | |
| A. Arzallus: | Ordun idatzi beharko |
| | det nik liburua |
| I. Lazkano: | hortako argi izan |
| | behar da burua |
| A. Arzallus: | baina mereziko dun |
| | ez da segurua |
| I. Lazkano: | bai maitatzen badezu |
| | gure ingurua. |
| | |
| I. Lazkano: | Lehena ez da txar ta |
| | lehenari eutsi |
| A. Arzallus: | nik lehendik datorrenik |
| | ez nuke nahi hautsi; |
| I. Lazkano: | horregatik behar da |
| | geurean sinetsi |
| A. Arzallus: | zerbait etorri dadin |
| | bihar edo etzi. |
| | |
| A. Arzallus: | Nola hitz egiten da |
| | aho bizarrik gabe? |
| I. Lazkano: | Horretarako jaio |
| | behar baita trebe |
| A. Arzallus: | eta ni ez ote naiz |
| | dohai horren jabe? |
| I. Lazkano: | Ikasten saiatzea |
| | zeuretzako hobe. |
| | |
| I. Lazkano: | Gauzak ikasten dira |

pixkana-pixkana
A. Arzallus: hargatik etorri naiz
aitonarengana;
I. Lazkano: nik ere jarri dizut
gerorako plana
A. Arzallus: baina ondo betetzen
izango da lana.

A. Arzallus: Amona hor ari da
bazkaia prestatzen
I. Lazkano: beraz ziur da jana
ta ez nau kezkatzen;
A. Arzallus: dena hoztu baino lehen
sukaldera goazen
I. Lazkano: tripa ondo betetzea
baitegu eskatzen.

I. Lazkano: Horrenbestez bukatu
zagun gure festa
A. Arzallus: gehiegi luzatzean
gauza onik ez da;
I. Lazkano: gu bertsotan ai gera
ta hark afaia presta
A. Arzallus: zuek segi zazute
sagardoz gainezka.

## MUNGIA (2004-01-25)

*Bertsolariak: J. Lopategi, M. Ibarluzea, A. Arzallus eta E. Lekue.*

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

San Antontxu jaiak zirela-eta Taket berrtsolaritza alkarteak antolatutako ohiko saioa. Foruen Enparantzan izan zen eguerdiko hamabi eta erdietan. San Antontxu bertso-paper leihaketako sariak ere bertan banatu zituzten.

### *M. Ibarluzea-E. Lekue*

Gaia: Miren, zu San Antontxutako feriara etorri zara Etxahunengana, Etxahunek iaz saldu zizkizun intxaur landareak erreklamatzera. Intxaurren ordez limoiak atera zaizkizu.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Balentin Berriotxoarena

M. Ibarluzea: Zeugana jota landara batzuk
erosi urte bat dela.
Hazi,hazi ziren eta gertatu
jata neroni itzela:
ez dira hazi landara danak

espero neban bezela
ez eustan esan hazi horrek danek
magia kutsue eukela. (bis)

E. Lekue: Egia da bai honek badeko
esplikazino beharra
zuri gertatu jatzun kontuak
sortu dausta irriparra.
Antzematen da ez zaitugula
legezko baserritarra;
kategoriko landarak ziran
lurra izango da txarra. (bis)

M. Ibarluzea: Mungiko lurrak direnez gero
txarretik ez dauke bapez
ta zaindu dodaz behar zan moduan
baserritar legez artez
eta ez dakit ulertu leiken
baina ulertzen dot nekez:
oraingo hontan barriro bere
intxaurrak mikaztu jatez. (bis)

E. Lekue: Gauza ederrik ezin da urten
zuk darabilzun lurretik
nik dakidana emongo dotzut
ta dakidan apurretik;
bada limoiak zer dala eta
atera diren badakit
hori izan da Mirentxu dozun
umore garratzagatik. (bis)

M. Ibarluzea: Ordun dinozu limoi horiek
urten jatazala zeren
umore garratz ta txarrekoa
dogulako beti Miren
baina ez dakit hori gertatu
behar zan orain edo lehen
oin emostaizuz urretzak ea
laranjak urtetan diren. (bis)

E. Lekue: Ta limoia ta naranjak ere
ez dira pasatzen modaz
nahiz ta kontuak ez diren urten
dirudienez ganoraz;
etekinak be atara behar
doguz guk kontu askogaz
hola landara arraro hauek
pantentau beharko dodaz. (bis)

**AIZARNAZABAL (2004-01-30)**

*Bertsolariak: S. Lizaso eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Mieltxo Aiertza.

Berrogeita hamar afaltiar elkartu ziren Mikel Elkartean. Santa-eskerako beroketa moduan hasi ziren antolatzen gerora urteroko bihurtu den afari hau. Lehenbiziko jarduna, ordubete eta hamar minutu ingurukoa, librean egin zuten. Libreko saioaren lagin txiki bat jaso dugu hemen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

A. Egaña:
Biok bastante juxtu gabiltza
ez al da bistan nabari?
Orain gutxikin asko degu ta
lehen gutxi ez zen ugari
baina aitzakia aizu Sebastian
ez bota inpernuari
suari baino beldur gehiago
izan diogu urari. (bis)

S. Lizaso:
Gauzik onena izango degu
urai neurria hartzea
nahiz zarauztarrak normala degun
gauza hori aipatzea;
arriskutsua izan liteke
ur haundietan sartzea
ta miraria ez al izango
baso baten itotzea? (bis)

A. Egaña:
Basoka uretan itotze hori
ez da inorentzat errez
bat baino gehio sumatu det nik
horrelakotan negarrez.
Lizaso ere holakoa da
aitortu nahi nuke aurrez;
hau itoko da ur baso baten
itotzearen beldurrez. (bis)

S. Lizaso:
Bertsolarien golfo fama da
agian geure kalteko
ta fama hori aldatu nahian
gabiltza borondateko;
gaur bertsolari gazte batzuek
hemen ditugu tarteko
ta formal samar izan nahi degu
ejenploa emateko. (bis)

A. Egaña: Ez nago ados inundik ere
esango nuke bestela:
iruditzen zait ur tragoana
itxura ona ez dela;
eredu ona izatekotan
zuk esan dezun bezela
betiko gisan edan dezagun
ta hori ikas dezatela. (bis)

S. Lizaso: Hara, Andoni, hanka sartzea
egin dezu dexentea
ez edateko albotik Joxek[1]
basoa dizu betea.
Normal ibili, hori badezu
daukazun borondatea
normala al da kafe tazatik
zuk whiskia edatea? (bis)

A. Egaña: Bertso kontuan ezer'e ez da
kasualitate izaten
kafe taxatik zertan ai naizen
saiatuko naiz esaten:
hemen ari naiz disimuloan
eta neurrian edaten
lehengo aitonen postura zein zan
gazteek ikas dezaten. (bis)

S. Lizaso: Zure asmoa ez zala hori
hain da gauza nabarmena
ta sekretua argitze horrek
zuri eman dizu pena.
Gauza bat bada lehengo zaharrek
garbi esaten zutena:
"disimulatzen saiatzen dana
nabarmentzen da gehiena". (bis)

## ANDOAIN (2004-01-31)

*Bertsolariak: S. Colina, A. Arzallus, J. Sorozabal eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Bastero kulturgunean egindako bertso-afaria. Espero baino jende gutxiago joan zen, baina saio polita eta maila onekoa egin zuten bertsolariek. Hasieran librean aritu ziren, eta ondoren gaiak emanda.

[1] Une horretan berean edaria bota zuen Aizarnazbalgo alkate Joxe Larrartek Egañaren edalontzira.

*S. Colina-A. Arzallus*

Gaia: Bada bertsoaldi ezagun bat aldamio bat protagonista duena. Xalbador eta Uztapide ziren bertsotan. Gai-jartzaileak aldamio baten gainean jarri zituen. Batek salto egin behar zuen bestea salbatuko bazen. Zuek ere berdin zaudete, baina ez dut zurikeriatan aritzerik nahi.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak

A. Arzallus: Aldamioan gu tokatzerik
hori ez nuen espero
ta erabaki beharra dago
hontara iritsi ezkero;
ni oraindikan hotz samar nago
oraindik ez nago bero...
lehenbizi salto egin zazu zuk
ta ni joango naiz gero. (bis)

S. Colina: Nere laguna ez ote dugu
adar-jole nabarmena?
Beraren poza izan nahi luke
nere sendiaren pena.
Barkatu baina ni joatea
ez da gauzarik onena
gu biotan ni izandu bainaiz
atzetik joaten dena. (bis)

A. Arzallus: Gu biok ere, aizu, kiloak
ez daduzkagu sobera:
nik gutxi dauzkat ta zuk gutxio
hori gutxi gorabehera;
ta horregatik joatekotan
hemen goitikan lurrera
biotako bat salbatzekotan
zu zeu salbatuko zera. (bis)

S. Colina: Bertso kontutan izaten duzu
mila liskar ta sesio
etxean ere zure amatxok
ai, zenbat amorrazio!
Neskak ez zaitu batere maite
eta keridak gutxio;
beraz gaur bertan hiltzen bazara
ere berdin-berdin dio. (bis)

A. Arzallus: Baina askotan iniziatiba
zuk izaten duzu Sustrai:
beti diozu “Ni hasiko naiz”
ta ni aldamenean zai;
ni guztiekin haserreturik

ez naiz ez konpontzeko gai
ta horregatik hemen zurekin
ez nuke haserratu nahi. (bis)

S. Colina: Hementxe gaude luzatu ezinez
gure pausoa aurrera
hementxe bertan buka liteke
gure bizitzen karrera.
Amets saltatu zazu faborez
kamikazeen antzera
aldamioan bakar-bakarrik
aspertu egingo zera. (bis)

A. Arzallus: Aizu, bakarrik izaten ditut
burutazio ugari;
orain kantatu gai honexeri
hurrena kantatu hari...
hurrengo urtean Bertso Eguna
hurreratzen zaigu ari
ta entrenatzeko aldamiotik
jardungo naiz ni kantari[2]. (bis)

S. Colina: Bertso Eguna badator eta
entrenamentu zitala
egin nahi duzu, gutxienean
nik antzeman dizut hala.
Aldamiotik saltatuz gero
eskatzen dudan bezala
zure hiletetan kantatuko dut
zoragarria zinala. (bis)

*J. Sorozabal-S. Colina*

Gaia: Aita-semeak zarete. Jokin aita eta Sustrai semea. Jokin, zu zurrutero profesionala zara. Sustrai semea, aldiz, erabat formala atera zaizu. Hasieran harro zeunden zure bidea hartu ez duelako, baina kargu hartzen hasi zaizu.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Maritxu nora zoaz I

S. Colina: Zuk hustuko zenuke
sagardo kupela
txikiteon gastatuz
hamar mila pela;
ni txintxo ibiltzen naiz
santu bat bezela
zeinek esango luke

[2] Aurtengo Bertso Egunean hainbat jarreratan kantatu behar izan zuten bertsolariek, aldamio gainean jarrita ere bai, besteak beste.

zurea naizela.

J. Sorozabal: Dozena t'erdi ardo
tragatu ondoren
kalian ibiltzen naiz
bastante nabarmen.
Gaurko estudianteok
ze bizkorrak diren:
txarra dala badaki
probatu baino lehen.

S. Colina: Beraz ba omen duzu
behar aina zentzun
txarra dala badakizu
hala dizut entzun;
hargatik galdetzen dizut
mesedez erantzun
txarra bada zergatik
probatutzen dezun.

J. Sorozabal: Bizio txikiekin
hasten da aurrena
haundixeaguak'e
badatoz hurrena;
bizioak txarrak dira
hori nabarmena
baina batere eza da
denetan txarrena.

S. Colina: Bizio gabe nabil
jaio nintzen berez
santu-santua eta
santutu beharrez;
etxeko egoera
dijoa aldrebes:
aita parre faltsuz ta
amatxo negarrez.

J. Sorozabal: Esan didazun hori
ez nuen espero
hainbat negar entzuten
ditut honezkero;
zure aitari erritan
ari zera bero
ni're ohartu nintzen
probatu ta gero.

S. Colina: Holakorik ez zazu
aita arren esan
gure amak negarra
gehio egin ez dezan;
jada juzgatu zaitut

alkoholiko gisan
gizona izan zaitez
nahiz aita ez izan.

J. Sorozabal: Semea kargu hartzen
aitari gogotik
orain arte ez zitzaion
batere inportik.
Ama zertan ari dan
negarrez ba al dakik?
Aitarengatik edo
semearengatik.

S. Colina: Hori entzunda ez nago
aita bat'e lasai
amatxo baitaukagu
negar malkotan blai.
Nahiz ta ez zaren geratu
erantzunaren zai
neregatik ari da
zugatik ere bai.

J. Sorozabal: Semea santu-santu
aita ardotan blai
ama gaixua aita
noiz etorriko zai
ta zu berriz etxean
bakarrikan noiznahi...
nik arazo bat daukat
baina zuk ere bai.

S. Colina: Beraz biak daukagu
arazo larria
konponbide bat behar du
hementxe jarria;
loratu nahi badugu
amaren irria
ea aurkitzen dugun
bion neurria.

J. Sorozabal: Neurri hori bilatzen
ein zagun ahalegin
onartzen det askotan
dedala hutsegin
mendira joango naiz ni
jaiero zurekin
eta zu hilean behin
mozkortu nerekin.

*A. Mendiluze-S. Colina*

Gaia: Lapurdiko kostaldera droga paketeak ari dira iristen. Zuek horietako bat aurkitu duzue. Biok sosik gabe zaudete. Aitorrek sekulako aukera dela uste du bere egoera hobetzeko. Sustraik, ordea, arazoak besterik ez dizkiola ekarriko uste du.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Lagundurikan danoi I

S. Colina:

Pakete txikitxo bat
dugu buruz buru
barruan zer dagoen
ez nago seguru.
Nahiz ta aberastea
den zure helburu
hortik heldu litezke
hamaika apuru...
pobre eta kartzelan
bukatuko dugu.

A. Mendiluze:

Zergatikan bukatu
kartzela batetan
gu kontuz bagabiltza
mugimenduetan?
Norbaitek utzi eta
dago hondarretan
ta ez al zaude seguru
zer dagoen bertan?
Gure ametsak daude
pakete horretan.

S. Colina:

Zure ametsa al da
haundi ta itzela?
Jakin nerea hortan
kabitzen ez dela.
Ikusiz pakete bat
hona datorrela
bikaina izan balitz
ziur nago bela
itsasoak beretzat
gordeko zuela.

A. Mendiluze:

Hain hitz poetikoak
ez hasi esaten
zentzua ez baitute
hain garbi izaten;
kostatzen omen zaizu
hori eramaten
kontzientziak ez dizu
baimenik ematen
kontzientzia ona da

baina ez da jaten.

S. Colina: Ikusi dudanetik
ezin naiz lasaitu
ez dakit nola hasi
ta nola jarraitu
Aitor, ez bainuke nahi
kartzelan amaitu
kartzelak berekiko
gauz txar asko baitu...
Kontzientzia ez da jaten
baina jaten zaitu.

A. Mendiluze: Olatuek nahi zuten
hona iristea
nik nahi nuke ametsen
bidea piztea;
bai badakit hau dela
joera tristea
baina kosta egiten zait
hitz hau sinistea
hain zaila al da behingoz
begiak ixtea?

S. Colina: Nahiz ta bi adiskide
geraden juntatu
zure ideia ezin
ontzat apuntatu;
nik Aitor ez nuke nahi
posturak trukatu
zuri pasako zaizu
ezin da ukatu:
hautsetan hasi eta
hautsetan bukatu.

A. Mendiluze: Sustrai ikusi ondoren
zeinen ezkor zauden
neuk itxi beharko ditut
zeuk itxi baino lehen
baina jakin: aukera
bat galtzen da hemen
eta denbora joanda
jakitean zer den
ia ez degun esaten
“Mekauen, mekauen!”.

**BERGARA (2004-02-07).**

*Bertsolariak: M. Lujanbio eta E. Eizagirre.*

Gai-emailea: Ainhoa Agirreazaldegi.

Artatse elkartean ez zegoen mahairik libre. Aurten zazpigarren urtea da bertso afari hau antolatzen dela, eta entzulea oso bertsozale beroa da. Denera hiru saio egin zituzten. Lehenengoa eta azkena librean, eta tartekoak gaiak jarrita. Libreko saioa hobea izan zen; zati bat jaso dugu hemen horren erakusgarri.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

M. Lujanbio:
Kamareroei eskerrak eman
ta hona gai bat hobia :
Estitxuk ta nik gaur hartu degu
Bergararako bidia
ta bergararrei gure esker ona
eta zorion gloria
*pareja de hecho* bezela hau da
gure lehenengo aldia.

E. Eizagirre:
Arrazoi dezu *pareja de hecho*
hau baitegu estrenatzen
baino hainbeste jenden aurrian
barkatu, ni ez naiz sartzen...
behin hasiko ta hor bi kamara
aurrian zaizkizu jartzen
ze ari zera gure esklusiba
medio guztiei saltzen?[3]

M. Lujanbio:
Lehendabiziko aldia degu
hori normala ote'a?
Hainbeste jenden aurrean noski
nerbiosismoz betea.
Ez det aipatzen esklusibarik
aizu, Estitxu, maitea
ez bainuke nahi lehenbizikoa
azkenekoa izatea.

E. Eizagirre:
Zu lehenbiziko aldiarekin
al zera ba asetuko?
Lasaitu zaitez nigatik behintzat
gaur ez degu bukatuko;
lehen aldiak baditu hainbeste
mito ta hainbeste truko...

[3] Hitzetik Hortzera bertso programako kamarak saioa grabatzen ari ziren.

ez da onena izango baina
ez zait sekula ahaztuko.

M. Lujanbio: Aspaldidanik geunden egun hau
iritsiko zan desiran
eta lehenengo aldi hau hara
jendearen ikusmiran;
gu lasai gaude bertsotan baina
ikusleak jira-biran...
nik ez dakit ba gu baino gehio
lotsatzen ez ote diran.

E. Eizagirre: Begiradari atera nahian
hauek hainbeste etekin...
ez ba lotsatu gugatik behintzat
lasai segitu behinepin;
gure arteko jardunak behar du
hemen jo eta su ekin
prekauzio denak hartuta daude
txapela jantzi dunakin.

M. Lujanbio: Lehenago ziran tripa haundiak
orain dira esku finak
lehenago ziran puru gizenak
orain uran ahaleginak...
ederki daude kanbiatuta
bertsoaren imajinak!
Doinuak dira lehengo berberak
baina hitzak desberdinak.

E. Eizagirre: Hitzak ditugu desberdin eta
badituzte hainbat mezu...
aldaketa hain diferente den
dudan jarria naiz, aizu;
puroarena aipatu dezu
ta badira mila kasu...
ez zera eskatzen atrebitzen ta
Maialen eskatu zazu.

M. Lujanbio: Eskatu behar baldin badegu
nik ez daukat gogo faltik:
ia ekarri bada puro bat
nahiz ez dakidan zergatik;
neri ematen didazu baino
zuk zeuk erretzeagatik
edozer gauza eingo zenuke
kontra egiteagatik.

E. Eizagirre: Eskatu nahi zun purua eta
sartua zaio dardarra
nik eskuetan hartu orduko
hortzetan dut irriparra;

metxeroren bat ondoan bada
daukat eskatu beharra...
arrazoi dezu sua piztea
da nik nahi dudan bakarra.

M. Lujanbio: Tira atzera tira atzera
orain bera, orain gora
holako puro puska piztutzen
nahiko zaila izango da;
pasatu gera eboluzio
ia-ia aldrebeskora
hortik porrora pasatu ginan
ta orain porrotik purora.

E. Eizagirre: Zure ustetan keinu hau al da
eboluzioan frakaso?
Ba nere ustez puro txiki bat
bertsotan ez da arazo
eta gainera hau ikustera
gu ohituta gaude oso;
ez al dezute inoiz ikusi
Sara Montiel ta Lizaso?

M. Lujanbio: Puro zahar horrek sortzen duena
nahiko ke ta nahiko laino...
zu bezelako erretzailerik
ez det ikusi gaurdaino!
Nahiz Sara Montiel ta Sebastian
nik ez konparatu joño
helburu berrik sortu nahio det
hoiek imitatu baino.

**HONDARRIBIA (2004-02-13)**

*Bertsolariak: S. Lizaso eta A. Egaña.*

Batzokian izan zen, jangela erabat beterik zela. Librean aritu ziren, eta saio bizia, zenbait unetan distiratsua, egin zuten bi bertsolariek. Lauko handian egin zuten bertsoaldi luzearen zati bat jaso dugu hemen; zati honen aurretik eta ondoren luze jardun zuten neurri berean.

Neurria: lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

A. Egaña: Sebastian jarri zaitez mesedez
harutza begira ia
neska berri bat azaldu da gaur
Paristikan etorria.

S. Lizaso: Neska gazte bat horra Paristik
bere gogoan segidan...
gure garaian umeak ere
handikan etortzen ziran.

A. Egaña: Paristik hona gu ekartzea
ez gendun izango mauka
zu ekarri zinun zigueñak behintzat
moko okerra baitauka.

S. Lizaso: Ia sei kilo eta ni nintzan
zikoinarentzat kaltean;
amak esana: etorri nintzen
baina traktore batean.

A. Egaña: Zikoina ia nekatu egin zen
nere uste apalean
ta azkenean ekarri zuten
transporte espezialean.

S. Lizaso: Arrazoi dezu neuk ere banun
bai gauza horretan sena;
aitak esana izan behar du
transporte espezialena.

A. Egaña: Zuk azkoitiarra izan behar zendun
nik uste dedan moduan
baina zikoinak nekatu eta
Azpeitin utzi zintuan.

S. Lizaso: Nahiago nuen bai azkoitiarra
izan banintza bizitzan
azkoitiar gehienak bezelaxe
gustora biziko nintzan.

A. Egaña: Igual Azkoitin utzi zintuan
zerbitzu bete-betian
ta Azpeitira iritsi zinan
hirugarrengo botian.

S. Lizaso: Erdi bidean eta Loiolan
jatetxe ederrak daude
eta sekula ez naiz etortzen
Loiolan gelditu gabe.

A. Egaña: Baina Loiolan erori balitz
a ze kolpea soinian
nola Sebastian eroriko zen
kupularen gain-gainian!

S. Lizaso: Azpeitiraino iritsi nintzen
ez zan neretzat kaltera
patroia ere San Sebastian da
hortik kontuak atera.

**MUTILOA (2004-02-20)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, A. M. Peñagarikano, I. Murua eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Joxerra Garzia.

Lierniko Mujika jatetxean ostiral mehe egunarekin urtero egiten dute bertso afari hau. Laurogei afaltiar inguru, eta bertsotarako giro aproposa.

*S. Lizaso-A.M. Peñagarikano.*

Gaia: Zergatik ez dakigula, eta are gutxiago zertarako, Sebastianek erabaki du eskopeta erabiltzeko baimena ateratzea. Aurreko probak egin ditu eta ahozkoa falta zaio. Eta, noski, munduan ez da Peña baino ehiztari hoberik, eta berarekin egingo du azterketa.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

A.M. Peñagarikano: Aztertzen pasa nahi det
oraingo denbora
Sebastian ez zaitez
zu orain aztora.
Debekatua dago
bi tirotik gora...
bai al dakizu zer dan
errepetidora? (bis)

S. Lizaso: Repetidora zer dan
nik badakit argi
eta esango dizut
hitz gutxitan garbi:
ehiztarien bidean
dut hainbat ausardi...
tiro bat aski dunak
zertako ditu bi? (bis)

A.M. Peñagarikano: Lehen eman didazu
erantzun itzela
orain ere erantzun
behar den bezela.
Nahiz ta jakin tiroa

bertikala dela
ba al dakizu zer den
*kañoi paralela*? (bis)

S. Lizaso: Eskolan ikasi nun
oraindik gogoan...
galderakin ez zera
urrutira joan
eta esango dizut
nik zer dan behingoan:
bi kainoi ezarriak
elkarren ondoan. (bis)

A.M. Peñagarikano: Ea uxatzen dezun
nik daukadan kezka.
Bata erantzuten ta
bestea galdezka
ondo jarria zaude
hor zalantzik ez da.
orain esan zaidazu
zer dan *superpuesta*? (bis)

S. Lizaso: *Superpuesta* zer den'e
ni nago entzuna
asko zabaldua da
horren oihartzuna;
elkarren gainean hor
jartzen da jarduna...
zuri ondo ikasten
kostatu zaizuna.

A.M. Peñagarikano: Galdezka egiten det
makina bat saio...
erantzungo didazu
trebe eta iaio;
furtibo ibiltzen da
gaur bat baino gehio
garbantzuak ehizean
zeini deitzen zaio? (bis)

S. Lizaso: Jakin-mina dezula
hain dago nabari
ta erantzuna behar
galderantzat sari:
ehiztarietan bada
garbantzu ugari
deitzen zaio tranpatan
ibiltzen danari. (bis)

A.M. Peñagarikano: Oso ehiztari ona
da azpetiarra
guk hemen badaukagu

bai zure beharra!
Zozo bat ikustean
ez da itaun txarra
nola bereizten dira
emea ta arra? (bis)

S. Lizaso:

Orain sexu kontuan
al dago disputa?
Ni harritu egin naiz
hori galdetuta;
zaila da antzematen
hegan beiratuta
ta antzematen zaio
eskuan hartuta. (bis)

A.M. Peñagarikano:

Lege araudiaz ez da
bat'e ahantzia
ta bere erantzunak
badu garrantzia.
Ondo egin baituzu
nahi nuen guzia
aprobatu duzu ta
tori lizentzia. (bis)

S. Lizaso :

Jardun naiz galderari
hemen zuzen eusten
nahiz ta saiatu zeran
zu eskemak hausten
baina ikasle bat ez da
aizu hola uzten;
orain esan zaidazu
nun saltzen dituzten. (bis)

**ASTIGARRAGA (2004-02-29)**

*Bertsolariak: A. Mendiluze, M. Lujanbio, J.M. Irazu eta S. Colina.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

*Sagarrondotik* asteburu osoko jaialdia. Denera berrehun lagun inguru elkartu ziren herriko pilotalekuan. Hasieran jendea atzeko aldean eta bertsolariengandik urrun samar. Agurretan, bertsolariek hala eskatuta, jendea aurrera igaro zen. Ordubete inguruko saioa izan zen, eta hotza izan zen protagonista nagusia.

*J.M. Irazu-A. Mendiluze*

Gaia: Bi hauek bi sagar eder, lerden, gazte, elegante, polit dira. Irazuri askok egiten diote hozka. Aitorri, berriz, bakar batek.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak

J.M. Irazu:
Sagar ederra dudarik gabe
oso azal goxoarekin
barrua ere ondo osatua
gusto aldetik gezamin
nik aukera asko eta zuk gutxi
nunbait gabiltza desberdin
zuri nolatan hurbildu inor
Golden itxura horrekin.

A. Mendiluze:
Eta zuk esan behar al zendun
nik ze itxura daukaten
hobe zenuke zuk nere antza
hartu ezkero noizbaiten
denak saiatzen dira zugana
denak koxkada ematen
askok probatzen zaituzte beraz
ta inork ez zaitu jaten.

J.M. Irazu:
Arrazoi dezu hola liteke
gogorra baita sagarra
baina batzutan etortzen danai
onena eskeini beharra
bakantasuna aizu ez beti
ez da izaten indarra
beti gustora hartze al dezu
barruan daukazu harra?

A. Mendiluze:
Beti gustora ezin da hartu
ez det erabat begiko
baina barruan dabilkit eta
etsi beharko det kito
hala ta guzti mugak jartzea
pentsatu det nerekiko
barruan daukat baina ez diot
osorik jaten utziko.

J.M. Irazu:
Osorik jaten utzi nahi ezik
zeure denbora guztian
baina ez dakit neurri horrekin
balio duen hastian
sagar batean edo lurrean
oso postura tristian
biok bukatu beharko degu

mahatsaka baten azpian.

A. Mendiluze: Hala bukatu behar badegu
gauz onik ezin espero
sagardogile ari direnak
gaizki ari dira gero
mahatsakapera edozer doa
sagar klase denak edo
baina zer kristo irten liteke
gu biak nahastu ezkero.

J.M. Irazu: Zu zaude lasai nahaste kontutan
asmatzen dute galanki
gure bidea egingo dute
sagar poliki-poliki
dudarik gabe kupel barruan
egongo gera ederki
kozka egiten ez dunak ere
trago egiten badaki.

A. Mendiluze: Egia da bai inori ez zaio
abilidaderik falta
baina nahiago koskak aukeran
horrek bere xarma dauka
lehenago gisan jan zaitzatela
beti koskaka-koskaka
ta ni bakarrak jan nazala ta
pixkanaka-pixkanaka.

**BEASAIN (2004-03-18)**

*Bertsolariak: A. Sarasola, A. Egaña, U. Iturriaga eta J. Sorozabal.*

Gai-emailea: Iñaki Apalategi.

Usurbe antzokian izan zen saioa gaueko hamar eta erdietan. Bertsoaren Beasaingo Lagunak-ek eta Arrano Elkarteak antolatu zuten jaialdia. Lehenik ordubeteko bertso saioa izan zen, eta ondoren Neguko bertso-paper leihaketako sariak banatu zituzten. Saioa orduan hasi zen, eta entzule askorik ez zen bertaratu.

*J. Sorozabal-A. Egaña*

Gaia: Zuek biok urtetan zehar elkarrekin lan egin duzue. Orain dela gutxi bertako langile bat jubilatu egin zen. Jokin hartu zuten lanpostu hori betetzeko. Orduz geroztik

Neurria: zortziko handia

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

J. Sorozabal: Hainbat urtetan biok batean
egin izan degu lana
anaien gisan eraman degu
lantokiko harremana
gertakizun bat tarteko dela
aldatu da zure plana
nere aurpegian zerbait ba al dago
lehenago ez zegoana?

A. Egaña: Ezer berririk daukazunikan
ez dezu bada usteko
begiratzea ez dut nik aski
zu parean ikusteko
metro erdi bat bajatu zera
ai Jokin bataz besteko
hain xuxen ere nagusiari
ipurdia miazteko.

**J. Sorozabal: Nagusiari pelota eginez**
hartzen da kategoria
hainbat ezjakin ikusi det nik
tesi hortan eroria
hemen bakoitzak bere modura
ikusten baitu bidia
gora doanak gusto txarra du
ta behekoak inbidia.

A. Egaña: Peloteoan jakitun zinen
ta zurikerian maisu
jubilazio hura tarteko
unea iritsi zaizu
harremanaren penak azaltzen
ez zaitea hasi aizu
nere begien eztenen mina
nominak sendatzen dizu.

J. Sorozabal: Nere nomina sekretua da
gordeta dago ta lasai
beraren berri jakin nahi dezu
baina izango dezu jai
zuk ere izan nahiko zenduke
gaur nere aukeraren gai
beti ezkerra famatzen degu
ta eskubira pasa nahi.

A. Egaña: Zeure buruai dagokionez
hitz egin dezu hain zuzen
kontzientziaren ahots ixila
kanporatu dezu ozen
lankidetzako ondoan zeuzkat
aspaldidanik hala zen

baina ahal dela segi nahi nuke
adiskideak hautatzen.

J. Sorozabal: Beraz hementxe bukatzen degu
guk eztabaida guzia
ni ez nauzula laguntzat hartzen
a ze gauza itsusia
nere aldetik seko moztuta
erabaki det auzia
gaur arte zure laguna nintzen
ta gaur zure nagusia.

A. Egaña: Azkenerako itxurak utzi
ta bihotzak hitz egin du
langile soil naiz ta zu nagusi
ez ninteke maitemindu
biok geurea egingo degu
nik kunplitu, zuk agindu
kontzientzia xomorrotxoa
zerorren kabuz arindu.

*A. Sarasola*

Gaia: Zuk, Alaitz, badaramatzazu urte mordo bat lanean ; Kotxea eta etxea ere badauzkazu. Baina erabat gustura ez eta zure lana utzi eta bizimodua aldatzea erabaki duzu. Zergatik?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Sarri erori izaten gera
txanponaren alderantza
baina denbora oso urrian
bukatu zait esperantza
badut kotxea badut etxea
hori ez da gero txantxa
baina nolabait aldatu nahi dut
aukeratutako martxa
diruarekin ezkondu nintzen
hori da nire akatsa.

Eraztun hori orain kentzea
erabaki det derrigor
sukaldaritzan ezagutzen det
nik neuk makina bat alor
nahiz beharbada egin daitekeen
behar baino gehiago zor
negozio bat antolatuta
prestatu nahi nuke jator
beraz honela zorionari
eskua eskatzera nator.

**IGORRE (2004-03-19)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, M. Lujanbio, A. Egaña,*
*I. Elortza, U. Iturriaga eta S. Colina*

Gai-emailea: Karmelo Uriarte.

San Jose egunaren karietara urtero antolatzen duten bertso jaialdia. Arratsalde erdian izan zen eta frontoia ez zen bete. Saio polita eta bizia atera zen hala ere.

*S. Lizaso-M. Lujanbio-A. Egaña-I. Elortza-U. Iturriaga-S. Colina*

Gaia: Martxoak hamaika. Madrilgo atentatua.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

S. Lizaso:
Astebete bat igaro arren
garrantzirik ez da galdu
sarraski haren oihartzuna zen
lau haizetara zabaldu
eta askoren barrura ere
samintasuna ugaldu;
berrehun laguni begiak itxi
biziei mezua bialdu...
gogorra baina mirariaren
itxura pixkat ez al du?

M. Lujanbio:
Barka martxoan hamaikakoa
juzkatzen badet hotzean;
ez da hori soilik mundu guzia
dago antzeko trantzean:
dena polbora, dena eztanda
dena barruak hutsean
hogeita hamar lagun hiltzen da
teleberri bakoitzean...
“Hil da” aditzak ez digu egiten
ziztadarik bihotzean.

A. Egaña:
Baina negarrez dago arotza
negarrez dago poeta
osteguneko hark urrun dauka
atzera jira ta buelta.
Bertsolaria gaur egun ez da
mitinlari ez profeta
nik kolkorako gorde nahi ditut
iritzi ta azterketa
hitz egin duten gehien-gehienek
hanka sartu dute-eta.

I. Elortza: Berrehun eta bat hildako egonda
bat sentitzen da arraro;
gero Iruñean eta Hernanin
beste bi be bai, akabo!
Odol erreka honen azkena
ze itsasotan ote dago?
Espainiatik libratu gura
guk bagenuen lehenago
orain badoguz beste berrehun ta
hiru arrazoi gehiago.

U. Iturriaga: Denporarekin igual izango
direnak berrehun eta lau.
Danon antzera gertakizunak
neu be larritu egin nau;
larriagoa politikoak
berbatan hastean ri-rau
Iraken eta Afganistanen
ez dabiz heriotzez barau
trajediaren neurria baina
distantziak emoten dau.

S. Colina: Azkenerako guztiak gara
trauma horretan erori
eta ziztada etorri zaio
bati baino gehiagori.
Gizatasunez ez al daukagu
behar aina kategori?
Berrehun lagun hilkutxan eta
beste hainbeste hilzori
eta jendea jakin nahiean
zeinek egin zuen hori.

*U. Iturriaga-I. Elortza*

Gaia: Bi agure zarete. Eguneroko moduan paseatzen ari zarete, eta halako batean, Igorrek berrogeita hamar euroko biletea ikusi du lurrean.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Nere senarrarekin I

I. Elortza: Bilete marroi batek
ni harritu ein nau
berrogeita hamarreko
bat dala eta uau!
Zeinek hartu behar dau
ointxe bilete hau?
Makurtu neike baina
gero ezin altxau. (bis)

U. Iturriaga: Zuk gura dozunean
zagoz oso sano
beti kejaka baina
ondo zauz Mariano;
behingoz heldu garenez
puntu honetaraino
hoba gerria apurtu
hori hor itxi baino! (bis)

I. Elortza: Txikle bat ikusi dot
ez naiz tunantea
ta pentsatu dot plana
aurrera eroatea:
pausuz pausu holantxik
lagun joatea
lehenengo txiklea ta
gero billetea. (bis)

U. Iturriaga: Idea ona izan da
itxi nozu grogi
gitxienean egin
behar dozuz pauso bi.
Ba zuri laguntzeko
be gertu nago ni;
gure pentsioaren
erdia da hori. (bis)

I. Elortza: Sendotu baietz gure
diru jatorriak!
Berrogeita hamar hoiek
ondo etorriak;
gastatzeko planak be
dauzkadaz jarriak:
txikito bana eta
zapata barriak. (bis)

U. Iturriaga: Baina zelan astiro
joakuzen kontuak
beste alde baten antza
be jo dau kukuak
hamabost urtekoak
laster makurtuak;
akabo lagun gure
diru sekretuak! (bis)

I. Elortza: Kulpaik ba ete dogu
gu zaharrak bagara?
Hamabost urteko da
inguru honetara;
hirugarren pausoa
be heldu da hara...

txiklea, billetea
eta ostikada. (bis)

U. Iturriaga: Odoletan hor dagoz
hiru-lau mutiko
ta gure Mariano
amorruan tinko;
hain flexible egoanik
ezin sinetsiko…
gimnasiara joaten
ez zinen ba hasiko? (bis)

*U. Iturriaga-I. Elortza*

Gaia: Lehen aurkitu dituzuen berrogeita hamar euro horiekin hatxisa erosi duzue. Parke batean zaudete hori erretzen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantatzera nijoa

I. Elortza: Berrogeita hamar euro eukita
probatu ein behar zala
baina nik pultso eskasa daukat
besoa erdi makala.
Konturatu naz papel zikin hau
bastante eskasa dala;
deitu lehengoko mutikoari
ta berak egin daiala!

U. Iturriaga: Guk zetarako egingo dogu
mutikoengana buelta?
Zu lasai egon bi minutuan
atonduko deutzut peta
esku ahurrean harria jarri
ta txiskeroaz erreta
zu lasai egon nik soldaduska
Tangerren egin naben-ta!

**I. Elortza: Hartu harria ta metxeroa**
eta emon dautzozu su;
albokaldetik begiratuta
bastante urduri nozu
ta soldadutza Tangerren egin
zendula orain dinozu;
orain artean zahar etxean
ondo gordeta euki dozu!

U. Iturriaga: Itxi kontuok ta hasi zaitez
kaladatxo bat emoten!
Zelan lehenengo upada neri

barruraino sartu jaten
sarri entzun dot nik telebistan
esaldi hauxe esaten
eta Mariano orain badakit
lainoek ze usain dauken.

I. Elortza: Laino usai hau neuretzako be
bihurtu da marabila
baina alboan ikusten zaitut
porro liatzen abila;
belarritako haundiak dozuz
masailetan bi patila...
*Laboralera* joan behar zeunke
gazte txartelaren bila!

U. Iturriaga: Ze gazte txartel ta ze Laboral!
Ete zagoz itsututa?
Nik gitxienez hasita deukot
barruko barne-burruka
eta hasi naz gauzak ikusten
arraroak, *ai la puta*!
Bentanatik begira deukogu
zure Mariana difunta.

I. Elortza: Mariana hor ikusi dot ta
ipini naz guapo-guapo
ekarri beste kaladatxo bat
edo osorik neuretzako;
gainera inbentu hau oso ona
dogu osasunerako
bape problemaik ez dekot oin ta
makurtu ta altxetako.

U. Iturriaga: Salto ta dantza hasi gara gu
ta urten deusku barrutik
igorretarrak begira doguz
bakotxa bere lekutik;
bi agureok ikusi eta
ez dabe ulertzen tutik
lehen be zorotzat euki jakue
hartu deixela zakutik!

**ZESTOA (2004-03-27)**

*Bertsolariak: J. Martin, M. Lujanbio, J. Maia,*
*O. Alberdi, U. Iturriaga eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Iñigo Manzisidor "Mantxi".

Erralla Bertso Eskolak antolatutako saioa. Pilotalekuan, gaueko hamar eta erdietan. Berrehun entzuletik gora eta giro ona. Saioa ez zen puntakoa izan, baina bertsoaldi batzuk nahikoa txukunak atera ziren.

*J. Martin-A. Egaña*

Gaia: Andoni bertsolari handia da. Jon Martin azken gipuzkoako txapelketan bigarren geratutakoa. Jakinmina sortu zaio Joni eta txapeldunari galdezka hasi da.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Joan den urteko Santa Kruzetan

J. Martin: Ahoa pixkat ireki eta
belaxe hasten zait ketan
graduak nahiko beherantza doaz
pilotalekuan bertan...
gorputzik ere ezin berotu
hotzak baikaude benetan;
burua nola bero dezaket
Andoni holakoetan?

A. Egaña: Nik erantzun bat emango dizut
nahiz ez naizen izan maisu:
gerta liteke hanka puntak hotz
eta burua jo ta su...
plazaz plazako bertsolaria
izan nahian zabiltz, aizu
hori gogoan izanez gero
bera berotuko zaizu.

J. Martin: Egia da bai bero ninteke
bilakatu arte labe
ta gauza batek erretzen nau ni
mikrohondasaren pare:
lehen saiotan kantatzen nuen
bat'e presiorik gabe
ta orain berriz nei etiketa
bat eman nahiean daude.

A. Egaña: Gazte garaiko bertsota hura
omen zitzaizun atsegin
orain ospetsu bihurtu eta
ez dezu gozatzen berdin;

zeure burua konformatzeko
egizu beti ahalegin
eta jendeak dioenari
kasu gehiegi ez egin.

J. Martin: Bada ez dakit askon esanak
ez ote zaizkidan laket
eta badakit antzeko zerbait
sentitu duzue zuek;
lehen asko ere gozatzen nuen
ta saio gutxirako prest
orain hainbeste saio eukita
nola gozatu dezaket?

A. Egaña: Garai batean saiotik urri
ta orain igo nibela;
garai batean gauzak batera
eta gaur egun bestela..
Aizazu, Martin, sinistu zazu
gozatu zenezakela
saio bakoitza hartu ezkero
bakarra balitz bezela.

**TOLOSA (2004-03-27)**

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, A. Mendiluze,*
*J.M. Irazu, J. Sorozabal, A. Agirre eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Berrobiko Seskea-Berri baserria erre egin zela-eta dirua biltzeko antolatutako jaialdia. Beotibar pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Hirurehun entzule inguru.

*A.M. Peñagarikano-A. Mendiluze- J.M. Irazu*
*J. Sorozabal-A. Agirre-S. Lizaso*

Gaia: Andolin Eguzkitza hil berri zaigu.

**Neurria: zortziko handia**
Doinua: *Santa Barbara zure bizitza II*

A.M. Peñagarikano: Bere bizitzan ezagutu du
makina bat gorabehera
ta hizkuntzaren alde zebilen
beste askoren antzera.
Gure artetik urrundu zaigu
zertan goibeldu? Bai zera!

Nahiz ta Andolin urrundu zaigun
bizi da ama euskera
hortan saiatuko gera.

A. Mendiluze: Nahi ez degula gizon haundi bat
badoa mundu hontatik;
nik ere pena hartu det eta
esan nezake zergatik:
egindakoa izan delako
ote den ziur ez dakit
baizikan egin ahal izan eta
egin ez duenagatik. (bis)

J.M. Irazu: Ustekabean zabaldu zaio
heriotzaren atea;
zazpi hizkuntza omen zekizkin
hori da jakitatea!
Euskaldunberri santurtziarra
gure Andolin maitea
doble lastima lastima izanda
zahartu gabe joatea! (bis)

J. Sorozabal: Hura omen zan euskaldun fina
ta hura intelektuala;
hoi jakiteko nik ez det oso
jakinduria zabala.
Gauza batekin gelditzen naiz ni
ohitura dedan bezala
intelektuala izateaz gain
langile haundi bat zala. (bis)

A. Agirre: Bihotzekoak jota joan zen
beraren aita kuttuna
Andolini ere bide lagun motz
gertau zaio osasuna.
Nahiz eta eten bere ahotsa
eta euskaltzain jarduna
gure eskutan geratu zaigu
idatzita utzi zuna. (bis)

S. Lizaso: Euskalgintza ta euskalzaleak
gehienak malko jario
buru ta bihotz euskaran alde
saiatu baitzen propio.
Bihotzekoak kolpetik eman
eta presaka adio...
besterentzako ona zuenak
beretzat huts egin dio. (bis)

## LESAKA (2004-03-28)

Nafarroako Txapelketaren finala

Txapeldunaren agurra

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

*X. Silveira*

Zatoz bai zatoz, zatoz nerekin
joan zinen ia duela zenbat
abistu gabe zergatik joan
zinen zu neregandik at
baina bueno ia hemen zaudela
egin nahi nuke gauza bat
zorrak zor izan ohi dira eta
hau zuretzako da Beñat
zuretzat eta bizitza gudan
eman duten guztientzat. (bis)

## ZEGAMA (2004-04-03)

*Bertsolariak: J. Sorozabal, S. Lizaso, A. Egaña,*
*E. Goikoetxea, M. Lujanbio eta I. Zubeldia.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Kasino Elkarteak Zegamako Udalaren eta Kultur Etxearen laguntzarekin urtero antolatzen duen jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

*I. Zubeldia-E. Goikoetxea*

Gaia: Anaiak zarete. Etxeko seme formala da Ekaitz. Ikasle ona, zintzoa, esanekoa. Iker, berriz, golfoa. Etxean beti noiz iritsiko den zain egoten dira. Baina gaur, etxera bidean, Ekaitz ikusi duzu sekulako mozkorrarekin ate ondoan.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

I. Zubeldia:

Ez nuan uste gaur bilatzerik
horrelako pelikula:
anai formala moxkortu zaigu
ez nun espero sekula.

Ta aizu, Ekaitz, egin nahi dizut
nagoen tokitik burla;
azken finean antzematen da
odol berdina degula. (bis)

E. Goikoetxea: Nik formal-formal pasatu ditut
bizitzan hainbeste urte
baina gaur trago bat egina det
hiru-lau balantzen truke;
etxe barrura sartzeko orduan
nahiko lan badegu guk'e...
seko mozkortu naiz o bestela
zerraila aldatu dute. (bis)

I. Zubeldia: Ate ondoan a ze nolako
buila eta iskanbila!
Oso zuzena ematen zun da
moxkortu zaigu mutila;
alfonbran ondon ez dit ba egin
egundoko *txahal* pila!
Egon zaiz lasai, egin zazu lo
banoa fregonan bila. (bis)

E. Goikoetxea: Beasainen'e egon badenez
hainbeste taberna mota
gaurko honetan abitu gera
jarri arte zopa-zopa.
Odola dela eta ez dela
anai arteko borroka...
mozkortu're nik ein beharko dit
hi ez haiz formalduko-ta. (bis)

I. Zubeldia: Kubata edaten ibili zera
lagun ekin eta ekin
ta holakotan moskortu ohi da
zuk hori ez al zenekin?
Goazen ohera altxatu zaitez
beharko degu aldegin
bestela aita etorriko da
urritz makilan batekin. (bis)

E. Goikoetxea: Bat aingeruen pareko eta
besteak zenbat pekatu...
orain arteko gure bizitzan
ezberdin degu jokatu;
eraman degun papera ere
beharko degu aldatu:
gaurtik aurrera ni irtengo naiz
ta zu etxean geratu. (bis)

*E. Goikoetxea*

Gaia: Madrileko atentatua gertatu eta berehala irudi gogorrak ikusi genituen telebistaz. Orain gutxi Iraken bost amerikar hil dituzte eta euren gorpuekin jolasean aritu dira. Zer deritzozu horri? Telebistaz horrelako irudiak ikusi behar al ditugu?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Munduan barna bidaiatzen det
telebista bitarteko.
Zoritxarrera ohituko geran
duda det dagoeneko.
Madril aldean negarrez dira
ta Iraken ez hobeto;
hildakoak'e hogeita hamar bat
segundun bataz besteko...
Mundu honek ertz gehiegi ditu
borobila izateko.

Zoritxarrera lerratzen dira
ia katerik gehienak.
"Ez da posible, ez da posible"
hori esaten dit senak.
Bihotzeraino iristen zaizkit
ume tristetuen penak.
Asmo onikan ba al zeraman
Atotxan lehertu zen trenak?
Bere burua gutxi maite du
hori egiten duenak.

Eguerdi hartan sentitu nintzen
ondoezik ta arraro
isiltasunaz joan nahi nuen
pantaila hutsaz harago.
Borondatean Madril aldeko
sendi guztiekin nago
bizitzak bizi aro guztiak
behar baititu igaro.
Trenbideetan heriorentzat
geltokirik ez al dago?

*A. Egaña-S. Lizaso*

Gaia: Hirurogeita hamar urte dituzue. Zegamako plazan bertsotan ari zarete. Bertsotan ari zinetela seko geratu zarete. Hilerri berean lurperatu zaituzte zuen emazteek zuen bizimodua ikusi eta gero. Bertsotan hasi dira zuen hezurrak.

Neurria: lauko motza
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

S. Lizaso: Aizu, Andoni, ipurdi igarra
alde aldamenetikan!
Nik ez nekien hil ta gero ere
minikan hartzen zenikan.

A. Egaña: Baina Sebastian aparta pixkat
egin zaidazu mesede
hemen tokirik ez baitaukagu
hankak luzatzeko ere.

S. Lizaso: Zer arraiotan ote gaude gu
kaja berean sartuta?
Hankarik luzatu ezin bada
euki itzazu kizkurtuta.

A. Egaña: Hau da toki bat goxo-goxoa
ez hotza ta ez beroa
baina argirik ez dago bat'e
piztu zazu metxeroa.

S. Lizaso: Barkatu baina gauza horrekin
ibili behar degu larri
nik puru batzuk ekarri ditut
surikan ez det ekarri.

A. Egaña: Baina lasaitu alde hortatikan
ta alaitu zazu kopeta
eman purua gaur txiskeroa
nik ipiniko det eta.

S. Lizaso: Nik daukatena zuri ematea
hil ta gero ere pena...
erretzailea izango ahal da
hurrena etortzen dena!

A. Egaña: Nik ez det bat'e pururik eta
eman bat kauen la puta!
Zuk horrenbeste erre ezkero
kalte egingo dizu-ta.

S. Lizaso: Neri utzi ta bi emazteei
beiratzea egin mesede:
faltso parea biak negarrez
batere sentitu gabe.

A. Egaña: Nere andrea erdi sorgina
zurea erdi pirata...
barka zaiegun gajoak orain
bizitzen hasi dira-ta.

S. Lizaso: Hil ta gero're egin nahi diot

emazteari nik burla :
haserrauko da jakiten badu
seguroik ez daukagula.

A. Egaña: Asko jan, asko edan ta erre
biok hil ginan eztulka...
nik atera det nere iritzia:
San Bartolomeren kulpa[4].

S. Lizaso: Zer arraiotan San Bartolomei
jarri holako ardura?
Begiratuta nik hartzen dizut
San Inazion itxura.

A. Egaña: Beti holaxe egotea ere
ez al da gure kaltera?
Benga, Sebastian, mugi gaitezen
bueltatxo bat ematera.

**BERGARA (2004-04-03)**

*Bertsolariak: S. Colina, M. Mendizabal, A. Mendiluze*
*A. Arzallus, J.L. Gorrotxategi eta A.M. Peñagarikano*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

Erramu Zapatuan ohikoa den bertso jaialdia. Bergarako udalak antolatzen du. Gaueko hamar eta erditan izan zen pilotalekuan.

*J.L. Gorrotxategi-M. Mendizabal-A.M. Peñagarikano*

Gaia: Bertsolaritzan urte asko daramatzue eta bide horretan une gozoak eta gaziak igaroko zenituzten. Konta itzazue mementorik gozoenak.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Gaixo nengoen joan dan aspaldi

M. Mendizabal: Bertso munduan jasoa degu
gu hiruk eskarmentua:
badakiu zer dan gaia jartzea
badakiu zer den puntua
ta momenturik gozona zein den
hauxe da nere kantua:

[4] San Bartolome da Zegamako zaindaria.

zuen txaloak jasotako ta
kobratzen dan momentua.

A.M. Peñagarikano:

Uztailaren hamabosta zen
ez zen momentu iluna
hoita sei urte izango dira
oroimenak ze lurruna...
Irazustaren omenaldia
Agirre nuen laguna
lehenengo aldiz Basarrirekin
kantatu nuen eguna.

J.L. Gorrotxategi:

Bertsolaritzan bide luzean
bere bidegurutzean
burutapenak sortutzen dira
aurrean eta atzean;
ai zer nolako poza hartzen dan
nunbait deia hartzean
herri hartako bertsozaleak
gurekin gogoratzean!

M. Mendizabal:

Polita degu bertso on batek
sortu ohi duen dizdira
polita degu saio ondoren
sortu ohi dan ikusmira
kale erdian “Kaixo” eginik
hainbeste jende begira...
lagun jatorrak gutxi izan arren
ezagunak asko dira.

A.M. Peñagarikano:

Hamabi edo hamahiru urte
neuzkan nere iritzian
Manuel zaharra bertso kantatzen
ni sortu nintzan etxian;
haren bertsoak batzun burutan
eta nere bihotzian...
nik egun hura ez det ahaztuko
nere bizitza guzian.

J.L. Gorrotxategi:

Beste une bat kokatu nahi det
bertsoan ondorenean
urteetako bide luzean
hartu eta emanean
esaten zail dan alaitasun bat
sentitzen da barrenean
gaur bezelaxe frontoi haundia
tope betetzen danean.

M. Mendizabal:

Gogoan daukat gazte nintzela
idoloak baneuzkala
haien saioa nun izaten zen
joaten nintzen berehala

eta geroztik ibili gera
haik jardun ziren bezala;
politena da beste batzuen
idolo izan gerala.

A.M. Peñagarikano: Ikastola bat Donostin bada
bera Axular deritzana
oain zazpi urte gogoan daukat
bertsotan izan nintzana;
Andoni nuen bertso laguna
ta egin genuen dana...
nik egun hartan ezautu nuen
gaur nere emazte dana.

J.L. Gorrotxategi: Larrosa bila juaten danak
arantzak aurkitzen ditu
neri're inoiz gertatu zait ta
ez zaiteztela harritu;
bertsolaritzan alde tristea
inork nahi badu aditu:
txapelaren ametsetan joan ta
gero azkena gelditu.

M. Mendizabal: Bertsoei esker gerta daitezke
hemen aldaketa pranko:
Peña pozik da bere emaztea
behin topatu zualako;
beste askontzat zenbat arazo
famosoak geralako...
bizimodua alda dezake
oneko ta txarrerako.

A.M. Peñagarikano: Baina bertsotan une mikatzak
ere izan dira pranko:
abendua zen eta finala
ta ez nintzan jardun bapo;
etxera joanda isuri nuen
makina bat negar malko...
ordun esan nun ni txapelketan
berriz ez naiz aterako.

J.L. Gorrotxategi: Peñak albotik esan duenak
nere bihotzai erasan
esaldi hori gorde nahi nuke
oroitzapenen arasan;
bertsotara joan andrea topa
ez al du horrela esan?
Bertsolaria izan ez balitz
mutilzahar geldituko zan.

**LEZAMA (2004-04-04)**

*Bertsolariak: I. Elortza, J. Lopategi, E. Lekue,*
*A.M. Peñagarikano, X, Amuriza eta J. Azpillaga.*

Gai-emailea: Pedro Mari Goikoetxea.

Mikel Zarate idazle eta euskaltzale lezamarra hil zeneko 25. urtemugan, Zorrizketan Euskera Alkarteak hainbat ekitaldi antolatu zituen, horien artean bertso jaialdi hau. Lezamako pilotalekuan izan zen, bazkalostean, bostehundik gora bazkaltiar bertan zirela. Horrelako pilotalekuetan ohikoa denez, soinu kaxkarra, eta zenbait unetan jendearen berbaroa handi samarra..

*X. Amuriza-J. Azpillaga*

Gaia: Amuriza kukua eta Azpillaga txantxangorria. Badakizue zer gertatzen den.

Neurria: berezia
Doinua: Uso xuria errazu I

X. Amuriza: Nik arrautza bat jartzia
zuretzako kurutzia (bis)
umeak hazi zuk ondo eta
nik kantuan pasatzia...
Euskal Herriak behar dauena
ez al da alegrantzia? (bis)

J. Azpillaga: Kantatzeko dauka plana
horixen da bere lana; (bis)
neure habixan arrautza utzi
nahiz ta bera izan ama...
ederto asko ikusten dogu
alper haundi bat zerana. (bis)

X. Amuriza: Baserrian zein kalian
beti kukuan galdian. (bis)
Neure ume bat hazi'xu orain
jarririk aldamenian
zure umeak haziko dozuz
hurrengo umealdian. (bis)

J. Azpillaga: Harrokeriagaz zora
hortan darama denpora. (bis)
Nere habian arrautz haundi bat
ni ezin joan inora;
aizu, kukua, aldegin eizu
gure lurretik kanpora! (bis)

X. Amuriza: Amenazua in dau hala
"Joan hemendik berehala!". (bis)

Ai, txantxangorri, ez esan hori
hain da arrazoi makala
ni barik zelan jakingo'zue
udabarria heldu dala? (bis)

*J. Lopategi*

Gaia: Lezama Mikel Zarate kantari ona.

Neurria: Lauko handia
Doinua: Aita-semeak tabernan daude[5]

Mikel Zarate kantari ona
maite eban bertsolaritza
hiru-lau kopla joko zituen
gaur hemen egon balitza.

Mikel Zaratek merezi ditu
bere ohore ta fama
hain buru argi bat sortzearren
eskerrik asko Lezama.

**ZUMAIA (2004-04-16)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, J. Martin, J. Maia,*
*U. Iturriaga, J. Agirre eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

San Telmotan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, Aita Mari aretoa entzulez beterik zela.

*U. Iturriaga-J. Martin*

Gaia: Jon bere neska-lagunarekin joan da hondartzara, eta belarrira goxo-goxo hasi zaio hizketan. Baina esaldi bakoitzaren ondoren "Buleria, buleria" entzuten du. Azkenean, kontzentrazioa galdu, musika entzuten den lekura joan eta hor ikusi du kotxean Unai bere neska-lagunarekin sexu jolasean. Jonek musika itzaltzeko eskatu dio.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

---

[5] Kantatzeaz gainera, txirula jo zuen Lopategik bertsoaldi honetan.

J. Martin: Musika tope dauka
ze-nolako kaña!
Azkenerako martxa
badu alajaina!
David Bisbalen antzik
ez dauka ez baina
gerria mugitzen du
ia berak aina. (bis)

U. Iturriaga: Lurrunduta geneukan
jadanik autoa
ta non hurreratzen dan
maitale tontoa.
Pare bat minututan
itxoin mutikoa
oraindik ez dut egin
igelan saltoa. (bis)

J. Martin: Zenbat gustatzen zaidan
bere buleria!
Baina izorratzea
ze alukeria!
Igelaren saltoa
esan du egia.
Horregatik daukazu
zapo aurpegia. (bis)

U. Iturriaga: Egia da badauzkat
bi begi beltz haundi
ta txortan egiteko
ez nago urduri;
zu berriz hor dardarka
emanda muxu bi...
eman zazu pakea
Benito Lertxundi! (bis)

J. Martin: Txortan egin nahi nuen
romantiko plantan
ilargia bakarrik
neukala zelatan;
nik berriz kristalean
hor jo dizut “kankan!”
ni ere ez naiz txarra
ilargian faltan. (bis)

U. Iturriaga: Zuk intimitatea
duzu hain gozoa
belarrira hizketan
ai zara zozoa!
Bakarrik zaudela zu
gauza kuriosoa...
goitik begira duzu

kuadrila osoa. (bis)

J. Martin: Oraintxe ipini naiz
ia irakiten...
David Bisbalzaleek
ez dakit dakiten
kanta ona nahi bada
ahotikan irten
kuadrila jarri behar da
koroak egiten. (bis)

U. Iturriaga: Zuk benetan daukazu
kriston aberia
neri lata eman eta
neska ahaztu ia;
antza gustatu zaizu
nire buleria...
hark errezatu ditu
bi abemaria. (bis)

**ZARAUTZ (2004-04-23)**

*Bertsolariak: J. Agirre eta J. Sorozabal.*

Gai-emailea: Iñigo Manzisidor *Mantxi*.

Txiki-Polit jatetxean urtero egiten duten bertso afarian berrogeita hamarren bat afaltiar elkartu ziren. Lehenengo zatia librean egin zuten eta bigarrena gaiak emanda. Librean egindako saioaren zati bat jaso dugu hemen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak

J. Agirre: Nik dadukatan oker haundina
oso aspaldi sortua
horrez gainera beste gauza bat
neke gehiegi hartua.
Gaztetxo honek beti badauka
aitona nun tentatua...
honek ederki azaldutzen du
motor zaharran pekatua. (bis)

J. Sorozabal: Zure urtetan zure sasoia
besterik ez det espero
baina apenas bazter guztiak
daduzkanik horren bero;

masajistan bat egon behar du hor
jarri duna ia ero...
hezur guztiak ez dauzka nunbait
mingaina bezain lijero. (bis)

J. Agirre: Masajista horrek ezin lezake
nere ajerikan kendu
nahiago nuen orain gauz hori
zuk aitatu ez bazendu!
Neri hezurrak gogortu zaizkit
eta mamiak bigundu...
planta pixka bat badaukat baina
ia nereak egin du! (bis)

J. Sorozabal: Gauzak dotore esaten beti
izan da horrelakua
gaur'e ederki esplikatzen du
berari pasatakua
baina ez dakit sinistekua
degun kontatutakua...
bost xentimoko pupua eta
mila peztako trapua! (bis)

J. Agirre: Sinistu zazu nere hezurrak
arkitzen dirala minez
erremeiuak ba omen daude
baina nun dauden jakin ez.
Aspaldi hontan oso larri naiz
aitortutzen dizut zinez
lehenago gorde ezin nuena
orain bilatu ezinez. (bis)

J. Sorozabal: Lehenago gorde ezinik nunbait
ibiltzen zuen propio
bere garaian estimatua
izango zuna serio;
orain bilatu ezinik dabil
berak behintzat hala dio
ispilutikan ikus lezake
baina lotsa ematen dio. (bis)

J. Agirre: Beraz ispilutik posible dala
oraindikan ikustia.
Hala ta guztiz ez dezu esan
esan behar dan guztia;
hobetoago esango dizut
zu nere lagun gaztia:
ispilu bat behar aurretik eta
atzetik berriz bestia. (bis)

J. Sorozabal: Masajista horri egin zaiozu
maiz samarretan bisita

eta ederki jarriko zaitu
minak aparte utzita
baina guk ere betiko legez
errosario polita
gu haragira pasatu gera
hezurretatik hasita.

**GASTEIZ (2004-04-26)**

Arabako Bertsolari Txapelketaren finala

Txapeldunaren agurra

*As. Otamendi*

Neurria: bederatzi puntukoa
Doinua: *Gaztalondo handian*

Hainbat entrenamendu
ta hainbeste jardun
azkenikan txapela
buruan txukun;
nire bertso-lagunak
badira errudun
jarabea ere bai
onartu dezagun:
egon naiz sei egun
birus batzuk lagun
gozo eta leun
nola zaindu nauzun
hau ere zuretzako
duzu Izaskun. (bis)

**BERGARA (2004-05-01)**

*Bertsolariak: X. Amuriza eta A.M. Peñagarikano*

San Prudentzio auzoko Alkartasuna elkartean, Maiatzaren Batean, langileen egunean, urtero egiten den bertso-bazkaria. Jubilatuak elkartzen dira txoko honetan. Hasieran, soinu-joleekin koplatan aritu ziren luze-zabal. Urteak dira bi bertsolari hauek eramaten dituztela.

*X. Amuriza-A.M. Peñagarikano*

Neurria: zortziko handia
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

A.M. Peñagarikano: Garai bateko bizimodua
izanagatik lasaia
ez zan izango gaurkoa bezin
eroso eta alaia
ta egunero otordua zan
taloa eta urdaia...
Edan gogotik eta jan lasai
iritsi da-ta garaia! (bis)

X. Amuriza: Aizazu, Peña, hola ez ginan
hola ibiltzen egunero
ta egia esan iritsi behar
zanik ez gendun espero;
dana bentaja jo duzu orain
kontuz ibili hortan edo
orain garaia iritsi zaigu
sasoia joan eta gero. (bis)

A.M. Peñagarikano: Urdaia eta taloarekin
lehen horrenbeste urte
eta geroztik izan da hemen
hainbat ekaitz ta elurte...
ta orain berriz oso eroso
oso ondo eta fuerte
zuetatik inor ez baita hilko
larogei ta bost urte arte. (bis)

X. Amuriza: Nahiago nuke urte horiek
ehunera helduko balira
kejak esaten hasiak ginan
baina hortan erretira;
jubilatuei ez dago izan
beharrik hainbeste kupida...
Benidorrera joan ta igual
berriz maitemintzen dira. (bis)

A.M. Peñagarikano: Bazkaldu eta kontu esanez
hemen zaudete aspaldi
baina ez pentsa bere bizitzan
egon direnik hain geldi;
ta Benidorren egite omen da
horrenbeste jolasaldi...
San Prudentzion bizi daiteke
Benidorren bezin ongi. (bis)

X. Amuriza: Benidor edo San Prudentzio
kolpera aukeratu gabe
batean eta bestean ere
toki egokiak daude.
Lazkao Txikik esan zuenaz
orain egingo naiz jabe:

nahi diran jolas guztiak daude
gainera peligro gabe. (bis)

A.M. Peñagarikano:

Horrelako bat probatutzeko
probatu behar da gutxinez
Benidorrera omen doaz batzuk
lehenago esan duenez;
eguraldiak beroak dira
sinestu zazue zinez
eta sarritan hau gertatzen da:
berotu ta ezer egin ez. (bis)

X. Amuriza:

Arlo horretan ere badago
hainbat baratz eta ortu
bere sasoian iritsi ezik
larrosak ere lehortu...
Aizazu, Peña, gauza guztiak
sasoiak ez ditu lortu;
guri gertatu ohi zitzaiguna:
ezer ein ez ta berotu. (bis)

A.M. Peñagarikano:

Jubilatuek daukaten gaitza
kolpez ez daiteke senda
ta ajentzitan bete-beteak
ez dakit zenbat agenda...
han Levantera joan direnak
haundia omen da zerrenda
zerbait altxatu nahi dute eta
tentsioa altxatzen da ! (bis)

**LEIOA (2004-05-05)**

*Bertsolariak: A.Egaña, A. Agirreazaldegi,*
*J.M.Irazu, I. Elortza, U. Iturriaga eta A. Arzallus*

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Unibertsitateak antolatutako saioa. Leioako campus-eko areto nagusian izan zen, eguerdian. Ehun eta berrogeita hamar entzule elkartu ziren saioa entzutera, baina aretoa hain zen handia oso jende gutxi zegoela baitzirudien.

*A. Arzallus- A.Egaña-A. Agirreazaldegi-*
*J.M.Irazu-I. Elortza-U. Iturriaga*

Gaia: Zirika aldizkaria denok ezagutzen dugu. Amets bertan dabil. Sexologiari buruzko ataleko arduraduna da Amets. Atzekoek galdera bana egingo dizute.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

**J.M. Irazu:** **Sexologoangana**
erantzuna bego
ez pentsa nagoenik
urduri eta ero;
galderan erantzuna
nahi nuke espero
xirikari bi “r”
ipini ezkero? (bis)

A. Arzallus: Hori eginda xirrika
irtetzen omen da
nik hola jardutea
nahi dizut gomenda;
probatu nahi baduzu
hasi zaite benga
baina ez da irakurtzen
egin egiten da. (bis)

A. Agirreazaldegi: Nahiz saiakeran joan
hainbeste ahalegin
ez diot ateratzen
nahi aina etekin;
nik hitz egiten badut
mutilen batekin
sexu orala al dan
hori nahi det jakin. (bis)

A. Arzallus: Sexu oralak badu
hamaika oihartzun
eta galderaren bat
ekarri behar zun;
bai, bai, izan liteke
nahi badezu entzun
hori da segun nola
hitz egiten dezun. (bis)

A. Egaña: Gaztetan izan nuen
arazo grabea:
zakilaren ondoan
grano bat gordea
batzutan horixka zen
bestetan berdea;
orain desagertu zait
zakila ordea.

A. Arzallus: Nahiz ta begia daukan
ondo borobila
bista dauka murritza

hau ez da abila.
Ez dezu ondo bereizten
aditu mutila
zuk zein dezun granoa
eta zein zakila. (bis)

U. Iturriaga:

Ni onanista nauzu
zalea dexente
normalki eskuinarekin
jotzen diot fuerte
baina ezkerrerantz doa
jartzen bada tente;
hori orekatzeko
modurik ba ote? (bis)

A. Arzallus:

Hasterako eman dit
majina bat datu
onanista edo hori
hortxe dit aipatu....
Ez det ondo ulertu
mutila barkatu
karrera ez dedalako
erabat bukatu. (bis)

I. Elortza:

Bikotean gogorik
ez dut bizitzeko
doble banintz bezela
beti ibiltzeko;
askoz gogo gehiago
nuke erditzeko
nola egin dezaket
haurdun gelditzeko? (bis)

A. Arzallus:

Egin liteke hala
ta egin horrela
baina jarriko dizut
aukera bestela:
jakin gora ta behera
hori dabilela
ta zuk estutu zazu
mikroa bezela. (bis)

**ABADIÑO (2004-05-09)**

*Bertsolariak: Mañukorta, M. Lujanbio,*
*J.M. Irazu eta I. Elortza.*

Gai-emailea: Xabier Amuriza.

Matiena auzoan urteko antolatzen den jaialdia. Leku txikia da, baina oso giro beroa egoten den saio horietako bat izaten da. Ehun lagun inguru elkartu ziren. Bertsolarien saioaren aurretik bertso-eskolako gaztetxoek bertso bana kantatu zuten.

*J.M. Irazu*

Gaia: Irudika dezagun garai bateko eskola: horma erdian gurutzea, ezkerrean Francoren eta Primo de Riveraren irudia, eta mahai gainean makila.

Neurria: berezia
Doinua: Baserrian jaio nintzan / Habanera

Oroitzapenan leihoa
maisu zaharrak ireki
barrura begiratu nahi
nuke poliki-poliki;
ona ta txarra bereizten
oroimenak ai, baleki!
batzuetan nahasten ditu
gauz nahasia izaki
Franco, Primo de Rivera
ta Jesukristo aterki
gogoan daukat aurrean
izaten nitula beti
ikastolan belauniko
ez nintzan egon ederki...
denbora pasa da baino
oraindik ez gera jeiki.

Ez ziran ordu ederrak
motzak balira sikira!
Diktaduran ondorenak
eskolan erdi-erdira
relijio española
gero latigoa tira
behatz muturrak urratu
urratu kopetan jira...
Nolako oroitzapena
ai ahaztu izan balira!
Orduan ez zan mobilik
baina erlojua di-da
Franco, Primo de Rivera

joanak dira lur azpira
ta ni poztuko nitzake
berriz pizten ez badira.

Ezin belakoan ahaztu
urte ilunen itzala
burua aldatu nahian
gogotikan zebiltzala
kultura eta hizkuntza
bereiztu nahian ezpala
nunbait barrutikan eman
gure erantzun zitala.
Zerbait aldatu al da gauza?
Galdetu nahi nuke hala
ordun klasean erderaz
agintzen zuten bezala
baina kanpoan euskeraz
hori zelako normala
ta orain konturatzen naiz
orain alderantziz dala.

## *Mañukorta*

Hasierako puntua emanda

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Neskazahar bat tentatzen

X. Amuriza: Sofia Loren-egaz
ibili ei zara

Mañukorta: batian joan nitzan
harera ehizara
eta hurbildu nitzan
beraren geizara
berriz ez naiz joango
Jainkoak anpara.

X. Amuriza: Jakinean al zagoz
nor dan Letizia?

Mañukorta: Hori ez dakit eta
egin dit grazia.
Bizar zuri honek du
hainbat malizia
apaiz zegon denboran
dauka ikasia.

*Mañukorta*

Gaia: Artzain zinela bota zenituen halako maldizioak... Gaur egun, hiru motibo maldizioak botatzeko?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Erreguetan ari nintzela

Bi urte luzez Ferrol aldian
marinan nitun pasiak.
Bokadilo bat han egunian
aita ta amari graziak
egunak eta gabak itsusi
gogorrak eta luziak...
larre motxekua izan ez banintz
han hilko nindun gosiak.

Amurizak be desafioaz
hementxe jarri nau gorri
ta Mañukortak oso ondo daki
Ameriketako barri.
Desafioa nik bota nion
goiko Jaingoiko jaun horri
baina indartsu nengon orduan
nigana ez zan etorri.

Hamaika holako eginak ditut
ez ziran nere kaltian
larra motx baten hazita nago
Jainkomendiko partian
eta gaur festarik festa nabil
eundoko borondatian...
era honetan jarraitu nahi det
arnasa dedan artian.

**URNIETA (2004-05-15)**

*Bertsolariak: P. Etxeberria eta J.M. Irazu.*

San Isidro eguna zela-eta antolatutako saioa. Eguerdian Kultur Etxean egin zuten saiotxo bat, eta
bazkalondoan Zaldundegi jatetxean. Entzulerik gehienak edadekoak eta baserritarrak.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait I

P. Etxeberria: Urteak joanez hainbeste gauza
etortzen dira burura

eta kontatu nahi nizuteke
bururatu zaiten hura:
garai bateko Uztapide ta
joan ote diran lekura
harek ardua edaten zuan
eta hauek berriz ura.

J.M. Irazu: Ur pixkat edan behar nuen bai
eta patxarana bero
beti alkoholetan aritzerikan
Patxi ez leike espero;
baina zuk ere hala edan dezu
begira jarri ezkero
*soberano*kin zu're hasi zera
kantari hasi ta gero.

P. Etxeberria: Nik aitortzen det nerez naizela
xurruterua garbia
baina hemen'e Patxik ederki
esango dizu egia:
nora arraio begira egonda
Irazu zure begia?
Ez al dakizu apaizak edan
duela kopa erdia?

J.M. Irazu: Erdia Patxik beste erdia
Iñaki apaizak[6] hustuta
berriro ere meza nausian
egongo gera poztuta.
Etxeberrian ibilera're
nago ezin sinistuta:
koparik hustu ezinian ta
purua ezin piztuta.

P. Etxeberria: Egun guztian gaur ezinean
hau're ez det bukatuko...
Esaten dudan hau noski ez dit
nei inork gaizki hartuko:
elizan ere izan naiz eta
zuek zerate lekuko
pentsatzen nun gaur meza nausirik
ez zendula bukatuko!

J.M. Irazu: Meza ez zala bukatuko ta
zure pazientzi pittina
altxa ta exeri, altxa ta exeri
berotu aulki ixkina...
luze samarra egin zaiola
hara Patxiren mitina...
laburragua eingo zitzaizun

---

[6] Iñaki Aranzadi, Urnietako apaiza.

askotan juan bazina!

P. Etxeberria: Pentsatu zazu esan dudana
ez dala izan txistia
oraintxe pozik eta oraintxe
han jarri naiz ni tristia.
Nola demontre burura jausi
gauzak horrela uztia?
Gu danok utzi kantari eta
berak alde sankristia.

J.M. Irazu: Mezak bukatu beharko zuen
kantari ari ginela
indarra herriak duela nunbait
erakusten da horrela;
nik urte batzuk izango ditut
elizan sartu ez nintzela
eta gaurkuan gozatu det ba
lehen aldian bezela.

P. Etxeberria: Gustora egon ez zeranikan
nik ez nizuke esango
eta gainera aholku txarrik
batere ez dizut emango;
sinistatzen det zu eleiz hortan
sarri ez zerala egongo...
gaur joan zerade baina puxkaten
berriro ez zerade joango.

J.M. Irazu: Pixka batean ez naiz joango ez
ondo dezu nabarmendu
eta itxura eliz barruan
xuxen nahi nuen mantendu;
*Aita Guria* ia ahaztuta
hitzak mingainetik kendu
baina idatzita zegoen eta
arazoik ez det izandu.

P. Etxeberria: Puxka batean ez dala joango
honek aitortu du egiz
eta gainera hitz egiten du
oso gizatasun garbiz.
Patxi ta Irazu goizetik hasi
geroz alkarrekin gabiltz
gaur ere ez zan eliza juango
soldatik izango ez balitz!

J.M. Irazu: Bertsolariak gauza asko iten du
bere soldatan propinan
baserritarrak ere lana maiz
egiten baitu tamainan;
baten ta besten kontuarekin

Patxi hor zabiltza bainan
jornalikan gaur izan ez balitz
zu're juango al zinan?

P. Etxeberria: Haundi samarra egin dezu zuk
gauzak hola pentsatzia
eta nahi nuke mutiko gazte
jakinen gainen jartzia:
ohetik jaiki eta lehenengo
egiten det gurutzia...
zuk uste baino gehigo gustatzen
zait neri errezatzia.

**DONOSTIA (2004-05-21)**

*Bertsolariak: I. Murua eta A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Josu Zelaia.

Egiako Euskara Taldeak antolatutako bertso afaria. Arrano Elkartean, hirurogei afaltiar inguru. Saioaren hasierako eta amaierako zatiak librean egin zituzten, eta zatirik luzeena gai-emailearen aginduetara. Bi orduz jardun zuten kantuan atsedenaldirik gabe.

*A.M. Peñagarikano-I. Murua*

Gaia: Zer egiten zenuten haurtzaroan, nola jolasten zineten?

Doinua: Naparruatik ardu karraio I / Norteko trenari

A.M. Peñagarikano: Gaur egunekoek ez bezela
guk ez genuen fallatzen
kristalak hausten onak ginala
aitortuko det nik ozen;
su egiteko ibiltzen ginan
arto zuztarrak pilatzen...
zenbat une on pasa genuen
txori habiak bilatzen!

I. Murua: Ni ez nintzen hortara joaten
ez nun hor hainbat igali
mutil zabala eta guria
gosea zeinek itzali?
Bi iztar motzak holakotxeak
kasi ezin nintzan ibili
galtza motzetan irtetzen nuen

ta minifaldan itzuli!

A.M. Peñagarikano: Suma ta resta beste gauzarik
ez ziguten erakutsi;
berrogei mutil izango ginan
ez ginan hain ume gutxi
ta igandero beti mezetan
mezarik ezin zen utzi
ta bezperatan kantatzen gendun
“pange linguae cloriocci”.

I. Murua: Guk’e koruan kantatzen gendun
edota joan horreta’
baina gehiago beidatzen gendun
korukoan belauneta;
aitona xaharra *Caldo* erretzen
eta guk haiei arreta
orduan kolokatu ohi ginan
intxaur hostoak erreta.

A.M. Peñagarikano: Esan det zeinen artistak ginen
gu hango kristalak hausten
batzuk errita eginda ere
asko ez ginen zapuzten
ta igandetan zimitaioan
pilotan ez zuten uzten
eta holaxe hasi ginen gu
*Virginiano* ikusten.

I. Murua: Telebistatik orduan behintzat
ezin ikusi nahikoa
gure etxea eta auzoa
zen argirik gabekoa ;
leihoa ere kristalik gabe
gehienera plastikoa
antzematen da Peña degula
herri aberatsekoa.

A.M. Peñagarikano: Gaizto samarrak ginela denok
hain da gauza nabarmena:
gogoratzen naiz sartu ginela
behin sakristian barrena
ardo goxoa edan genuen
ta ostiak jan hurrena...
gero berari konfesau behar
hori genuen txarrena.

I. Murua: Larunbatean eskolati irten
eta ez geunden itsusi.
Poxpolok hartu ta hasi ginen
sua pizten sasiz sasi;
piztu orduko sua juan zan

kanposantura ihesi...
ia apaiza erre genduen
bere sotana ta guzi!

A.M. Peñagarikano: Berrogei mutil denak eskolan
denak elkarren onduan
eta maisua makilarekin
militar baten moduan;
harek zedukan disziplina hura
oraindik daukat goguan
ez dakizute guk *Cara al Sol*
nola kantatzen genduan!

I. Murua: Ibiltzen ginan lokatzarian
salto edo irristari
eskerrak gure hanka bizkorrei
eskerrak gure bistari!
Ralletan jarri harriak zuzen
gero ekin ihesari...
dentadura're muitzen zitzaion
treneko makinistari!

## ZUMAIA (2004-05-23)

*Bertsolariak: I. Elortza, X. Silveira, S. Lizaso,*
*M. Lujanbio, J. M. Irazu, U. Iturriaga,*
*S. Colina, A. Arzallus, J. Martin,*
*J. Maia eta A. Mendiluze.*

Gai-emaileak: Unai Elizasu eta Laxaro Azkune.

Denboraldiko azken programa egiteko xedez *Hitzetik Hortzera*k antolatutako bertso-bazkaria. Algorri sagardotegian izan zen, eta ehun lagunetik gora elkartu ziren.

*J. Maia*

Gaia: Zumaiako faroa. Keinuak egiten ditu leku guztietara. Zer esana izango du.

Neurria: berezia
Doinua: Afari ikaragarri

Paola naiz paol gorri
hemen urte luzeetan...
itsasoaren aurkako
ezarri ninduten bertan;
askok begiratzen naute
beti ilunabarretan

itsas lanbroa gainera
etortzen dan orduetan (bis)
ontziak galduta datoz
itsaso haunditik bueltan
marinelak gora beira
familiaren penetan;
metafora bat naizela
pentsa izan det benetan
horrelako bat behar da
euskaldunon buruetan. (bis)

Nik argitu ohi dut beti
bapore zaharraren buelta;
marinelak nere bila
bi begiak neka-neka...
Ez daukat izpi luzea
baina argien fereka
behin ikusiz gelditzen da
begi ninitan gordeta. (bis)
Ez nago kresalarekin
barrua guztiz erreta
gatza goitik behera dator
hau da kostako erreka
pena da metafora hau
ezin da luzaro gerta
piztu orduko berriro
itzaldu egiten naiz eta. (bis)

Berrikuntza txikitxo bat
ere egin didate aurten
argi pilo bat jarriaz
guztiak ilada baten.
Jendeak paseatzen du
bere kontuak esaten
ta bitartean ni beti
orain eman ta orain ken. (bis)
Beti ez naiz beharrezko
ta derrigorra izaten
baina ni gabe bidaia
ez da ondo eramaten;
nahi nuke hau konpontzea
dena halakoren baten
ontzi galduak paolaz
betiko ahaztu zaitezten. (bis)

*M. Lujanbio-S. Lizaso-X. Silveira-*
*A. Mendiluze-S. Colina*

Gaia: Maialenek beste lau hauei bere gaitasun bat demostratzeko aukera izango du. Maialenek besteei heldu eskutik eta besteek zer pentsatzen duten badaki.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak

M. Lujanbio: Zer dan *Hitzetik Hortzera* hori
benetan aspaldi nekin
baina joan egin behar nuen ta
joan egin naiz behinepin.
Hau jende pila, hau bertso pila
dena formalegi ta fin...
nahiago nuke bertan lurrundu
zigarroan kearekin! (bis)

X. Silveira: Begira orain pasa zaidana
gertatua izan zait lehen:
nik esateko asko eduki
ta ixilik egon hemen;
nere buruan buelta ta buelta
esaldi hori zegoen
ausardi falta onartzen det baina
eskerrik asko Maialen
zure beharrik ez baldin banu
neronek esango nien.

M. Lujanbio: Bertso kantura atera eta
bi kopla eskas hasteko;
berriro jeiki ta bi bertso motz
bertso gosea pizteko.
Ezertan ez naiz horren azkarra
ez dezute ba usteko...
Beste bi ordu behar nituzke
gailurrera iristeko. (bis)

A. Mendiluze: Hitz egokiak izango ziren
ni zer naizen azaltzeko
lehendabiziko ordua baita
beti denbora galtzeko;
beste lau ere gustora asko
nituzke hemen hartzeko
bertso gehiago botatzeko ta
berai eskutik heltzeko. (bis)

M. Lujanbio: Hemen irrifar inda bakarrik
ez det papela beteko
baino umorea ere behar da
horren luze egoteko;
bertso sariak bateko eta

nobio plantak besteko
zenbat txoakei egin behar dan
telebistan irteteko! (bis)

S. Colina: Ni telebistan ez naiz sartuko
ez, ez dut sartuko hankik
nahiz telebistan ez den faltako
glamurrik eta soldatik.
Aizu, Maialen, zuri begira
harritu egin naiz haatik
izerditan blai duzu eskua
eta ez dakit zergatik. (bis)

M. Lujanbio: Arren ixildu zaitezte pixkat
konzentrazio erdia...
juan egin zait ta dena behar det
ariketa gehiegia;
honek zeozer pentsatzen dula
badakit, hoi da egia
baina ezin det ondo interpretau
azala lodiegia. (bis)

S. Lizaso: Arrazoi dezu, urterik urte
kantari nabil jo ta ke
ta ibilerak ekartzen digu
nik ez dakit zenbat neke;
azala ere loditu egin zait
asko ibiltzean truke
meheago edukiko banuke
lotsatu egingo nintzake. (bis)

**OIARTZUN (2004-06-05)**

*Bertsolariak: A. Egaña eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Esteban Martiarena.

Oiartzungo bertso astearen barruan antolatutako jaialdi nagusia. Saio berezia izan zen, bertso trama baten modukoa. Taberna batean kokaturik hango kontuen inguruan aritu ziren bertsotan. Joxe Leon Kazabon gitarra-jolea izan zuten laguntzaile. Antolakuntza lanetan Girizia Elkarteko bertsolaritza saila aritu zen.

*M. Lujanbio*

Gaia: Andoni komunera joan da, eta zu, Maialen, bakarrik geratu zarenez, bazter guztietara begira, tabernari errepaso bat eman diozu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko I

Batzuk figura erakustera
nahiko pijo, nahiko guapo;
beste batzuek hitzetan lodi
ta pentsamentutan plako...
Taberna bete jende hor dabil
honako eta harako;
ez dakit zeatik etorri diran
zergatik ta zertarako
hona etorri nahi zutelako edo
besterik ez dutelako. (bis)

Taberna ertzeko bi mutikoek
jo ta fuego dihardute...
hitz egin asko esan ezer ez
nik hala esango nuke;
ez daude haserre, ez daude pozik
umoretsu ere ez uste;
hitzak ta hitzak botatzen dabiltz
ahots ozenean fuerte
ta erantzunik ez dutelako
zerbeza edaten dute. (bis)

Bi gaztetxo hain maiteminduak
baino hara, hara, hara!
Biak inozo aurpegiekin
begira begietara;
jefea eta menpekoa ere
eztabaidan dibi-daba
eta barmana iritsi nahian
ta ezin iritsiz hara...
Tabernatxo bat azken batean
munduaren maketa da. (bis)

**MIARRITZE (2004-06-08)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, S. Colina, I. Elortza,*
*X. Silveira eta As. Otamendi.*

Gai-emaileak: Eneko Bidegain eta Maialen Hiribarren.

Bernat Etxepare lizeoak antolatuta eta Euskal Kultur Erakundeak babestutako jaialdi hau Coliseoan izan zen iluntzeko bederatzietan.

*X. Silveira-As. Otamendi*

Gaia: Palestinar eta israeldar gaztetxoak zarete. Elkarrekin jostatzen ari zaretela, sirena hotsa entzun duzue.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

As. Otamendi: Pelota batekin gabiltza gu
zelai batean barrena
nik tira ta gero zuk itzuli
egin didazu hurrena
baina sirena hotsa hor dator
hau mina eta hau pena!
Gure jolasa amaitu da-ta
hasiko da beraiena.

X. Silveira: Lehenengo tanke bat etorri da
ta atzetik berebila;
jeitsi dira, soldaduak denek
dute eskutan fusila.
Izugarria sirena hotsa
eta jende iskanbila...
nere aita da eta ea ez
datorren zeurean bila!

A. Otamendi: Zure ta nire aita seguru
egongo direla larri
baina laguna eman nahi dizut
jolas berri baten berri:
ni Arafaten lekuan jarriz
ta zu Sharonenean jarri
lehendabiziko eman zaiogun
biok eskua elkarri.

X. Silveira: Soldaduak aurrerantza doaz
eta gazteek harrika
erantzun diete ta kaleetan
zabaldu da ika-mika.
Ze jolas berri eta ze kristo
zaude eskuak utzita!
Hau ez da jolaserako unea
eta has zaitez korrika!

A. Otamendi: Koldarra ez naiz ene laguna
zertan joan urrutira?
Haur baten irrifarrearekin
izango dute kupira
tankean aurrean geldi-geldi
geratuko naiz ni, tira;
tiratzen ez dira ausartuko
gizaki baldin badira.

X. Silveira: Koldarkeria ta ausardia
dira gutxi gorabehera
zerbait neurtu dezakeguna
hilerrien arabera.
Egin korrika, egin mesedez
aurrera edo atzera
zeren bestela seguru egon
hemen geldituko zera!

**ASTEASU (2004-06-28)**

*Bertsolariak: S. Colina, M. Lujanbio, A. Arzallus,*
*Loidisaletxe, A.M. Peñagarikano eta*
*A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

San Pedro festen barruan urtero antolatzen den jaialdia. Plazan izan zen gaueko hamar eta erdietan. Hasieran giroa berotzen kosta zen arren saioari osotasuna ematen jakin zuten.

*A. Arzallus-Loidisaletxe*

Gaia: Zuek biok Asteasuko bi ume zarete. Zu, Juan Joxe, baserrikoa. Zu, Amets, kalekoa. Udara iritsi da. Amets oso gustura dago, baina Juan Joxe ez, baserrian lan asko izaten baita udan.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait I

A. Arzallus: Kale umea naiz betidanik
hala jaio nintzen neurez
ta oporretan ez naiz ibiltzen
aizu batere aldrebes:
hamabik arte ondo lo egin
ta gero bazkaldu errez;
eskola lanik ez det izango
ta etxekorik ere ez.

Loidisaletxe: Oso egoki iruditu zait
zuk gauz hoiek esatea
opor garaian zure ametsa
daukazu ondo betea
baina neretzat dator oraingoz
egonaldi arlotea;
zuk dadukazu suertea zuk
kalekume izatea!

A. Arzallus: Hamaika orduz ondo lo egin
beti bazkaria mahaian
eta zu berriz bost minutuan
arnasa hartzeko nahian;
biok konpondu beharko dugu
gaur hasi gabe ezbaian:
ni laguntzera joango natzaizu
estutzen zeran garaian.

Loidisaletxe: Oso ontzako hartuko dizut
nere uste apalean
gauza onikan badagolako
zure bihotz zabalean;
elkar laguntzen ariko gera
gu biok eginahalean
egunez biok baserrian ta
iluntzez biok kalean.

A. Arzallus: Egia da bai biok plan hortan
moldatu gintezke ondo
gauez etxera joateko ere
ordurik ez da egongo;
lotara ere nere etxera
egin zenezake txango
eta zazpitan jeiki beharrik
hala ez dezu izango.

Loidisaletxe: Orain hartuko degu gu biok
tokatzen zaizun onura
ta jakinduriz jantziko gera
beti behar dan modura;
listo moduan irits gaitezen
biok gorengo gradura
zuk jakingo'ezu natura zer dan
ta nik berriz kutsadura.

A. Arzallus: Orduan hola jardungo gera
udararako planean
honek eskolan nola lanikan
ez dun eiten gehienean;
ez pentsa gero bere buelta ere
izango du azkenean:
honek oporrak hartuko ditu
eskola hasten denean.

Loidisaletxe: Baina orduan opor hartzea
daukagu galerazia
ta dagoeneko hartaz pentsatzen
nola nagoen hasia
era txarrean egun txar asko
nago lehen ere pasia;

hortik'e ezin libratu ohi da
nik daukadan desgrazia.

**USURBIL (2004-07-03)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Agirre, I. Esoain,*
*E. Goikoetxea, J.M. Irazu eta S. Colina*

Gai-emailea: Joxe Mari Izeta

Urteroko moduan pilotalekuan izan zen gaueko hamar eta erdietan. Bota Punttubarekin laguntzarekin Jai Batzordeak antolatutako saioa izan zen.

*I. Esoain-J.M. Irazu*

Gaia: Hi, Ibai, irakiar preso bat haiz. Hi, Irazu, kartzeleroa.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

J.M. Irazu:
Bi hilabete daramazkizu
ta ze bizitza erraza!
Zure agintari jarria nago
edozertako kapaza;
argazki batzuk kendu dizute
ia hiltzeraino arnasa
baina aspertu nabil aspaldin
hastera doa jolasa.

I. Esoain:
Erremeiorik ez daukat eta
egin behar dizut kasu;
duina naiz ta edozer gauza
jasateko prest naukazu
baina ez zaitut oso gustoko
hori aditu zaidazu
besteen bizitza arriskatzeai
jolasa deitzen diozu.

J.M. Irazu:
Bizitza baino zer da ba hori?
Zu zabiltza ezinean
soldadu raso ta orain preso
hiru hitz bai mingainean
hemen Sadamen argazkitxo bat
ez dabil lehen heinean...
belaunikatu ta egin pixa
argazki honen gainean.

I. Esoain: Hemen pasatzen ditudanak nik
ez dira askotan ikusik
hauen eskuta erori eta
geroztik a ze desgrazik!
Argazkia're pare-parean
ipini didazu kasik
urik ez dezu ematen eta
nola egingo det pixik?

J.M. Irazu: Katiluka bat emango dizut
eskatu ta berehala
bihotz oneko pertsonak gera
begiratuta ez ala?
Alde batera utzi itzazu
Hussein jauna eta Ala
esan ezazu salbatzaileak
amerikarrak gerala.

I. Esoain: Mundu triste hau gurpil bat dela
entzun izan det askotan:
gaur goiko puntan dantzan dagona
bihar behean erdi lotan...
Nahiz egonaldi gogorra den hau
sekula egotekotan
mundu guztia aldatuko dut
neronek periodikotan.

J.M. Irazu: Mundua nola aldatu leike
egunkarin azalduta
iraultzarikan ezin da egin
horrela torturatuta;
ni presaka naiz gauza honekin
lehenbailehen nahi nuke buka
zakurrai jana eman behar diot
gehiago balio du-ta!

I. Esoain: Munduan hoixe gertatzen zaigu
zakurrak zakurrai jana
ta besteontzat geratu dena
egundoko panorama;
tristea da bai badakit eta
ni hiltzera nijoana
baina gutxinez utzi esaten
"Asko maite zaitut ama".

**MUXIKA (2004-07-04)**

*Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Estiballes,*
*S. Colina eta X. Paia.*

Gai-emailea: Moises Enbeita.

Euskararen egunaren karietara antolatutako jaialdia. Gorosika auzoan izan zen bazkalostean.

*A. Estiballes*

Gaia: Hogeita bi urte kartzelan pasa ondoren, zure hogei urteko semea ikusi duzu.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

Nahiz eta hogei urte
espetxean galdu
seme eder polit bat
geurekin daukagu
aitaren ideiarik
ez dauena saldu;
bere burua eta
herri zahar hau landu...
Gure borrokak behintzat
frutu bat eman du.

Ez zen gauza haundirik
herri honetan lehen.
Semea agertu zait
gaur guapo nabarmen
telefono ta kotxe
arrakadak hemen
hiru nobia eta
makina bat izen...
ez dakit mundu hau edo
geu aldatu garen.

Nik badakit mundu hau
asko aldatu dala
baina ez ahaztu seme
maite zaitudala
beti izan zara-ta
jator ta apala;
jarrai bide hortatik
nahi baduzu hala
zeure bidea egiten
zeure aitak bezala.

*X. Paia*

Gaia: Homosexuala zara. Bikotearekin ume bat adoptatu zenuen. Gaur, amaz galdetu dizu ume horrek.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Hau da galdera, hau da galdera
eta nola erantzun, ai!
Mutikotxoa aurrean daukat
erantzun on ta finan zai.
"Ama baduzu, bai, egia da"
erantzun diot nolanahi.
"Bi aita ere aurrerantzean
horretan zu egon lasai;
aitarik inoiz ez jatzu falta
izango baina amarik bai". (bis)

Antza ez dago konbentzitua
"Hobeto azaldu, aizu!".
Egia da bai ha langileak
egin doskula abisu
nola erantzun? nola azaldu?
bueltaka nabil jo ta su...
baina erantzunik ezin aurkituz
egingo al dit honek kasu?
Lasai, heldua izandakoan
dana ulertuko duzu. (bis)

**ZORNOTZA (2004-07-19)**

*Bertsolariak: A. Arzallus, I. Murua,*
*A. Egaña eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Herriko jaietan antolatutako saioa. Gaueko hamarretan, hirurehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

*S. Lizaso-A. Arzallus*

Gaia: Saiotxo bat puntuka egiteko gaia emango dizuet. Zornotza. Pasa den larunbat gaua. Herria egon da gaztez bete-bete eginda. Goizeko hirurak, eta zuek andre-gizonak zarete,

hirurogeita hamar urte ingurukoak. Ezin lorik egin, eta Sebastian gizonak balde bete ur bota gura du, eta andreak ezetz, uzteko gazteak dantzan trankil.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Mendiko umea naiz

A. Arzallus: Nora zoaz laguna
baldea hartuta?
S. Lizaso: Leihotik botatzera
mekaguen la puta!
A. Arzallus: Jarriko dizut hori
buruan sartuta.
S. Lizaso: Lo egin ezinikan
nago aspertuta.

S. Lizaso: Lau ordu ohean ta
ez dut lorik egin:
A. Arzallus: Ez pentsa neroni're
hemen nago berdin.
S. Lizaso: Ea da aguantatzerik
gaurko gazteekin!
A. Arzallus: Piztazu telebista
gaua pasa dedin.

A. Arzallus: Nahi al 'zu ni joatea
erratza hartuta?
S. Lizaso: Han ibiliko zera
ezin asmatuta.
A. Arzallus: Gazteak zure kontra
ai, zenbat disputa!
S. Lizaso: Berentzat mesede da
pixkat freskatuta.

S. Lizaso: Gehiegi berotuta
hau da iskanbila!
A. Arzallus: Gero ni joan behar
lagunaren bila!
S. Lizaso: Parean dagoena
izurra dadila!
A. Arzallus: Uste nun baina ez zera
zeharo abila!

A. Arzallus: Gutxienez zuk bota
zazu balkoitikan.
S. Lizaso: Aizu zergatikan ez
orain leihotikan?
A. Arzallus: Bestela ere euria
eingo du goitikan
S. Lizaso: busti nahi ez badezu
alde paretikan!

S. Lizaso: Behetik buila eta

bronka ondotikan...
A. Arzallus: Aspaldian hartu nun
lagun hau begitan.
S. Lizaso: Nerea egin behar det
behingoagatikan!
A. Arzallus: Zurekin aspertuta
naukazu egitan.

A. Arzallus: Gehio aspertzen nauzu
zuk gazteek baino.
S. Lizaso: Zurekin ere izan det
hainbat desengaino.
A. Arzallus: Zurrunka utzi eta
buila egiteraino...
S. Lizaso: Beraz alde egin zazu
zuk urrutiraino!

S. Lizaso: Hiru pastila hartu
hau da komeria!
A. Arzallus: Lasai ipini zaite
sofan eseria.
S. Lizaso: Horrek ez dit ekartzen
neri umoria.
A. Arzallus: Onena freskatzea
zeure aurpegia.

A. Arzallus: Egin ezazu goiza
balitza bezela.
S. Lizaso: Uste al dezu horren
zozoa naizela?
A. Arzallus: Bajatzen ari zera
zu zure nibela
S. Lizaso: gaur zure ondoan ni
ez nengon bestela!

S. Lizaso: Hirurogeita hamar
urte bizkarrean...
A. Arzallus: Eskerrak ez dituzun
guztiak aurrean!
S. Lizaso: Urte guztiak dauzkat
jenio txarrean.
A. Arzallus: Dena galdu behar dezu
egun bakarrean.

A. Arzallus: Jeisten baldin bazera
zu gazteengana
S. Lizaso: orduan zuk astindu
goitik palangana.
A. Arzallus: Txikituko zaituzte
kalean, ai ama!
S. Lizaso: Bastoiakin neuk eman
bizkarreko bana.

S. Lizaso: Gauak ia galdu du
behar zun distira.
A. Arzallus: Orain lo egiteko
orduak ez dira.
S. Lizaso: Eguna zabaldu du
banoa mendira!
A. Arzallus: Leihotik egongo naiz
ni zuri begira.

*A. Egaña-I. Murua*

Gaia: Hauek ere edadeko pertsonen paperean jarriko ditut, baina gozo jurduteko eskatuko diet. Aspaldi, orain dela berrogeita hamar urte inguru, Andonik, mutil gaztea orduan, maitasun gutunak bidaltzen zizkion Iñaki neska pinpirinari. Baina Iñakik beste neska bat maite zuen, eta berarekin ezkondu zen. Berrogeita hamar urte igaro dira, Iñaki alargundu egin da, gizona hil zaio, eta hiletetan, gorpua oraindino fresko-fresko zegoela, han agertu zaio Andoni bere maitasuna oraindino bere borborka, sutan, dagoela esateko.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

A. Egaña: Negar malkotan zure begiek
orain egin arren diz-diz
konturatzen naiz egon zindezke
nere laguntzaren premiz.
Bihotza bete-bete zenula
esan arren mila aldiz
orain tamalez hustu egin zaizu
ta nik beteko dut berriz.

I. Murua: Garai batean hainbat eskutitz
ez dut ahaztuko sekula.
Antzematen zan zugan zegola
oso maitasun mardula.
Gaur bakartu naiz triste naukazu
ez dezaket disimula
ta zuk berriro agertu dezu
benetan maite nauzula.

A. Egaña: Gazte garaian azaldu nizun
nere maitasun sakona.
Gutunak ahaztu eta beste bat
hartu zenuen gizona.
Nere eskua kartak idazten
dardarka sarri egona
oraindik ere dardar eiten du
eta ez da parkinsona.

I. Murua: Dardara horri bere garaian
ez nion jarri arreta
eta gaur neu naiz dardarti hemen
baitut senarran hileta.
Bainan zatozkit, hurbildu arren
maitasun goxoz beteta
bakardade hau gaindi dezadan
dana beharko det-eta.

A. Egaña: Nere neskatxa maitagarria
nere amona bihotzeko!
Dena esan degu orain alperrik
da hau eta gainontzeko.
Gaur bapatean zuk egin nauzu
hain xuxen zeure etxeko;
pare bat egun pasatzen utzi
pixkat disimulatzeko.

I. Murua: Disimulorik ez nuke nahi nik
saiatu nahi dut jo ta ke.
Lehengoa joan da edo hor dago
hoztu da baina aparte...
Orain lehengo zure eskutitzek
nere onera nakarte;
bihotz xahar honek oraindik ere
benetan maita zaitzake.

**ARANO (2005-07-25)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, S. Colina, I. Zelaia*
*eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Xabier Legarreta.

Herriko jaietan urtero izaten den jaialdia. Arratsaldean izan zen, pilotalekuan.

*S. Colina-I. Zelaia*

Gaia: Txiki-txikitatik elkarren oso lagunak izan zarete: eskola garaitik orain arte beti elkarrekin ibili zarete. Gaur nabaritu duzue adiskidetasuna baino zeozer gehiago ote dagoen zuen artean. Herriko festak dira, eta elkarri zeozer aitortzera erabakita zaudete.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

S. Colina: Biak elkarren aldamenean
ibili gara luzaro
ta ritmo hontan ibil gintezke
bai orain ta bai lehenago
baina begira jarri naiz eta
guztiz txundituta nago
gaurtik aurrera izan gintezke
lagunak baino gehiago.

I. Zelaia: Gu elkarrekin joaten ginen
txikitan ikastolara;
ondoren lana egin ondoren
tragoa hartzera tarbernara.
Zure intentzio hori oraindik
gehio arrimatzea bada
gerana baino gehiago izaten
nere ustetan zaila da.

S. Colina: Elkarrekiko egin genuen
ikastolako jokoa
eta geroztik biak batzea
izan dugu gustokoa.
Bidegurutze inportante bat
izan liteke gaurkoa
biak batera segi dezagun
batera hasitakoa.

I. Zelaia: Gu banatuko gaituenikan
ez omen dagola inun
bainan gaur argi dagoen hori
bihurtu liteke ilun.
Ze ote gera biok maitale
edota elkarren lagun?
Gureak ez du neurririk baina
neurriak jarri ditzagun!

S. Colina: Harreman batek ezin du izan
sekulan neurriduna.
Iñaki zara nere gustoko
laguna eta kuttuna;
zure ondoan pasa nahi nuke
bai gaua ta bai eguna
ez ezazula erreprimitu
bihotzak esaten duna!

I. Zelaia: Barruak gauza bat esaten dit
bihotza daukat negarrez.
Elkarrekiko agertu degu
guk horrenbeste interes
eta jarraitu dezagun berdin
nahiz ta ez gertatu errez

eta denborak esango digu
zuzen gabiltzan edo ez.

**VILLABONA (2004-07-30)**

*Bertsolariak: T. Garmendia, J.M. Irazu,*
*A. Mendiluze, J. Agirre eta S. Colina.*

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Santio jaien barruan urtero antolatzen den jaialdia. Arroako plazan izan zen gaueko hamar eta erdietan seiehun entzuleren aurrean. Gaugiro ederra eta saio bizia izan zen.

*J. Agirre-T. Garmendia*

Gaia: Jubilatu etxeak antolatu duen igeriketa ikastaroan eman duzue izena. Bainujantzia eta toalla hartu eta han joan zarete. Nola joan da lehen eguna?

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Maritxu nora zoaz I

J. Agirre:
Badaukagu urtea ta
badegu ajia
ta leku xelebrera
oaingo birajia;
ikusita nola dagon
gure pausajia
igarian hasteko're
badeu korajia.

T. Garmendia:
Aitortu behar Joxe
gu zahartu ginala
baina luzitu nahi degu
nola edo hala
ta piszina hortan igeri
ikasi behar dirala
eskerrak itotzeko
bildurrik ez dala.

J. Agirre:
Beraz itotzeko zaude
bildurrik gabea
kontuz jartzen badute
hor ura doblea;
nik neurekin dadukat
bai flotadorea

zuk ere hori daukazu
nahiko dotorea.

T. Garmendia: Flotadorea degula
guk dotorerako
bidea jarri digute
igaritarako
baino aukeratu ote'ute
gure onerako?
Askoz hobe ez al gaude
zirko baterako?

J. Agirre: Entzun al dezute orain
Txominek diona?
Zirku baten eingo luke
bai guk papel ona;
neu ere pentsatutzen
askotan egona
propio jardun gabe
eiteko gizona.

T. Garmendia: Burutik arindu eta
hanketatik herren
edozin lekuta' joanda
gabiltza nabarmen
hasiera esango dute
ta azkenean amen
hobe etxeratutzea
hemen ito baino lehen.

J. Agirre: Bikote zahar hau dago gaur
nahiko abusatua
ezinetikan bapo
gaude osatua
pausua moztua ta
tripa luzatua
gure gorputza dago
modan pasatua.

T. Garmendia: Joxe bertso honentzako
har zazu arreta
tripa aldetikan gaude
gu ondo beteta
alkartean hobe basoa
guk ardoz beteta
hemen danak parre
egiten digute-ta.

**ALTZO (2004-08-01)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, S. Colina,*
*J. Martin, J. Maia eta U. Iturriaga.*

Gai-jartzaileak: Manuel Olano eta Jexux Murua.
Gai-emailea: Manuel Olano.

Saninaziotan urtez urte antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamarretan izan zen, pilotalekuan. Laurehun entzule inguru eta giro beroa.

*M. Lujanbio-S. Colina*

Gaia: Parranda batean ezagutu duzue elkar. "Jiji" eta "jaja" pasatu dituzue hainbat ordu eta elkar agurtzeko mementoan, bi intentzio desberdin dauzkazue: bataren intentzioa da musu eta puntu; bestearena, berriz, musu punto com. Zuek aukeratu zein den bakoitzarena.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

M. Lujanbio: Txozna barratik txozna barrara
ta bolumen ozenean
ibili gera nahiko zerbeza
urdailan almazenean;
oain emaidazu muxu txiki bat
masailera zuzenean
eta punto com akaso bihar
konturatzen naizenean. (bis)

S. Colina: Nahiz ta Maialen ezezagunak
ginen gu biak lehenago
gaurko arratsez edan ditugu
hainbat katxi, hainbat trago;
muxu batekin hasiagatik
joan gaitezen urrunago
gaurko parrandak merezi baitu
muxu bat baino gehiago. (bis)

M. Lujanbio: Hamaika trago, hamaika baso
jardun gera ttipi-ttapa...
Orain eskuak luzeak dauzka
lepora bota dit bata
eta bestea berriz gerrira
aparta zaitez, aparta!
Orain basorik ez dauka eta
eskutan zeoze falta. (bis)

S. Colina: Beti izan zera neska polita
liraina eta lerdena;
intentziotan ni berriz nauzu

azala bezain gardena.
Arrazoi duzu orain eskutan
zeoze falta zaitena
baina zurekin egin nahi nuke
tragorikan goxoena. (bis)

M. Lujanbio: Oain romantiko jarriko ote da?
Poesia du eredu
zabarkerian ibili ondoren
berdin uda, berdin negu.
Hobe muxu bat orain ta gero
noizbait segi dezakegu
gaur hasi eta bukatu ezkero
bihar ze egin behar degu? (bis)

S. Colina: Ordu honetan erantzuteko
zail samarra da galdera
"Eta ze kristo egin liteke
bukaeratik aurrera?";
zure ustetan eginez gero
bi muxu eta etxera
orain harrotu zerade baina
bihar damutuko zera. (bis)

M. Lujanbio: Etxe atarin hizketan hasi
gera bost t'erdik aldera;
zortziak dira eta oraindik
ez atzera ez aurrera....
Egunsentiak gauz bat ekarri
dit ta bitxia gainera:
gogoa ere joan egiten da
mozkorrarekin batera. (bis)

S. Colina: Beraz mozkorra joan egiten da
aguro eta korrikan;
adibidea dirudienez
probatu duzu sarritan.
Zure ustetan nagoen arren
zerbait gehioren irrikan
aizu Maialen eskatu dizut
gosaria bakarrikan. (bis)

*M. Lujanbio-A. Egaña- S. Colina-*
*J. Martin-J. Maia-U. Iturriaga*

Gaia: Hauek gazteak dira, eta gazteen iritzia jakin behar dugu. Bakoitzari zazpi puntuko bertso bat edo handik gorakoa kantatzeko eskatuko diogu. Egun hauetan jakin dugu Eusko Jaurlaritzako ikerketa baten berri. Bertan, euskal gazteriaren oso argazki baikorra agertzen da: % 93a pozik edo nahikoa pozik omen dago bere bizimoduarekin. Zuek zer deritzozue?

*U. Iturriaga*

Neurrria: zazpi puntukoa
Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Nahiz ta ez naizen zaku hortan sartzen
ia nire adinarekin
gazteria zein pozik bizi den
aste honetan dut jakin.
Beti entzun dut ez fidatzeko
nik galdeketa batekin:
galdetzen da arin-arin
ta erantzun ere berdin. (bis)
Gehiengoaren iritziak ez dit
sekula ere eman min;
artaldeak ze egiten du ba?
Belarra jan ta kaka egin! (bis)

*J. Maia*

Neurrria: zazpi puntukoa
Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Egia da bai erantzun hortaz
ez al gera konturatu?
"Zer moduz zaude?" "Ondo" esanak
ia dena baitu hartu.
Guztiak gera zoriontsuak
ezer ez ote pekatu?
Ta azterketa bukatu
ezer ezin da ukatu. (bis)
Gehienak ondo gaudela dio
hori nahi det gezurtatu
hori diona gaizki daudenez
ez da asko gogoratu. (bis)

*J. Martin*

Neurria: zortzi puntukoa
Doinua: Afari ikaragarri

Egia da jende asko
bizi litekeela alai
baina askok tristura du
ateko atarian zai.
Gazteok egia degu
badaukagu nahiko dohai
baina lana falta zaigu
etxebizitza ere bai. (bis)
Nahiz ta dena ez den ona

egon gaitezke gu lasai:
sasoiz gaude eta gara
gauza asko aldatzeko gai;
galtzailearen papera
paper erosoa da, ai!
Asko ez da zoriontsu
ta askok ez du izan nahi. (bis)

*S. Colina*

Neurria: zortzi puntukoa
Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Nahiz ta aztertu diren gakoak
harridura're sortu gaurkoak
datu horiek ez direlako
eztabaida gutxikoak. (bis)
Azterketa tipikoak
dira kategorikoak
azaltzeko topikoak.
Jaurlaritzantzat pozik dabiltza
gazte nola-halakoak
Jaurlaritzantzat gazteak dira
lau urtetik beherakoak. (bis)

*A. Egaña*

Neurria: zortzi puntukoa
Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Gure garaian gazte gehienok
ohi genuen gorri marka;
gaur egunean ezetz diona
inkesta bat da zeharka:
lan ebentuala jasan beharra
nagusiak goitik kalka
aupa gazteria aupa!
Ez protesta ta ez zaunka
ezer, zertarako uka?
Dirudienez inortxok ez du
ezer gizartean aurka
gaur dena arroxa ikusten dunak
etorkizun beltza dauka. (bis)

*M. Lujanbio*

Neurria: bederatzi puntukoa
Doinua: Betroiarena

Larogeita hamahiru
ehuneko ileran
pozik dagola bere
bizi maneran.
Zer da estadistika?
Galderak karreran
ta emaitza sinistu
liteke haseran
baina nik aukeran
segi nahi det teman
ta ze duda dedan
aditzera eman:
konforme egotea
poza ote dan. (bis)

*A. Egaña*

Gaia: Andonirentzat gaia pentsatzean bi ideia ibili ditugu buruan. Biak ematea erabaki dugu, eta berak egin dezala gero nahi duena. Bi ideiak euskal abesti ezagunetan oinarritzen dira. Hil berri den Imanol kantariaren *Mendian gora haritza* abestiak honela dio pasarte batean: "Ni hiltzen naizen gauen behintzat / eizue lo lasai". Abesti herrikoi batek, aldiz, honela dio: " Begiak parrez parrez, bihotza negarrez".

Neurria: berezia
Doinua: Sorlekua utziz gero

Lehenengo esaldi hori
ze gozo ta zer atsegin!
Bat joaten bada munduak
segitu dezake berdin
baina gaur egun Euskal Herrian
degun egoerarekin
Imanol joan zen gauean ere
lo lasai ez gendun egin.

Lasaitasuna, patxada
litzake gure problema;
herri honetan norbaitek
hartu behar luke lema.
Lo lasai nola egingo degu
arazo badegu dena?
Imanol berak hartu dezala
betirako atsedena.

Heriotza zer ote den
pixkat pentsatzen hasita:
ustegabe ipintzen du
bai ordua ta bai zita.
Egunen baten egingo balit
ustegabeko bisita
negarra nik neuk eraman nahi det

hemen irria utzita.

**USURBIL (2004-08-03)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, J.M. Irazu, M. Lujanbio,*
*A.M. Peñagarikano eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

San Esteban auzoko jaiak zirela-eta antolatutako jaialdia. Kanpoan egitekoa ziren, baina euria egin zuen eta ermitan egin zuten azkenean.

*A.M. Peñagarikano-S. Lizaso*

Gaia: Sebastian gotzainari bisita egin dio Anjel Mari Usurbilgo apaizak, Erromako zenbait erabakik- preserbatikoak direla, homosexualen ezkontzak direla...- sortzen dizkion buruhausteak direla eta.

Neurria: seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

A.M. Peñagarikano: Beti ontzat hartu det
eleizan morrontza
ta aspaldian bada
buila eta hotsa!
Nik onartu behar al det
bi andran ezkontza? (bis)

S. Lizaso: Beraz aurkitzen zera
kezkaz eta minez
uztarketa ez dezu
hartzen atseginez
baina errespetatu
itzazu gutxinez! (bis)

A.M. Peñagarikano: Kezka ugari dauzkat
burura igoak
ta kezkatzen nauenak
SIDA motiboak
libre utzi behar al ditut
preserbatiboak? (bis)

S. Lizaso: Ez zaizu falta zuri
kezka ta marmarrik
eskerrak ez daukazun

zuk lehengo indarrik!
Lasai, adin horretan
ez dezu beharrik. (bis)

A.M. Peñagarikano: Euskal Herriak dauka
fedean hainbat gaitz
hemendik urtetara
aizu, hiltzen banaiz
andren bat izango da
Usurbilgo apaiz. (bis)

S. Lizaso: “Hemendikan gero zer?”
da zure trantzea
liteke emazteak
apaiztzat hartzea
pena izango dezu
ez ezagutzea. (bis)

A.M. Peñagarikano: Beste gai batekin’e
jendea jo ta su...
nahi gabe eon badira
mila enbarazu
ta abortoei buruz
ze esaten didazu? (bis)

S. Lizaso: Ia ulertzen dezun
orain nik esana:
zuk dadukazun kezka
hutsala da dana
ez baitago hiltzerik
jaiotzen ez dana. (bis)

A.M. Peñagarikano: Nerekin nik gogoan
zenbait mandamentu
ta konpondu ezinean
makinat asuntu...
Eskerrik asko eta
agur Aita Santu! (bis)

S. Lizaso: Burutik joan ote dan
hasi naiz kezkatzen
hain jota zegonikan
ez nuen pentsatzen:
obisporikan ere
ez du ezagutzen! (bis)

**GASTEIZ (2005-08-06)**

*Bertsolariak: R. Sanchez, S. Colina, J. Maia eta Mañukorta.*

Gai-emailea: Lierni Altuna.

Ama Zuriaren jaietan, Arabako Bertsozale Elkarteak antolatzen dituen saioetako bat. Aihotz plazan izan zen, eguerdian.

*Mañukorta*

Hitza emanda gaitzat: Langilea

Neurria: Berezia
Doinua: Uso xuria errazu I

Gertatutako guztia
komeni da ikustia. (bis)
Basarri-kale lana eginaz
nere bizitza guztia.
Lana nahi eta ez arkitzia
ez al da gauza tristia? (bis)

Hitza emanda gaitzat: Jubilatua

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ari naizela ari naizela

Nere bizitzan lana eginez
ni ez nebilen itsusi
zahartzaro on bat berebiziko
arkitu nahirik berezi.
Berrogeita hamazazpi urtez
alde ein nun lanan ihesi
sasoi onaz ta nahiko diruaz
ni ez naiz gaur gaizki bizi.

**GASTEIZ (2005-08-07)**

*Bertsolariak: X. Silveira, E. Arozena, I. Viñaspre*
*eta M. Agirre.*

Gai-emailea: Irati Lotina.

Ama Zuriaren jaietan, Arabako Bertsozale Elkarteak antolatzen dituen saioetako bat. Aihotz plazan izan zen, eguerdian.

*X. Silveira-M. Agirre*

Gaia: Zuek laurogei urteko erdaldunak zarete.Urtero bezala Aihotz plazara etorri zarete sagardo pixka bat edan eta bertako giroa ikustera. Beste behin ere hor daude lau pertsona mikro aurrean, kantuan, tabladu baten gainean igota; eta jendea entzuten eta txaloka. Zeintzuk dira horiek? Zertan ari dira?

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Nere senarrarekin I

X. Silveira: Matxete plazan biltzen
gara urtez urte
txorizo egosia
janez euro truke.
Peri planaz diote
"¿Estais colgaus u qué?"
hoiek kolgatuago
daude ba nik uste. (bis)

M. Agirre: Txorixoakin bete
dut tripa barrena
orduan iritsi zait
soinuan eztena.
Horko bizardun horrek
ematen du pena.
Ez dut ezer ulertzen
hori da onena. (bis)

X. Silveira: Baina bizar duena
isiltzen da ti-ta
bere ondokoa bai ez
dela hain polita.
Begira horrek duen
futbolari pinta
eta baloia lepo
gainean jarrita. (bis)

M. Agirre: Eta orain sentitzen naiz
lasai ta herabe

zarata horrekin gaur
bainago mirabe.
Kantatu egiten dute
dantza egin gabe
estaka geldi batzuk
bezalaxe daude.(bis)

X. Silveira: Guk euskeraz jakin ez
ta behintzat horrela
bertsolaritza ez da
hain gauza krudela.
Aulkitako jendea
dago lo bezela
seguro hoiek euskera
ulertzen dutela. (bis)

M. Agirre: Euskaldunek daukate
halako antsia
ta horri eman behar
orain garrantzia.
Entzuteko behar da
kriston pazientzia.
Hola ez dute lortuko
independentzia. (bis)

X. Silveira: Independentzia ez da
lortuko agian
baina euskera dute
euren mingainian.
Bertso entzule jende
horien karian
joder zein arraroak
diren Arabian! (bis)

M. Agirre: Euskaldun arabarrak
nahiz ta ez diren zero
estereotipo bat
bete dute edo.
Gero patxaranakin
jartzen dira bero
ta tronkon bat moztera
joango dira gero. (bis)

**GASTEIZ (2005-08-08)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, I. Elortza, O. Perea*
*eta R. Gonzalez de Durana.*

Gai-emailea: Irati Anda.

Ama Zuriaren jaietan, Arabako Bertsozale Elkarteak antolatzen dituen saioetako bat. Aihotz plazan, eguerdian.

*O. Perea-I. Elortza*

Gaia: Zu, Oihane, *lady* Oihane printzesa zara. Gaur goizean basora atera zara marrubi bila, eta bidean apo bat topatu duzu. Apoa eskuetan hartu eta musu bat eman diozu, eta apoa, bat-batean, Igor bihurtu da.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

O. Perea: Apotxo bati bota
diot lehen begia.
Printzesa izan arren
daukat miseria.
Ai, oraindik dituzu
hori da egia
hanka luzeak eta
apo aurpegia.

I. Elortza: Nahiz ta itxurak izan
berebizikoak
esan nahi nituzke hitz
erromantikoak
ipuinetako printze
baten neurrikoak
baina ateratzen zait
“Kroak, kroak, kroak!”.

O. Perea: Putzu baten bizi zen
lehenago *Shrek*-ekin
ta “Kroak!” egiten du
ekin eta ekin.
Zer atera daitekeen
ezin duzu jakin
printze bat atera zait
pirata prakekin.

I. Elortza: Ze printze klase naizen
zuk pentsatu hortik

apur bat zakartzea
oraintxe dagokit:
*lady* Oihane zertan
zabiltzan badakit
emaidazu probatzen
zure marrubitik.

O. Perea: Orain zaunka hasi da
lehenago kroaka
egia esan niretzat
hori ez da lata
eta iruditzen zait
ideia aparta
hartu marrubia ta
bota zazu nata.

I. Elortza: Marrubia eskatzea
ez da izan kalte
nik ere badut nata
ta bota bastante;
oraindik ez da nahiko
ta segi jo ta ke
bazkaldu behar dugu
esplotatu arte.

O. Perea: Egia esanda nik
gose galanta dut
nire alderik beltzena
esnatu duzu zuk
marrubia eman eta
natatxo horren truk
zure hanka guztiak
txupatuko ditut.

I. Elortza: Igela printze egin
gendun nobedade
marrubia ta nata
nahastu suabe-suabe.
Asetu arte ez nuen
nik egin nahi alde
baina orain gelditu naiz
zapaburu gabe.

**GABIRIA (2004-08-14)**

*Bertsolariak: J.A. Aranburu, I. Zubeldia,*
*O. Bartra, A.M. Peñagarikano,*
*M. Lujanbio eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Herriko jaietan, ama birjina bezperan, duela hogeita hamabi urte hasi eta urtez urte prestatu duten jaialdia. Gauean izan zen, parrokiko lokalean.

*A.M. Peñagarikano-I. Zubeldia*

Gaia: Herri txikietan askotan gertatzen dena gertatu da zuekin ere aurten: jaiak iritsi dira, eta Peña antolatze lanetan buru-belarri sartu da; Iker, berriz, juerga eta lo egiteko besterik ez dago.

Neurria: Zotziko txikia
Doinua: Mando baten gainean II

A.M. Peñagarikano:
Festak iritsi dira
ta agian kaltez.
Batzuek lana egiten
bere borondatez.
Kankailu makal hori
zu esnatu zaitez!
Batzuek lan gehiegi
ta besteak batez.

I. Zubeldia:
"Lasai egin zak parranda"
esaten dit amak
ta gainera gustatzen zait
nei taberna danak.
Albora utzi itzazu
holako esanak;
nork gozatu behar ditu
zuk eindako lanak?

A.M. Peñagarikano:
Pentsatzen jarrita ere
hau edertasuna!
Nik dana gozoa daukat
ta zuk behazuna;
lekutan legoke bai
gure etorkizuna
denek egingo balute
zuk egin dezuna!

I. Zubeldia:
Zergatik jartzen nauzu
holako trantzean?
Nahiz ta ibiltzen naizen

ni noraezean
danak ezin dira ibili
Peñaren klasean
langilerik ez legoke
alperrik ezean.

A.M. Peñagarikano: Juerga egiteko
dezu edadea
baina pixkat pentsatzea
agian hobea;
zure egoera ez da
hortaino grabea
okerragoa da zure
mentalidadea.

I. Zubeldia: Ez da nola-halakoa
zure aurpegia!
Gehienen ibiltzen gera
*de categoria*.
Nahiz nere borondatea
ez dan gehiegia
ez da askoz hobea
zure inbidia!

A.M. Peñagarikano: Borondaterik ez dezu
asko erakutsi
ta guk usadioari
hemen behar eutsi.
Entzungo al didazu
Zubeldia *Txapitxi*?
Zuk jeta galanta dezu
eta lotsa gutxi!

I. Zubeldia: Ze esan dezake ba
holako gizonak?
Jun dan hogei urtean
joan ziren bromak
baina lotsagabe hoiek
ez dira hain onak
lotsa haundirik ez du
zurekin dagonak.

*S. Lizaso*

Gaia: Gaur omen dira hogeita hamar urte lehenengo plaza egin zenuela. Akordatzen al zara zerbaitetaz?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko I

Urte asko dira edo ez dira
bakoitzak nahi dun moduan
ta bitartean hainbeste gauza
gertatzen dira munduan.
Batzuk gogoan gelditzen dira
besteak burutik juan;
gaur bete dira hoita hamar urte
hargatik daukat goguan:
jende aurrean lehenengo aldiz
Gabirin kantatu nuan. (bis)

Hor goian zegon futbol zelaian
arbola baten kerizan
urduri bainan hamasei urtez
kantatzen ausartu nintzan.
Bakoitzak bere amets aroak
izaten omen bizitzan
garai hartako amets guztiak
nituen bertsolaritzan;
izarrarekin amesten nuen
nahiz ipurtargia izan. (bis)

Hasi ez banintz jarraitu ezin
beraz bertsoak akabo
ta Gabiriri eskerrak nola
ez dizkiot ba emango!
Hau esan gabe zuen tartetik
gaurkoan ez naiz joango
hementxe bertan kantatu bainun
sekula baino lehenago;
azkena bertan izan dadien
pentsatzen hasita nago
baina lasaitu ahal baldin bada
gaurkoan ez da izango.

**ZIZURKIL (2005-08-15)**

Bertsolariak: A. Agirre, M. Mendizabal, J. Agirre, S. Colina, J. Sorozabal eta J. M. Irazu.

Gai-emailea: Igotz Alkorta.

Herriko jaietan ohikoa den jaialdia. Gaueko hamaiketan izan zen, herriko plaza jendez beterik zela.

*A. Agirre-S. Colina*

Gaia: Bikote hasi berri bat zarete. Amaia neskak Sustrai mutilari *piercing* erotiko bat daukazula esan diozu. Gaur, hondartza nudista batera joan zarete, eta hor non ikusten duzun Sustrai alde guztietara begira, zure *piercing*-a aurkitu ezinik.

Neurria: lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da

S. Colina:
Behingoagatik hasi behar dut
nik azkar espabilatzen!
Beira ta beira naukazu baina
*piercing*-ik ez det bilatzen.

A. Agirre:
Badet puntu bat "g"-z hasten dana
eta "g"-z bukatzen dana
gixarajoak hori aurkitzen
edukiko dezu lana!

S. Colina:
Intriga haundia sortua dit ba
haundi-haundia gainera
"g"-z hasi eta "g"-kin bukatu
mapan agertzen ote da?

A. Agirre:
Igual Ginebra izan liteke
baina ez da ta egon lasai;
behatzarekin ez zera iristen
irudimenarekin bai.

S. Colina:
Horrelakoak esatekotan
egon zaitea isilik
esan nahi zendun heltzen naizela
irudimenakin soilik.

A. Agirre:
Barkatu baina dena gezurra
oraindik zaude lekutan!
Zuk uste al dezu puntu guztiak
daudela mingainan puntan?

S. Colina:
Ba ni puntutan abitua naiz
ez dago esan beharrik
baina puntuak neretzat daude
bersolaritzan bakarrik.

A. Agirre:
Dena bersoa dena bapaten
denik ez dezu usteko?
Puntu guztiak mia itzazu
puntuak irabazteko!

S. Colina:
Aizu, horrelakorik ez bota
"zisti, zasta, zisti, zasta"
puntu guztiak bilatzerako

nekatu egingo naiz ta!

A. Agirre: Zulo barruan daukat *piercing*-a
igual zuretzat kaltean...
Barkatu, Sustrai, nik hemen daukat
baina mitxelin artean.

S. Colina: Horrelakorik ez nun espero
a ze nolako trantzea!
Orduan alper-alperrik nuen
hanketa begiratzea!

A. Agirre: *Piercing*-a kendu eta gorputza
biluzik nahi det azaldu;
goza nazazu burnirik gabe
morborik ez badet galdu.

S. Colina: Aizu, plan on bat jarriko dizut
ta oso ona gainera:
goza dezagun, goza dezagun...
goazen bainua hartzera!

**BILBO (2004-08-19)**

*Bertsolariak: O. Enbeita, I. Ibarra,*
*I. Muniategi eta X. Paia.*

Gai-emailea: Oihana Bartra.

Bilboko Aste Nagusian, Santutxuko Bertso Eskolak, BBKren laguntzarekin, egunero antolatzen dituen saioetako bat. Santiago plazan, eguerdiko ordu batean.

*I. Ibarra*

Lehen puntua emanda

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

X. Paia: Zer falta du Markinak
Bilbok badaukana?

I. Ibarra: Ai, galdera polita
ein dozu laztana!
Gure herriak badauka

xarma eta fama;
parka baina Markinak
gaurkoz dauka dana.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

O. Enbeita: Gero txoznetarako
zandaliakaz txarto

I. Ibarra: ez dozu baina bota
zeuk ere edarto
ni gaurkoz txoznetara
ez nijoalako;
kotxea hartu behar dot
nik Cadizerako. (bis)

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

X. Paia: Palan eta bertsotan
ta bietan ona

I. Ibarra: bietan ibiltzen da
andra ta gizona
nahiz ta gizonezkoek
euki beti sona
aldaketa eingo dogu
bietan sakona.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

I. Muniategi: Zuretzako zer dira
Igor eta Unai?

I. Ibarra: Galdera hori ein dozu
gainera txit lasai.
Bertsotan onak dira
beti dabiz alai;
txapelduntzako onak
nobiotzat be bai.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

O. Enbeita: Eta nogaz joango
zara Cadizera?

I. Ibarra: Koadrilan joango naz
betiko antzera;
ez naz sarritan joan
Españan behera
baina joan beharko da
beroa pasatzera. (bis)

*O. Enbeita*

Gaia: Bihar banderen eguna deritzona da, eta bihar ere ikurrinaren ondoan espainola egongo da Bilboko udaletxean.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Askatasuna falta danean
herri bat ez da bardina:
poza beti da pozgarriago
mingarriago samina.
Ikurrinagaz gu zeintzuk garen
adierazteko dau grina
nahiz polizia alkatearen
aginduz jardun jakina
barriro bistan geratuko da
tiranoaren ezina.

Barrura asko sartu ohi dabez
baina badago kantera;
batzuk kanpora joan behar dabe
gu joaten gara kalera
pankarta baten bihotz barruan
nahi doguna idaztera
nahiz ta ikurrina oztopatzeko
gero etorri kargatzera
gure ganetik ez da pasako
Espainiako bandera!

**BILBO (2004-08-21)**

*Bertsolariak: S. Colina, A. Mendiluze, J. Maia*
*eta M. Artetxe.*

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Bilboko Aste Nagusian, Santutxuko Bertso Eskolak, BBKren laguntzarekin, egunero antolatzen dituen saioetako bat. Santiago plazan, eguerdiko ordu batean, hirurehun entzule inguru.

*M. Artetxe-A. Mendiluze*

Gaia: Bilboko jaiak hasi zirenetik Bilbon zabiltza, gauez ibili eta egunez lo. Gaur ere Unamuno plazan lokartu zara, baina bat-batean urak esnatu zaitu. Begiak zabaldu, eta hantxe ikusi duzu Aitor, kale-garbitzailea, mangera eskuan.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Orain hasi bihagu

M. Artetxe: Goizeko hamaiketan
honek enbarazu
mangera luzeari
egin diot kasu.
Mesedegarri zara
neretzako aizu
txanpua ta jaboia
baldin badauzkazu.

A. Mendiluze: Orain ura alperrik
behar zenuen lehen
ta igual lo etxean
egingo zenuen.
Ni zikinak garbitzen
ari naiz gaur hemen
eta ez zait inporta
ze zikin klase den.

M. Artetxe: Atzo a ze mozkorra!
A ze biajea!
Gaurkoan ere latza
da nire ajea;
zikin xamarra dago
bai nire trajea
egin zaidazu dutxa
hidromasajea.

A. Mendiluze: Zikina badezula
beraz badakizu
beste denok aspaldi

genekien aizu!
Presioa emanda
jarri det jo ta su
parrandako gogoak
kendu behar zaizkizu!

M. Artetxe: Gogorik gabe ere
ein leike parranda
nahiz ta gero bukatu
hementxe etzanda.
Zurea etorri da
orain nere txanda:
mangeratik zerbeza
ateratzen al da?

A. Mendiluze: Aparra badu baina
hau ez da zerbeza
txorakeritan hasi
zera zeure kasa;
ene hauxe bai dela
dutxa bat eskasa!
Pentsatzen nuen baina
ez al zaizu pasa?

M. Artetxe: Oraindik ez da iritsi
mozkorraren punta
baina ez gaitezen hasi
gu biok muturka;
zoaz hara ta utzi hemen
ni neu paketuta
hango ixkina zikina
gelditu zaizu-ta!

A. Mendiluze: Gainera adar-jotzen
hasi zera hala
zu zauden egoeran
hau ez da normala.
Utzi egin behar zaitut
libre zabiltzala
ta gero kontainerrak
eraman zaitzala!

**BILBO (2004-08-22)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Martin, I. Elortza*
*eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Jon Eizmendi.

Bilboko Aste Nagusian, Santutxuko Bertso Eskolak, BBKren laguntzarekin, egunero antolatzen dituen saioetako bat. Santiago plazan, eguerdiko ordu batean, entzule asko.

*M. Lujanbio-J. Martin-I. Elortza-U. Iturriaga*

Gaia: Jaietan jarri ohi diren pankarta horietakoak zarete. Azaldu zein mezu dagoen zuen baitan.

*M. Lujanbio*

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Antton eta Maria

Hau laister izango da
helburu lortua
nahiz ta batzuek izan
ezin ulertua.
Udaletxe parean
naukate lotua
eta nere mezua
ez dago agortua:
"Jaia herriarentzat ta
herriak sortua". (bis)

*I. Elortza*

Neurria: Berezia
Doinua: Sorlekua utziz gero

Hobe agertu ez banintz
berriz aspaldiko partez
baina plastiko ta espraiak
hartu behar ziren artez;
Bilbao La Viejan eskegi naute
goizean hari mehe batez
"Jai herrikoiak gura ditugu
eta poliziarik ez".

*U. Iturriaga*

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Gogoratuko zara

Pankarta honek ditu
pertsona asko maite
baina bat bereizten dau
besteen bitarte
jaietan ta herrian
hartu ebana parte
"Agur eta ohore
ta ikusi arte!"
jaietan ta herrian
hartu ebana parte
"Gure bihotzetan zagoz
Iñaki Uriarte".

*J. Martin*

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

Bilbon jartzea ere
ez da harrigarri
beste herritan ere
egoten da sarri.
Nigan gordetzen ditut
hainbat letra larri:
"EUSKAL PRESOAK EUSKAL
HERRIRA EKARRI!";
ea hurrengo urtean
ezin nauten jarri!

*U. Iturriaga*

Gaia: Aspaldian gaixo zeunden, eta joan den astean azken etsia eman dizute sendagileek: gehienez ere bi hilabeteko bizi iragarri dizute. Zertan emango dituzu bi hilabete horiek?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas

Nire osasunak urte honetan
euki dau hainbeste krisi
baina hau azkena dala dinoste
ezin dot joan igesi.
Medikuak dino "Tartea hartu
nahi dozuna egiten hasi".
Bi hilabete hirurogeita
hiru egun dira kasi;

gurago neuke ez jakin eta
egunerokoa bizi.

Dinoste heriok ein behar deustala
bi hile barru bisita
lehenau be inoiz sentitu izan dot
neure barruan zirika.
“Aprobetxatu eta askatu
barruan dozun irrika;
bidaiak egin ta disfrutatu
ta bizi zaitez korrika”...
Zer egin leike heriotzaren
sega gainean eukita?

Esaten dabe “Ez eizu Unai
halan be etsirik hartu;
aurrean dozun denbora hori
ahal danik ondoen neurtu;
astiro-astiro zure mundua
egunerokoan agurtu”;
nik nahiko neuke lehengo loturaik
bi hilabetean ez apurtu
nere inguruei begiratu ta
maiteenak besarkatu.

**DONOSTIA (2004-09-04)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, S. Colina, I. Lazkano,*
*M. Lujanbio, U. Iturriaga eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Euskararen Donostia Patronatuak antolatutako saioa, Kultur eta Turismo Ekintzetxearen eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Gaueko hamar eta erdietan, Trinitate plazan.

*I. Lazkano-M. Lujanbio*

Gaia: Imanol, saio hau hasi aurretik taldean zeundeten bertsolariak eta, isilik, kopetilun, ikusi duzu Maialen, hitzik egin ezinik. Jakin nahi duzu zergatik dagoen goibel; berak erantzungo dizu, eta ea kopeta ilun hori argitzea, alaitzea, lortzen duzun.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Hasiko al naiz hasiko al naiz

I. Lazkano: Nere galdera ez da izango
errita edo sermoia
bainan gaurkoan ikusi dizut
nik umorea doi-doia;
zu horren triste arkitutzeko
esan zazu arrazoia
edo bestela galde nezake:
zertarako da sasoia?

M. Lujanbio: Sasoi beteak badauzka bere
arantzak ere gordeta.
Tristerik nago gauza batzuek
ondo ez dijoaz eta;
oain nola igo oholtzara ta
nola argitu kopeta?
Finegi eta gardenegi da
bersolarien kareta.

I. Lazkano: Benetan goibel ikusi zaitut
gaurko saioan haseran;
ez dakit, maite, lehenago zu nun
ta nola ibili zeran.
Iruditzen zait adin horretan
bizi leikela primeran
baina umorea ez dago nunbait
adinaren gorabeheran.

M. Lujanbio: Hara kontuak zer-nola diran
azalduko dizut zuzen
jakingo dezu nola urteetan
nahiko aurrera zoazen:
udan saioak ehundaka neuzkan
jendearen bistan maizen...
batzutan duda ere sartzen zait
zertan ari ote naizen.

I. Lazkano: Hoinbeste saiok karga badauka
ez da lantegi makala
baina guziok horretaraino
heldu nahi dute ahal dala
ta zu horrekin kezkatutzea
ez derizkiot normala;
ez al didazu zeorrek aitortzen
alpertzen ari zerala?

M. Lujanbio: Serioa da kontua eta
ez zaidazu egin burla;
ez da alperrana nere tristura
ez dezaket disimula.
Ez zuk eta ez jende ugarik
ezin ulertu sekula
irria gorantz egiten dunak

behera ere egiten dula.

I. Lazkano: Txapela eta goi-goiko punta
nola dituzun igurtzi
aurrera ere nahi zenioke
zuk jokera horri eutsi;
ez det esango horrek ez dunik
ematen sufrimen gutxi
bainan mesedez Maialen maite
parre egiteai ez utzi!

M. Lujanbio: Eskertzen dizut, Imanol; nago
pittin bat animatua;
kontatu dizut nere tristura
eta nere sekretua.
Bersolaritzaz aparte bada
munduan zer miatua
eta bizitza beti ez doa
nahi bezain errimatua.

## ARRASATE (2004-09-12)

*Bertsolariak: E. Goikoetxea eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Kepa Urain.

Uribarri auzoko jaiak zirela-eta antolatutako saioa. Arima Zuri plazan izan zen, eguerdian.

*E. Goikoetxea*

Gaia: Gipuzkoako Txapelketan, Zarauzko finalerdiaren amaierako agurrean, txapelketatik plazara jauzia egin nahi zenuela kantatu zenuen. Lortu al duzu?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Puntaren puntan dabiltza hainbat
bertsolari on ilustre:
Agirre, Martin, Iñaki, Ekaitz
ta ezusteak ezuste.
Gazteak sarri txapelketara
kondenatu ohi gaituzte.
Egoera hau xamurra denik
inork ez dezala uste
txarrak gerala konprobatzeko
aukerak nahi genituzke. (bis)

Batzutan triste kantatzen degu
beste batzuetan alai.
Gure ustetan izan badegu
hainbat bertute ta dohai
baina bertsoen gurpil zoroak
betiko bidean darrai;
ez ote gera bertso bazkari
ta afariak pizteko gai?
Txapelketako bertsolaria
bakarrik ez det izan nahi. (bis)

Ahalegina maiz izaten da
gogorra bezain labaina.
Saio askotan eman izan det
beste batzuen tamaina
baina oraindik ez zait etorri
merezitako ordaina;
bertsozaleen fauna bitxia
ez al da jabetu baina
bertsolaritza soilik ez dela
Lizaso eta Egaña? (bis)

*A. Mendiluze-E. Goikoetxea*

Gai-emailearen esanetara aritu ziren bi bertsolariak saio guztian, ondoko honetan izan ezik. Librean jarduteko aukera eman zien Kepa Urainek, eta Goikoetxeak aurreko bertsoaldian kantatu zuen gaiaren hariari heldu zion Mendiluzek.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Erreguetan ari nintzela

A. Mendiluze:
Beraz zeuk ere mina daukazu
askok izan degun gisan
beti bertsoa buruan eta
beti plazaren peskizan.
Segi lanean zure bertsoa
nahi duenak goza dezan
bertsolaria zeran edo ez
ez dezala plazak esan!

E. Goikoetxea:
Nik entrenatzen pasatzen ditut
negu eta udazkenak
baina emaitzik ez da iristen
hala esaten dit senak.
Bestei entzuten pasatzen ditut
astebururik gehienak
ta frutua noiz jaso behar du
hazia erein duenak?

A. Mendiluze:
Plaza maitale gaiztoa dela
zeuk ere ondo dakizu

ezin dezuna zugana lotu
berak lotuko zaitu zu;
maite dezazun esperantza hori
eusteko eskatzen dizu
eta espero ez dezunean
adarrak jartzen dizkizu.

E. Goikoetxea: Txapelketetan bota izan det
hainbat neke ta izerdi
baina gerora izaten ditut
arazo aina komeri.
Bertsolarien artean zer den
hau iruditzen zait neri:
zareten gutxi zaudete eta
izan nahi degun gehiegi.

A. Mendiluze: Ni ere sarri egon izan naiz
plazaren zai zu bezala
baina pentsatuz bertsozaleak
nahi duna hauta dezala.
Ez minik hartu pentsatu arren
nahi aina ez zabiltzala;
ez plazak eta ez txapelketak
bertsoak bete zaitzala!

E. Goikoetxea: Lagun artean eta etxean
egiten det eginahala
baina bereiztu behar ditugu
mamia eta azala.
Aitor laguna iruditzen zait
denbora pasatu ahala
martxa honetan berotu ordez
erre egingo gerala.

A. Mendiluze: Eta alperrik esango dizut
har dezazun pazientzi
zain dagoenak errezena du
behin aspertu eta etsi
baina ez egon ordainaren zai
ta daukazunari eutsi!
Nik promesarik ezin det egin
baina ez bertsorik utzi!

E. Goikoetxea: Guk ahalegina eginagatik
beti edo gehienetan
orainaldia gozatzen degu
atzoko oroitzapenetan.
Gure arteko elkarrizketa
utziko degu honetan
berriro elkar ikusi arte
Euskadiko Txapelketan.

**BERMEO (2004-09-13)**

*Bertsolariak: A. Arzallus, E. Arozena,*
*I. Muniategi, A.M. Peñagarikano,*
*I. Elortza eta J. Maia.*

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

*Euskeraz Berbetan* taldeak herriko jaietan urtero eratzen duen jaialdia. Artza pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan. Sarrera dohainik, eta hirurehun eta berrogeita hamar entzule.

*I. Elortza*

Gaia: Fraga

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

Bere postua antza
gura leuke gorde
nahiz ta aurpegia euki
hildako kolore.
Barriz aginterako
hainbeste adore!
Retiratzea hoba
da beretzako be
baina diktadoreak
beti diktadore!

Ikusita bakarrik
apurtzen dau marka:
mandibula hizketan
beti erdi dardarka...
pentsatzen hasten da-ta
berba erdiak falta
aurpegia erdi hori
ta herrenka hanka
sistema usteldu baten
irudia da-ta.

Behin hasi zan agintzen
orduan Madrildik
gero Galizian be
badauka kemenik.
Hainbeste urtean hor
arnas hartu barik
ia ondo hartzen daben
dotore esanik:
betiko deskantsua
desio dautsat nik.

**URNIETA (2004-10-01)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Maia,*
*A. Arzallus eta S. Colina.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Sanmigeletan Jai Batzordeak antolatzen duen ohiko jaialdia. Sarobe antzokian izan zen gaueko hamar eta erdietan. Ehun eta berrogeita hamar entzule.

*A. Arzallus-M. Lujanbio*

Gaia: Jakina da Euskal Herrian bertsolariek fama pixka bat baduzuela. Zuk, Amets, fama hori oso ondo daramazu. Zuk, Maialen, ordea, ezin duzu jasan fama hori.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Elizan sartu ziradenian I / Salbatoreko ermitan

M. Lujanbio:
Dozena begi beti gainean
fama dalakoan truke
txutxu-mutxuka gure inguruan
jo ta fuego dihardute
"Bota bertso bat, bota bertso bat!"
bizkarrean jota fuerte...
gozoak dira txaloak baino
alde iluna badute.

A. Arzallus:
Alde ona da ni oso lasai
bizi naizela Hendaian
jendeak pixkat ezagutzen nau
Urnietan ta Pasaian;
nahiko aldarte onean datoz
nahiko itxura lasaian
eta indarra hortik biltzen dut
triste nabilen garaian.

M. Lujanbio:
Igual Hendaia diskretoa da
luze hara autopista
baina Gipuzkun sufri liteke
sufritu litekeen pixka
nola jendeak ez dun bereizten
pertsona eta artista
baina arazoa ez da bertsoa
baizik eta telebista.

A. Arzallus :
Hara, Maialen, zortzi urteko
ume tropa bat demagun
ta haunditan zer izan nahi duten
galdetu zaiezu egun;
ez dute esango "Ni futbolista"

edo “Nik bertsotan jardun”
esango dute “Nik haundituta
izan nahi nuke ezagun”.

M. Lujanbio: Ume txikiak omen dabiltza
eskolan larri ta estu
nahi luketena famatu izan
ta telebistan aurkeztu;
beren gogoa beren ametsa
ezin dezaket babestu:
famatu denak ezagun denak
intimidaderik ez du.

A. Arzallus: Ez al duzu nahi egoera hori
fama horrekin trukatu?
Ez al duzu nahi jendearekin
aurrez aurre burrukatu?
Begira hasi txapelketan ta
txapelarekin bukatu...
zurekin harro ez daudenikan
ez zaidazula ukatu.

M. Lujanbio: Txapelak eta txapel kontuek
ipintzen gaituzte altu
baina horrek ere bi alde ditu
bi aurpegi ta bi datu:
txapela jantzi nunean nahi nun
hura betirako hartu
biharamunean kasi nahio nun
han barruan ezkutatu.

A. Arzallus: Norberak bere barruan ditu
mila arazo eta su...
inkonformista hutsa zera-ta
alperrikan zabiltza zu;
orain ezagun zarenez gero
horregatik zabiltz kexu
eta izango ez zarenean
gero izan nahiko dezu.

**DONIBANE-LOHIZUNE (2004-10-08)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, S. Colina, J.M.Irazu,*
*A. Egaña, A. Mendiluze, A. Agirreazaldegi,*
*A. Arzallus eta A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Iñaki Etxeleku.

Demoek antolatutako jaialdia epaileak jarri dien isuna ordaintzeko.
Sardina Erretegia beterik, eta giro bikaina bertsotan egiteko. Bertso saioaren aurretik Asisko Urmenetak eta Kike Amonarrizek *blablaldia* eman zuten "Euskara lardaxkatzeko manerak" gaiaren gainean.

*S. Colina-A. Arzallus*

Gaia: Hi, Sustrai, Segiko militantea haiz, eta hi Amets Demoetakoa. Duela zenbait urte mugimendu berean aritu zineten. Egun, Xirika aldizkarian idazten duzue elkarri erantzunez.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ari naizela ari naizela

A. Arzallus: Uste ginuen guk elkarturik
ez ginuela indarrik
aspaldi samar bereizi ginen
batzuk diote "Beharrik"!
Zu denen aurka zabiltz hizketan
beti erretxindu samarrik
zazpi probintzi egin al litezke
bi lagunekin bakarrik?

S. Colina: Probintziatik probintziara
gabiltz etsaien erara
baina pentsatzen jarri ezkero
hartu gentzake patxada;
alper-alperrik ika-miketan
arituko gara, hara:
bi tren desberdin izanagatik
trenbidea bakarra da.

A. Arzallus: Erraiten duzu zuk trenbidea
dugula bat eta bera
zure tixerta[7] lepoan hartu
eta segitu aurrera;
zurea gorri-gorria dugu
nik horirako aukera...
oharkabean marrazten dugu
Espainiako bandera.

---

[7] T-Shirt: alkandora.

S. Colina: Ta Españako bandera denez
guretzako ertzekoa
egin nahi dugu luze zabal bat
gurea ta etxekoa;
neri berdin zait txuri-gorria
zein kolore beltzekoa
Euskal Herri bat egin dezagun
kolore anitzekoa.

A. Arzallus: Euskal Herri bat sortu behar da
horretan biak bat gatoz
gainontzekoan elgarren kontra
ta etsaiak beti uros;
nik bai badiot zuk beti ezetz
ene zein garen maluros!
Lehenik pentsatu behar ginuke
zertan ote garen ados.

S. Colina: Adostasunak bila ditzagun
joateko aurreraka;
orain denbora gure alde dugu
zergatik ari presaka?
Behingoagatik hasi lanean
ahaztuz gaur arteko kaka
azkenaldian epaitegitan
soilik elkartzen gara-ta.

**MENDARO (2004-10-15)**

*Bertsolariak: J. Agirre eta J. Maia.*

In Leike Kultur Elkarteak antolatutako bertso afaria. Aizpea elkartean, berrogeita hamarren bat afaltiar. Lehenengo aldia zen Jon Maia eta Joxe Agirrek elkarrekin kantatzen zutena mahai baten bueltan, eta oso gustura zeudela aitortu zuten biek ala biek. Hasieran elkar zirikatzen aritu ziren, baina ondoren oso bertso hunkigarriak eskaini zizkioten elkarri.

*J. Agirre-J. Maia*

Neurria: zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

J. Agirre: Lagun artean beraz gaur degu
lehendabiziko jarduna
orain arteko denbora zaigu
hauxe egin gabe juna;
nik ongi dakit zuk nahi badezu
aisa zapaltzen nauzuna

baina badaukat itxaropena
lagunduko didazuna.

J. Maia: Hartu ezazu Altzolako ura
eta emaiozu trago
alper-alperrik eztarri hortatik
ez da bertsua igaro
baina gaurkoan egia esan
harrotuko naiz gehiago
zure ustetan zure ondoan
zu laguntzeko banago.

J. Agirre: Lagundu behar zenduke baina
badaukat nahiko nekea
lurrunarekin aguantatutzen
hemen ai naiz jo ta kea;
zure inguruan badago lagun
horko sua eta kea...
alde ederreko gauza izaten da
gure etxeko pakea!

J. Maia: Baina ke honek ez ditu estaltzen
bertsolarien buruak
keagatikan ez dira izango
zuk dauzkazun apuruak;
garai bateko ke ta zigarro
haiek ziran seguruak
ordun kalterik ez al zun eiten
Uztapideren puruak?

J. Agirre: Uztapidekin izan nituen
kantatutzeko tokiak
ordun ere nik ez kantatuko
oso bertso egokiak…
Behar baldin bada hainbeste kalte
nei ez dit egingo kiak
baina nik ere asmatu behar
zeozeren aitzakiak.

J. Maia: Egia da bai adinak beti
aitzakia dula lege
eta puruak gure barruan
badauka nahiko botere.
Nahiz eta jakin puruan kia
ez dala inorren mesede
oraindik nahiko sasoi badezu
erretzen hasteko ere.

J: Agirre: Nik erre gabe pasatua det
aizu orain artekua
orain horretan ez da hasiko
agure xahar jotakua.

Ez al dakizu hori dezula
gorputzaren trabakua?
Zeure burua maite badezu
utzi zazu tabakua.

J. Maia: Puru zahar honek usteltzen digu
berdin kanpo eta barren
eta zeuk ere ondo dakizu
ondorio txarra zein den
baina ezin det purua utzi
nahiz eskatu “Arren, arren...”;
gorputzai hauxe ematen diot
gehiegi maitatzearren.

J. Agirre: Beraz purua erretzeko da
zuk dezun kalidadia
ta hori albora utzitzeko ere
falta abilidadia;
hasitakoak gero utziak
makinatxo bat badia
hor ikusten da Jon Maia honek
daukan debilidadia.

J. Maia: Debilidade haundia daukat
ta ez dizut hori opa;
bizi honekin beste mundura
joan da hainbesteko tropa
baina bizio txikia ere
ezin bazterrera bota:
adornorako ez daukazu zuk
aurrian daukazun kopa.

Tabako eta kopa kontuak utzi eta bertan zegoen jendea tentatzen hasi ziren; berehala hasi ziren, ordea, bata pena eman nahian eta bestea zirikatuz animoak eman nahian.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ari naizela ari naizela

J. Maia: Begira zazu ze pinta duten
denak gazte eta plako
koloria’re txuri samarra
dute denek aukerako;
neska ta mutil mutil ta neska
denetarik bada nahiko
hoietatik zein hartuko dezu
etxera morrontzarako?

J. Agirre: Ahal baldin badet hitz egingo’izut
borondatez ta ondradu:

bakarrik dagon aitona batek
neskame on bat ona du;
plako egoteak bai ote dauka
diozun hainbeste gradu?
Nere ustetan emakumeak
haragi pixkat behar du.

J. Maia: Haragi pixkat baldin badauka
zure gustoa konpleto.
Beraz mutila baino lehenago
emakumia hobeto;
kapritxo dena ezin da izan
dena ez dezu beteko
haragi gutxi ere ez da gutxi
salda ona egiteko.

J. Agirre: Salda onikan ez da egiten
batere haragirik gabe
hori lehenago ez badakizu
orain ikasita hobe
eta aitona gauz danetatik
hemen ez daukazu pobre:
abilidade gutxi dadukat
baina maitasuna sobre.

J. Maia: Egia esan ez zaude gaizki
halako erabakian
egun osoan ere ez zaude
jarrita zure aulkian
baina bakoitza jarri behar da
merezi duen tokian;
zuk beste zerbait ez al dezu nahi
maitasunan aitzakian?

J. Agirre: Hemen ez dago motiborikan
bide txarrean hasteko
hain bizioso txarra naizenik
zuk ez dezu ba usteko?
Garai batean andrea behar nun
maitatu ta jolasteko;
hontaz aurrera laguna behar det
oinetakuak jazteko.

J. Maia: Arrazoi ona bota diguzu
lasai-lasai, bare-bare
behar bezela esplikatzeko
hara ze abilidade!
Eta zapatak jazteko ere
hori dezula mesede
baina kejarik ez dezu izango
erazteko bada ere.

J. Agirre: Erazteko ta jazteko ere
mesedeko da laguna
nola dagutan biguntasuna
ni pikuetara juna;
atze zorrotzak daduzkat baina
tripa dadukat astuna
hau da galanki kostatakua
bat'e balio ez duna.

**IRUÑEA (2004-10-28)**

*Bertsolariak: I. Murua, A.M. Peñagarikano,*
*A. Mendiluze eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Joxema Leitza.

Bertsoaroaren barruan antolatutako jaialdia. Gurutze plazako institutuan, ilunabarreko zortzietan, 160-180 entzule. S. Lizasoren lekuan Aitor Mendiluze agertu zen. Ordubete pasatatxoko saio arina eta atsegina. Gai-emaileak eserita eman zizkien gaiak, eta bertsolariek eserita kantatu zuten une oro, oholtzara igotzean eurek aukeratutako eserlekuetatik. Peña eta Murua elkarren ondoko bi aulkitan eseri ziren, eskolako mahai bana aurrean zutela, eta Egaña eta Mendiluze elkarren ondoko taburete banatan, mahai biribil hankaluze bat aurrean zutela.

*A. Egaña-A. Mendiluze*

Gaia: Zuek pixka bat zaharxeagoak zarete, hamasei-hamazazpi urtekoak; eta Andoni Aitorrekin gustatzen da, baina orain arte ez du une aproposik aurkitu, eta gaur, ustekabean, taberna bateko mahaian topo egin duzue.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Adixkidia Andoaindikan

A. Egaña: Kaixo, Amaia, zu ikusterik
ez nuen asko itxaro.
Holako une goxo baten zai
egon izan naiz luzaro;
ez dakit esan... ez dakit esan
esango dizut ta akabo!
Bueno, aizazu, hau eta zera...
hego-haize ederra dago.

A. Mendiluze: Apunteekin jarrita nengon
mahai batean apartean
ta derrepente "Ai zein datorren!"
ez nau utziko pakean;
"Hau, zera, hori eta bestea"
lau granotxoen kaltean...

Bai hego-haize ederra dabil
bi belarrien artean.

A. Egaña: Belarriena ez det ulertu
hor jarri didazu ginda
ulertu nahian alperrik nabil
buruari eraginda.
Aspalditxoan nik hauxe neukan
zuri aitortu ezinda:
ur pixkaren bat eman zaidazu
nerea bukatu egin da.

A. Mendiluze: Aitortu hitza entzun det eta
ene aibala, aibala!
Konturatu naiz izerdi hori
ez zela oso normala;
gero “Bai, zera esan nahi dizut...”
esan ezinda bezala...
hartu bai ura, uste nun zerbait
eskatuko zenidala.

A. Egaña: Zure karpeta politena da
eskudo eta argazki
klasean berriz izaten dezu
makina bat argi izpi
zure kuadrila jatorra da oso
hori badakizu noski
zure ona, ona degu benetan
ta zu’re ez zaude gaizki.

A. Mendiluze: Zer nahi zenuen lehendik nekien
lasai zaite mutikoa
baina besteen sufrimentua
hain da gauza betikoa;
zure kezka ta zure totela
hauxe nere begikoa
esan didazu garbi ez zerala
oso erromantikoa.

A. Egaña: Erantzun hori ez dut ulertu
horren mutil arloteak
baiezko edo ezezko ziren
zure ezpainek boteak
baina oraintxe pazientziaren
neurriak dauzkat beteak;
tira, neskatxa utzizkidazu
kimikako apunteak!

**BEASAIN (2004-10-29)**

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Sarriegi, S. Lizaso,*
*A.M. Peñagarikano, I. Apalategi eta I. Izagirre.*

Gai-emailea: Irati Goikoetxea.

Ohiturari jarraituz Usurbe antzokian sei bertsolariko saioa izan zen gaueko hamar t'erdietan hasita. Bertako bertso-eskolak Argi-Berri Elkartearen eta Udalaren laguntzarekin antolatutako saioa.

*S. Lizaso-I. Izagirre*

Gaia: Udazkena aurrera doa eta negua ez da urruti. Lizaso legarra eta Iñigo inurria. Iñigo bururik altxa gabe ari da lanean, negurako prestatzen. Lizaso, aldiz, lasai ari da kantuan lurrean luze etzanda.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

I. Izagirre:
Negua dator gainera eta
hotza degu nabarmendu
almazeneko zoko guztiak
egurrez ditut gailendu
nere laneko patxara baina
ezin dezaket mantendu
nahiago nuke bajuxeago
kantatu ahalko bazendu. (bis)

S. Lizaso:
Zer arraiotan garaiz kanpo zu
hain jokera okerrean?
Egutegia serioegi
hartu halabeharrean.
Negua oraindik urruti dago
kantatzen dut indarrean
bajuxeago kantatuko dut
negua datorrenean. (bis)

I. Izagirre:
Baliagarri izango ahal zait
urte osoko eginahala!
Bizkarrekoa min haundikoa dut
ta ez da oso normala
ta bera berriz gitarra hartu
eta kantuan, aibala!
Ezin dezaket orain ukatu
inbidia dizudala. (bis)

S. Lizaso:
Inbidia bai ta aldatu ez
zure geroa akabo!

Ikasi zazu nigandik eta
izan behar hainbat gogo.
Santu Guztiak ez dira heldu
negua urruti dago...
orain gordeak jango dituzu
negua baino lehenago. (bis)

I. Izagirre: Orain badaukat halako ezin bat
agonia ta eztula
urte osoko lanan ondoren
indar gabe ta ahula;
nere txokoa eraikiko dut
goxoa eta mardula
eta laister zeuk aitortu baietz
inbidia didazula! (bis)

S. Lizaso: Ni oso lasai nago oraindik
zu lanean hasi garaiz
eta gerora lortuko dezu
uste dezun hainbat emaitz;
alper izana agian gero
izango da neretzat gaitz
aitortu ez dizut igual egingo
baina inbiriz hilko naiz. (bis)

I. Izagirre: Honek bereai eusten dio ta
gitarraz ekin ta ekin
eta erabat harritua naiz
daukan gaitasunarekin.
Nere miresmen hau zuretzako
saiatuko naiz behinepin
eta zita bat jarriko dizut
nere erreginarekin. (bis)

S. Lizaso: Hutsa litzake ez bazenduke
buruan hainbeste aide
proposamena egitean zu
deskuidatu adiskide;
zuk ez daukazu neri jartzerik
harentzako hainbat bide
nik dakidala morroiak ez du
horrenbeste eskubide. (bis)

I. Izagirre: Egia da bai ni morroia naiz
nago erreginan mende
sozialismo punttu batekin
lanean hasita gaude;
republikano izan gaitezke
dena degu parez pare...
hurrengo urtean egongo gera
bizirik baldin bazaude. (bis)

S. Lizaso: Bizi bagera elkar gintezke
hori're gauza normala.
Elkarrizketa luzatzea da
zuk daukazun eginahala;
gelditu gabe segi ta segi
inurri finak bezala
eta negua helduko zaizu
lanean ari zerala. (bis)

*S. Lizaso- A. Sarriegi*

Hasierako puntua emanda.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: hamalau heriotzena

I. Goikoetxea: Zenbat maitasun dago
zure bihotzean?

S. Lizaso: Hori zail da jakiten
probatu ezean
baina konfiantza dut
bere babesean
indarra nola duen
denbora luzean
erantzuten badaki
aldi bakoitzean.

I. Goikoetxea: Nor da munduan gehien
maitatzen duzuna?

A. Sarriegi: Sekretupekoa da
horren erantzuna
norbaitek daukan arren
nere maitasuna
nahiz eta zu aritu
zer jakin, zer suma
izkutuan gordeko
det nere laguna.

I. Goikotxea: Zer da Euskal Herria
euskararik gabe?

S. Lizaso: Pentsatze hutsarekin
mila atsekabe...
sentipen gogor hori
ez nezake gorde

arraia urik gabe
egoeran pare
Euskadi euskara gabe
ez degu ezer'e.

I. Goikoetxea: Irakurgai daukagu
Goierriko hitza

A. Sarriegi: nahiago nun lehenago
atera balitza
benetan alaitu du
hemengo bizitza
euskeraz idatzia
ta euskaraz mintza
Hitza irtetea zen
lehenengo baldintza.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

I. Goikoetxea: Azal gogorra al du
zure aurpegiak?

S. Lizaso: Hori aspalditikan
uste du jendiak
baina sarri askotan
dira komeriak...
asko engainatzen du
nere irudiak.

I. Goikoetxea: Aurten mahatsa biltzen
aritu al zera?

A. Sarriegi: Ni sofan etzaten naiz
besteon antzera.
Zukua egitean
jausiz goitik behera
agian probatzera
ingurauko gera.

I. Goikoetxea: Zuk zergatik moztuko
zenuke bizarra?

S. Lizaso: Hauxe da sekretua
kontatu beharra;
hortarako aski det
kapritxo bakarra
berriz irtetzeko're

hartzeko indarra.

I Goikotxea: Zuk luzatzen zergatik
utziko zenuke?

A. Sarriegi: Utziko banu ez da
ez zerbaiten truke;
moztuta pasa ditut
makina bat urte
eta gero're berdin
segitu nahi nuke.

*A. Egaña*

Gaia: Niri ere askotan esan zidaten Xabier Letek abesten duen hura: “Handitzen zarenean ikusiko duzu ixilik egoteak zenbat balio dun.” Hiri zenbat balio dik?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Kantauri bera sarri da bare
irriparrez irriparrez.
Hurrena berriz orroa dagi
bere olatu haserrez.
Ixiltasunak ze balio dun
zin da epaitu aurrez;
une batzutan urrea eta
beste batzutan ezer ez.

Isiltasunak egin gaitzake
gailurtu edo amildu
sarri hitzekin pentsamentu ta
sentimenak borobildu;
hurrena berriz geu entzutean
geure barrenera bildu...
benetan zaila dugu jakiten
noiz hitz egin, noiz isildu.

Irati, zure galdera horren
erantzunik ez espero;
bi ala biek balio dute
eta hori garbi bego.
Jainko ginake une egokia
beti asmatu ezkero;
orain ixildu egin behar dut
baina hitz egin ta gero.

**ATAUN (2004-11-12)**

*Bertsolariak: J. Agirre, A.M Peñagarikano,*
*A. Munduate, A. Egaña, E. Goikoetxea*
*B. eta I. Urdangarin.*

Gai-jartzailea: Talde bat.
Gai-emailea: Jon Aizpurua.

San Martin jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Herriko antzokian, gaueko hamarretan, berrehun eta hogeita hamar entzule. Baleko saioa, oro har. Joxe Agirre ahotsik gabe geratu zen hasierako agurra kantatzen hasita, eta ez zuen batere bertsorik kantatu, oholtzan egon bazen ere.

*A. Munduate-E. Goikoetxea*

Gaia: Zuen ikaskide bat jipoitu egiten dute. Aitzolek salatu egin nahi du; Ekaitzek ez, beldurrez.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

A. Munduate:

Ubeldurikan eskumuturrak
ubeldurikan bularrak...
zergatik beti menperatzen du
lehengo ohitura zaharrak?
Zuk zeuk isilik egon nahi dezu
a ze jarrera koldarrak!
Handiena ere etzan dezake
txiki guztion indarrak.

E. Goikoetxea:

Egoera latz bihurtu zaigu
azken urtean barrena
jakin badakit gogorra dela
klasean gertatzen dena;
bihotz barruan gorde nahi nuke
jipoiaren sentipena
nere larruan ez det bizi nahi
Jokinek bizi duena.

A. Munduate:

Kontu hau ez da txantxetakoa
kontu hau ez degu broma
Hondarrabian pasatakoak
eduki du bere sona;
isiltasuna horrelakotan
ez degu izaten ona
ta bihar zuri gertako zaizu
gaur honi pasa zaiona.

E. Goikoetxea:

Jokin laguna beti ibiltzen da
zintzo-zintzo ta ondradu

diferenteak geran guztiok
gurutze bat daramagu;
horren ausartak ez geran batzuk
beste aukera bat daukagu;
nola hitz egin ez dakienak
isiltzen jakin behar du.

A. Munduate: Oihua gora jaso ezkero
gehiago gera seguru;
mutiko horrek jaso duenak
ez du hanka ta ez buru.
Nere laguna babestuko det
hori det nere helburu
kolpeak minik ez du ematen
denok jasotzen badugu.

E. Goikoetxea: Hainbeste jolas hainbeste irri
horrenbeste oroitzapen
kolpe batekin adiskideai
denak dizkiote eten.
Ez naiz ausartzen zure hitzari
nere ahotsa ematen
errua denok daukagunean
inork ez baitu izaten.

**AMASA-VILLABONA (2004-11-13)**

San Martin jaietan Amasako frontoian urtero egiten den jaialdia. Urteroko moduan sekulako hotza egiten zuen, eta jendea zutik egon zen eserita baino gehiago. Denera berrehun entzule inguru.

Bertsolariak: A. Agirre, I. Zubeldia, S. Colina
eta A.M. Peñagarikano.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

*A. Agirre- S. Colina*

Gaia: Sustrai ama eta Amaia alaba. Alaba duela urte bete ezkondu zen. Gaur, ordea, maletak hartu eta amaren etxera dator.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena

S. Colina: Alaba hartu dizut
nahigabetu planta
atarian uztea

baizik ez zait falta
senarra hartu eta
etxetikan hanka
baina bueltatu zara
azkar ta presaka
gizonezko guztiak
berdinak dira-ta.

A. Agirre: Etxetik joan nintzen
pozik ta galako
ta urtebete pasa
uste bezin bapo
arrazoiak utzi nahi
ditut gerorako
baina nolaz natorren
aitortu beharko
eraztunak diztira
galdu duelako.

S. Colina: Nik ez nuen espero
hemen azaltzea
baina nahi dut atea
kolpez zabaltzea
normala eraztunak
dizdira galtzea
nik esan nizun izan
zeikela trantzea
bertsolari batekin
enamoratzea.

A. Agirre: Nahiz ta hasi genuen
harreman sakona
nahiz eta bera izan
nere zoriona
ontzat hartu behar det
ama zure broma
luzaroan nahi nuke
zuk daukazun sona
hark kanpon soilik du
bai aurpegi ona.

S. Colina: Nahiz bertsotan bazuen
maila ta nibela
nunbait ez da suertatu
senargai fidela
horrexegatik zatoz
joan zinen bezela
nahiz eta bueltatzea
ez espero bela
jakin ezazu zure
etxean zaudela.

A. Agirre: Zugana hurbildu naiz
damu eta guzi
ta zure aholkuei
nahi nieke eutsi
ospea eta neskak
hark ez dauzka gutxi
bide zuzena zein dan
arren erakutsi
berriro hanka sartzen
ez zaidazu utzi.

S. Colina: Aspaldian etxetik
aldegin ondoren
urtebete pasata
berriz zaude hemen
nik tratatuko zaitut
ahalik goxoen
jakin ezazu aholku
hoberena zein den
hurrengoan pentsatu
ezkondu baino lehen.

A. Agirre: Beraz zu aitarekin
ere zaude berdin
gizonezkoek noiznahi
ohi dute hutsegin
moldatuko ote naiz
ni gizon batekin
bidea nondik doan
nahiko nuke jakin
eraztuna katea
bihurtu ez dadin.

S. Colina: Buruari ez zaiozu
hainbeste eragin
segitu zazu arren
gazte ta pinpirin
maitasun abenturei
itsu-itsun ekin
eta ezin badezu
gizonezkoekin
ahalegindu zaitea
emakumeekin.

*A. Agirre*

Gaia: Beti izan zara lagunzalea. Urteak aurrera joan ahala, ordea, lagunak hiltzen joan zaizkizu. Atzo hil zitzaizun lagun taldeko azkena. Gaur bere hiletetan zaude.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

Ehun urtetara iristea zen
helburu edota xede
baina patua zein zikoitza den
egia da alafede.
Azken laguna herio horrek
gaur egin duenez bere
bizirik nago baina zati bat
lurperatu det nik ere.

Nun ote daukat lehengo indarra
bizi nahia ta kemena?
Azken laguna agurtu berri
ni izango naiz hurrena...
bildur naiz baina ez det urruti
betirako atsedena;
bakardadea bihurtuko da
nere lagunik onena.

Zerua gertu izanagatik
joan zirenak aparte
sentitzen ditut ta bizitzeko
hori degu nere kalte;
indarberrituz itxaropentsu
segi nahi nuke jo ta ke
oroitzapenek bizi nazaten
azken arnasera arte.

**DONOSTIA (2004-11-19)**

Antigua auzoko Lugaritz kultur etxean urtero antolatzen duten jaialdia. Bilintx zenaren irudia atzean zutela egin zuten saioa bertsolariek. Aretoa entzulez itxuratuta, oso giro goxoa eta gertukoa lortu zuten. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen laguntzarekin antolatzen den saioa da besteak beste.

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Agirre,*
*J. Martin eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

*A. Egaña-A. Agirre-J. Martin-A. Mendiluze*

Gaia: Zuek lau animalia zarete: txakurra, katua, xagua, txoria. Zuek jakingo duzue zein den bakoitza. Zer moduz konpontzen zarete?

Neurria: seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

A. Agirre: Ni neu katu zolia
ez da berriketa
nunahi nabil xirikan
eta ezin neka
azkazalak zorroztu
berri dauzkat eta. (bis)

A. Mendiluze: Konturatu al zera
zakurra naizela?
Ta nerekin daukazu
arrisku itzela
azkazalak dauzkazu
nik hortzak bezela. (bis)

A. Egaña: Ta nere desgrazia
oraintsu hasten da
hortxe ibiltzen bainaiz
ni ezin irtenda
ordenagailu bati
lotu ninduten-da. (bis)

J. Martin: Katu eta txakurra
bikote itzela
xagua're hor dago
galduta bezela...
neri iruditzen zait
txoria naizela. (bis)

A. Agirre: Nik biak jango ditut
ondo badakizu
ta atzetik zerorrek
ni jaten banauzu
digestioa egiten
kosta behar zaizu. (bis)

A. Mendiluze: Hainbeste digestio
hainbeste histori...
ez zaiozu sinistu
katu, edonori
txakurrek dena jaten
duteneko hori. (bis)

A. Egaña: Ba xagu gizajoa
ez dago hain lasai

aurreko pantaila hortan
aspaldi hontan ai!
Gaztaik ez dute jartzen
eta sagarrak bai. (bis)

J. Martin: Jan nahi nauten kontuak
neri zenbat grazi!
Hemen hiruretatik
dakidala kasi
inorrek ez du hegan
egiten ikasi. (bis)

A. Agirre: Nahiz ta mintzatu zeran
txori oso errez
kaiolan edo libre
hautatu mesedez
nik erabakitzeko
jan edota jan ez. (bis)

A. Mendiluze: Baina ze txori mota
ote dago hemen?
Inork daki tarina
edo okila den?
Xagu inoiz kantari
entzun al zenuen? (bis)

A. Egaña: Nik nagusia daukat
maiz aldamenean
ehun metro egin nitun
aidez zuzenean
pantaila bapatean
itzali zenean. (bis)

J. Martin: Animaliei atera
nahi aina etekin
nahiko nahastuta nabil
ordutegiekin
sarri nahasten naute
saguzar batekin. (bis)

A. Agirre: Begirada joan zait
xaguan atzera.
Sinistu nahi det baina
posible ote da?
bi metroko isatsa
disko gogorrera. (bis)

A. Mendiluze: Ni nagusiarekin
nago amorruan
horri antzeman diot
lehenengo orruan:
oilar bat jarri dute

kaiola barruan. (bis)

A. Egaña: Katua ote dabil
xaguakin bero?
Nik huts egiterikan
ez zazu espero
azpiko bola goxo
igurtzi ezkero. (bis)

J. Martin: Xaguari beiratu
diot berehala:
bi metroko buztana
omen du, aibala!
Horrek esan nahiko du
metrosexuala. (bis)

A. Agirre: Barka xagua zabiltz
bastante aldrebes
bola ikutzen ez naiz
hasiko hain errez
birusa sartu'iozu
baina katuai ez. (bis)

A. Mendiluze: Uste det neuk ipini
behar det bakea
hobe belarrondoan
denei ematea
eta hauek utzi ta
pentsutik jatea. (bis)

A. Egaña: Zerbait kontatzea're
nunbait komeni zan
denok kontatu degu
hitzekoak izan...
txori kantatu zerbait
despedida gisan. (bis)

J. Martin: Kantatu beharko dut
agurra propio;
berak eskatu dit ta
ze erremedio!
Hau bukatzera doa
guztiei apio. (bis)

**ORIO (2004-12-06)**

*Bertsolariak: X. Silveira, A. Egaña, J. M. Irazu,*
*I. Gurrutxaga, M. Lujanbio eta E. Eizagirre.*

Gai-emailea: Iñaki Iturain.

*"Luberri"* ekimenaren barruan antolatutako jaialdia izan zen kiroldegian, gaueko hamar eta erdietan. Azken urteetan bertso saioa egiteko ohitura galdu duten herrietan saioak berreskuratzea ez ezik asko dabiltzan eta gutxi dabiltzan bertsolariak elkarrekin uztartzea da Luberriren helburua. Saio berezia izan zen, entzuleak ere parte hartu behar zuen ariketak tarteko.

*X. Silveira-A. Egaña*

Gaia: Japon aldean gazte batzuek elkartu eta kotxe batean suizidatu omen ziren. Internetetik adostu zuten hori dena. Gaur, Andoni, Interneten sartu da, eta Silveiraren gonbidapena jaso du bere buruaz beste egiteko.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

A. Egaña: Internet bidez mintzo natzaizu
gu ez gaude parez pare
kontseju edo hitz labur batzuk
esango ditut hala're.
Zure helburua pentsatu dezu
inungo dudarik gabe;
zeure burua hil nahi al dezu?
Burutik jota al zaude?

X. Silveira: Burutik jota ote nagoen?
Erantzuna liteke, bai;
zeren neretzat astegun eta
igande beti dira jai;
denbora gehiagoan ez nuke
modu honetan bizi nahi
nere bizitza tabernan galduz
nere heriotzaren zai.

A. Egaña: Burua berez nahastu al zaizu?
Zer sartu dezu zainetan?
Ideia onik ez det sumatzen
zure buru-mingainetan;
eutsi Xabier! Ezetz aurkitu
berriz heriotz minetan
egun erdi bat pasa ezkero
Lesakan San Ferminetan!

X. Silveira: Sanferminak festa onak dira
San Fermin horren lekuko

horrek ordea ez du daukadan
iritzia aldatuko;
zatoz nerekin suizidatzera
ez lehendik egin uko
apustu ongi irtenez gero
ez zarela damutuko.

A. Egaña: Dirudienez zeure bidea
tinko dezu aukeratu
baina laguna naizen aldetik
nolatan hor minberatu?
Beste mundurik ez da Silveira
beraz honetan geratu
ta joatea pentsatuz gero
lagunik ez endredatu.

X. Silveira: Beste mundura aldegin nahian
daramazkit ehun gaba
lo egin gabe ordenagailutik
etxepeko tabernara;
hil gaitezen igual beste mundu
bat ez da baina igual bada
ta ez badago eskutik heldu
eta itzuliko gara.

*M. Lujanbio-I. Gurrutxaga*

Gaia: Senegaldik Oriora etorri eta hemengo bapore batean arrantzan hasitakoa zara Maialen. Iñaki, berriz, arrantzan aspalditik dabilena da. Gaur, arrantzan ari zaretela, zaintza edo guardia tokatu zaizue, eta hizketan ari zarete. Itsasoa bare eta zerua oskarbi daude.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

M. Lujanbio: Antzeko dira gure izerdi
neke eta ahaleginak
antzeko dira sare haundiei
tiraka gure ekinak;
nik azal beltza, zu azal zuri
horra kolore jakinak
itsasoan ez mugarik baina
hemen ere desberdinak.

I. Gurrutxaga: Denbora asko pasa ondoren
lehenbiziko arraien zai
guardia gero tokatu zaigu
haseran ez nengon lasai;
kolpe batean begiratua
diezu bion azalai
desberdintzaile ditugu mugak

baina batzaile ere bai.

M. Lujanbio: Zerk batzen gaitu? Zer da berdina?
Zerk ekarri nau honaino?
Beti ihesi, beti eskapo
berdin oskarbi nahiz laino;
sare haundia botatzen da ta
arraia ekarri goraino
nik arraiaren antza gehio det
arrantzaleana baino.

I. Gurrutxaga: Nunbait arraian antza omen du
lehenengo begiratura
baina horregatik ez naiz kezkatzen
segi lanaren kontura;
Euskal Herrian ta Senegalen
itsasoa abentura
muga haundiak izanagatik
olatua olatu da.

M. Lujanbio: Olatu batek eraman nindun
nere herritikan kanpo
eta Orion geratzerikan
ez nuen uste egundo.
Nahiz ta jendeak erdi babestu
nahiz beiratu erdi ondo
senegaldar bat sekula ez da
oriotarra izango.

I. Gurrutxaga: Baina hala're ez zaitez damu
hartu zenuen aukeraz
bizitza han ta bizitza hemen
ez da ateratzen erraz;
hartu sarea ta tira gora
hori da onena beraz
arrainak ez du entenditutzen
senegalez ta euskeraz.

**BILBO (2004-12-19)**

Bizkaiko Txapelketa 2004

*I. Elortza*

Txapeldunaren agurra

Neurria: hamaseiko handia
Doinua: Haizea dator ifarraldetik II

Zer dala eta igon ete da
Bizkaian bertso nibela?
Zein joan izan da, zein joaten da
ikasgelaz ikasgela?
Zeinek atontzen dauskuz saioak
komeni jakun bezela?
Txapelketan be nok ipini daust
oholtza eta kartela?
Zein Txiplas, Peru edo Txapina
baino hobea zan kartzela?
Nortzuk zarie zale fijoen
hirurehuneko tropela?
Topikoetan topikoena
badakit izan leikela
baina gaur kendu egin behar dot
zuen aurrean txapela.

# BAT-BATEKO SARIKETAK

**GETXO (2004-03-13)**

## III. ABRA SARIA

*Bertsolariak: I. Apalategi, A. Lizarralde,*
*E. Zelaia, X. Paia, J. Labaien eta B. Lizaso.*

Gai-emailea: Josu Esnaola.

Argortako Bertsolari Eskolak Getxoko Udalaren babesean antolatzen duen sariketa. Andres Isasi musika eskolan, arratsaldeko zazpietan.

*X. Paia*

Txapeldunaren agurra

Neurria: bederatzi puntukoa
Doinua: Munduko ilunabarra

Tira sinetsi beharko
ez dudala egin txarto
besteak bere edarto
inoiz be ez neurritik kanpo.
Alde onak baina akatsak ere
potoa ez zan faltako
zer zuzendua badugu hemen
eta gainera biharko.
Pankarta egin duzue eta
zuei ere eskerrik asko.
Baina hauxe da ta hauxe ere
Andoni[8] hau zuretzako
etxe bereko bigarrenean
sinetsi zenuelako. (bis)

[8] Andoni Iriondo, Algortako Bertsolari Eskolako sortzaileetako bat. -----------ean hil zen.

**AZPEITIA (2004-03-26)**

## ERNIARRAITZ SARIKETA

FINALA

*Bertsolariak: J. Uranga, I. Manzisidor "Mantxi",*
*F. Zubia, N. Gabilondo, L. Ostolaza*
*eta B. Lizaso.*

Gai-emailea: Dorleta Odriozola.

Erniarraitz Bertsozael Elkarteak antolatutako sariketa. Soreazu antzokian, gaueko hamarretan.

*J. Uranga-B. Lizaso*

Gaia: Biok lagunak zarete. Modan dagoela-eta asto jana antolatu duzue taldean jateko. Jokinena da astoa, baina biok joan zarete hiltegira. Beñati, ordea, sekulako pena eman dio astoak, eta horren ordez legatza eskatu du.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Arratsalde on lehendabizitik

J. Uranga:
Lagun taldean antolatuta
afari bat informala
modan dago-ta asto jana da
neretzat gauza normala.
Zu ikusita iruditzen zait
astoa zu zeu zerala
zure legatza ere norbaitek
hil du astoa bezala. (bis)

B. Lizaso:
Arrazoi dezu legatza hil dute
asto zaharra bezela
baina kuadrilan dan jokaera
iruditu zait krudela.
Ez al dakizu, Jokin, astoa
gaur ia galdua dela?
Ta gero beti esango dezu
ekologista zarela. (bis)

J. Uranga:
Ekologistak Beñat modatik
paseak dira gaur egun.
Amonak zion "Asto honekin
ze arazoa daukagun!";
ostikoz jota aidean bota
gintuen hiru-lau lagun...
bizirik ez zun ezer onikan
hilda probatu dezagun. (bis)

B. Lizaso: Bizirik ez du bat'e balio
ai zer nolako kaltea!
Zuek ostikoz jo zintuzteten
ai, zer nolako suertea!
Ez zazu uste nik zuen gisa
asto zahar hau jatea
nik askoz ere nahiago nuen
baba jana egitea. (bis)

J. Uranga: Astoa ikusi eta laguna
zaude estu eta larri
zu bezelako mutil aluak
ezagutu ditut sarri;
begiak jarri dizkiozu baba
eta legatz kaxkar horri...
lagunartea errespetatu
ta bestela ez etorri. (bis)

B. Lizaso: Gaur etorri naiz ta txulo asko
hori ez al da ezagun?
Eta mesedez asto kontuan
gehiago ez zazu jardun;
nei sekulako pena ematen dit
hori jakin zazu lagun...
Aste Santuak badatoz eta
bijili egin dezagun. (bis)

*Mantxi-F. Zubia*

Gaia: Zu, Mantxi, nagusia zara, eta lanetik irten beharra izan duzu. Itzultzean Felix langilea agindu diozun lana egin beharrean ordenagailuaren aurrean harrapatu duzu gaurko saiorako agurra prestatzen.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Nere senarrarekin I

Mantxi: Lanerako utziak
horrenbeste mezu
ta zuk alboan laga
mila konpromezu...
Agurra preparatzen
hainbeste lan, aizu
txapela eskeintzeko
earra zaude zu! (bis)

F. Zubia: Mantxi dedan izena
nahi nuke mantendu
ta agurra iten'e
bai atarramentu...
Laguntza eman eta

azkartxo zuzendu;
aizu, egurrarekin
zerrek rimatzen du? (bis)

Mantxi: Pentsatzen det zerala
bastante pailazo
bertso bat egin nahian
pantailai hortxe so;
egurrak rima asko
badauzka akaso
segun zer eingo dezun
eman edo jaso. (bis)

F. Zubia: Nik dabilzkidan martxak
ez dira txukunak
jaso edo banatu
nolako jardunak...
Esplikatu behar dit
oraintxe lagunak
ematea zer degun
inoiz jo ez dunak. (bis)

Mantxi: Esplikatuko dizut
eta elegante:
ordenadore aurrean
zabiltza jo ta ke...
ordu hori ez dizut
ordainduko bat'e
saioko dietarekin
konformatu zaite! (bis)

F. Zubia: Zurekin aspertu naiz
ez al da nabari?
Zigorra ote degu
langileen sari?
Txapela eskeiniko'iot
nagusi jaunari
nere odola edanez
bizitzen danari. (bis)

**XII. BBK SARIKETA**
*Finala*
**BILBO (2004-03-27)**

**IPAR URIBE.**
Txikiak: Vidal, O. Ibarluzea eta J. Igeregi.
Handiak: M. Ibarluzea, I. Gangoiti eta X. Paya.

**ARRATIA.**
Txikiak: M. Sagarna. J. Zienkiewic eta J. Agirre.
Handiak: I. Iturrioz, G. Itxaurbe eta J. Olibares.

Kafe Antzokian, arratsaldeko zazpietan. Giro aparta, bi taldeen jarraitzaileek leporaino bete zuten aretoa eta biziki animatu zuten beren taldea.

**Handien maila**

*M. Ibarluzea-I. Iturrioz*

Gaia: Zuek biok etxeginak zarete. Mirenek 50 urte dauzka eta Iñakik 22. Motibazio desberdinak dituzue.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Balentin Berriotxoarena

M. Ibarluzea:
Ala, Iñaki, mobidu zaite
ez gara etorten musu truk!
Zure jarrera ez zait neroni
iruditzen bape arrunt
lasai-lasai ta tenpleu egiten
dozu gurekin lan bat zuk
nik adreiluek altxetan dodaz
ta zeuk barriz beste batzuk. (bis)

I. Iturrioz:
Behar eiten be hasi behar neban
nik halango egun baten
ta adreilu altxatzen jarri nauzu zuk
elegante lerden-lerden;
peloteagaz konparaketa
egin beharko da hemen:
nik partidue irabazi dot
zu aspaldi pasatu zinen. (bis)

M. Ibarluzea:
Nik partidue galdu ein naben
baina lan egin ederto;
adreilu danak altxetan dodaz
nire urteak tarteko

baina zeu ere mobidu zaite
nagusiaren menpeko
andamioa ez da ganetik
Arrati begituteko! (bis)

I. Iturrioz: Arratiaren kontuarekin
bota daustazu kolpea
baina oraindik barrua daukat
adoreagaz betea
eta niretzat beti izango da
hor zuk daukazun metea
zure adinan kopuru hori
aldamiora altxatea. (bis)

M. Ibarluzea: Alaba hezi lanean eta
gu danak harritu markaz.
Barkatu baina nahiko harroa
iruditzen zaiataz
nere geroan pentsatu eta
negarrak urtetan jataz:
jubilazino txarra euko dot
zulango langileakaz. (bis)

I. Iturrioz: Jubilazino txarra dinozu
hori gauza nabarmena
besteen lepora bota gurean
ez dakit zenbat problema
eta lan hori hemen istea
ez al dogu Miren pena?
Behar gitxi ta ondo eitea
hori nire gaurko lema. (bis)

*X. Paia*

Gaia: Duela urtebete atxilotu zizuten alaba. Ordutik, bizimodua erabat aldatu zaizu.

Neurria: berezia
Doinua: Txikitatikan edukia dut

Nire alabaren bizitzan inoiz
ez da faltatu akatsik
eta jakina ez da faltatu
bihotz barnean arantzik.
Ziega barrura sartu zidaten
ez al daukate bihotzik?
Nik ez dut nahi zorigaitzik
soilik nire alaba baizik;
kendu didate bakarrik nago
sentimentutan biluzik
ziega zuloa beteta dago

ta nire bihotza hutsik. (bis)

Ez dakit utzi behar didaten
hor barruan betirako
baina sekula irtengo dala
nolabait uste beharko.
Dagoeneko zita jarria
didatenez bai biharko
ikusi nahi dut edarto
kartzela hortatik kanpo.
Kalte handia egin zenuen
eta hil pertsona franko
baina lagundu egingo dizut
zure aita naizelako. (bis)

## XXXIII. OSINALDE SARIA

*Finala*

## GABIRIA (2004-04-17).

*Bertsolariak: O. Bartra, M. Artetxe, B. Lizaso,*
*A. Aranburu, I. Urdangarin eta J.A. Aranburu.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde Elkartean jokatzen da urtero sariketa hau. Final honetan nork kantatuko zuen erabakitzeko beste hiru sari jokatu ziren aurreko asteetan: Argi Berri saria (Ordizia), Aztiri saria (Legazpi) eta Axari saria (Idiazabal).

*B. Lizaso-O. Bartra*

Gaia: Zu, Beñat, bertsolaria zara. Zure semea bertso-eskolan hasi zen baina ez zaude gustura bere bertsokerarekin. Oihana irakaslearengana zatoz.

Neurria: zortziko handia
Doinua:

B. Lizaso: Bertso eskolan apuntatzeko
eduki zuen aukera
astero-astero hor joaten da
eta gustora gainera
baina kantuan gaizki ari da
dena beretzat kaltera;

bera ikasle txarra da edo
zu irakasle txarra zera.

O. Bartra: Ni irakasle txarra naizela
dino berehalakoan;
semearekin ez da gustora
eta nigana atoan.
exigentegi portatzen zaude
semearekin gaurkoan:
lehen egunetik ezin da hasi
bederatzi puntukoan.

B. Lizaso: Bederatziko txikian hasi
hor jarri ohi du arreta;
pozik joaten da baina etxera
itzuli ohi da erreta
eta pixka bat erakusteko
zuk hartu ezazu beta
zortziko handia eta txikia
ez ditu bereizten eta.

O. Bartra: Ez dituela honek bereizten
ez txiki ta ez nagusi
eta hain txarto ibili ohi da
bere poto eta guzi
ta bertsokera ere daukanez
azkenaldian itsusi
mesedez berriz hark ez dezala
Hitzetik Hortzera ikusi.

B. Lizaso: Beraz Hitzetik Hortzera hori
ikustea du kalteko...
Barkatu baina gauza txiki bat
badet zuri esateko:
arreta osoa jarri ezazu
nere umeak ikasteko
maila pittin bat izan dezala
Osinaldera joateko.

O. Bartra: Horren helburu horren goikoak
hobe albo baten laga
zure semeak bertsotarako
badauka nahikoa traba
ta semearen arazoa gaur
maistrarena baldin bada
zure semea eraman zazu
Lizason bertso-eskolara.

*O. Bartra*

Gaia: Txora-txora eginda zaude batekin baina ez zara ausartzen ezer esatera. Gaur bera eskatu dizu muxu bat.

Neurria: hamarreko handia
Doinua:

Ez dut eduki deus esateko
beharrezko zen indarrik
ez dut aurkitu zure begitan
sekula nire iparrik
ez dut ikusi niri begira
egindako irriparrik
orain muxu bat eman didazu
ez dut besteren beharrik
mundu honetan orain baikaude
zu eta biok bakarrik. (bis)

Gaur niregana etorri zara
a ze sorpresa galanta
poztasuna ta emozioa
barruan ezin aguanta
niretzat behintzat gaurkoa izan da
gainditu ezinezko marka
zurekin nago eta besterik
inguruan ez zait falta
nire gau luze danen ametsa
egi bilakatu da-ta. (bis)

## BERRIATUA (2004-07-02)

## BERRITXU SARIA

*Bertsolariak: L. Ibarluzea, O. Azula,*
*I. Mendiguren, J. Martinez, B. Gaztelumendi,*
*P. Iriart, J. Agirre eta J. Soto.*

Gai-emailea: Imanol Aldazabal.

*B. Gaztelumendi*

Hasierako puntua emanda.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

| | |
|---|---|
| I. Aldazabal: | Gaur egun tamainoak<br>ez ei du inporta |
| B. Gaztelumendi: | baino hala're badet<br>nahikua borroka<br>txikiontzako dena<br>delako erronka<br>gaurko mundu hau gaizki<br>jarrita dago-ta. |

*B. Gaztelumendi*

Hitza gai moduan emanda.

Hitza: Kalabaza

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Lurrarenpean sar nindaiteke I

Kalabaza da gaur eguneko
mutiko gehienen etsai
neskarengana ezin da joan
nahiko lukeen bezain lasai
nik kalabazak jasotzen ditut
nahiz eta ni ez egon zai
horrexegatik zuen aurrean
ez nago batere alai

zenbat ditudan ez dakit baina
zenbat nahiko nituzkeen bai. (bis)

*B. Gaztelumendi*

Gaia: Urte osoan Tourrerako prestatzen aritu zara ilusio handiz. Gaur antolakuntza taldeak antidopin frogak ez dituzula gainditu jakinarazi dizu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Zure eskaerak egia esan

Nahiz susmopean eduki duten
ziklismoa gehienetan
kontrola egin aurretik behintzat
ni ez nengoen kezketan
uste bainuen legez ibili
nintzela aurrez benetan.
Parte hartzerik ez daukat orain
hargatik nago penetan;
odola soilik ez dute kentzen
klinika zikin hoietan. (bis)

Beste kontrol beharko diet
berehalaxe eskatu
nere izen ona ezin delako
egun batean ukatu.
Martxa honetan kirol honetan
egongo dira lau katu
baino ez daukat etsitzerikan
indarrak nahi ditut batu
orain atzean gelditu arren
etapa ez da bukatu. (bis)

## ZARAUTZ (2004-09-03)

### Lizardi saria

*Bertsolariak: I. Zubeldia, J.A. Aranburu,*
*B. Lizaso, A. Rezola, M. Artetxe, A. Oiartzabal,*
*O. Bartra eta I. Urdangarin.*

Gai-emailea: Arantza Laskibar.

Non, zer ordutan.... Urtero bezala entzule asko eta giro beroa. Basarri bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren ekitaldiaren hondarrean.

*M. Artetxe-A. Oiartzabal*

Gaia: Biok kartzelan zaudete. Zu, Miren, Arkaitzen agindua bete zenuelako. Arkaitz, Paraguayn erre zen merkataritza zentro hartako jabea zara, eta ate guztiak ixteko agindua eman zenion Mireni.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait I

M. Artetxe:
Agindua hala eman zenidan
"Ate guzti hoiek itxi!"
ta nik langile fina bezala
bete nuen bizi-bizi.
Bukaeran batzuk gelditu ziren
nik egin nuen lehenbizi;
zuk hiltzaile bat egin ninduzun
ta geroztik ez naiz bizi.

A. Oiartzabal:
Baina halere alda zaitezen
zuk badaukazu tartea
nahiz nere kulpaz izango duzun
kondena bete-betea.
Hau ondo asko etortzen zaizu
ene langile maitea
jakin dezazun gogorra dela
nagusia izatea.

M. Artetxe:
Gogorra dela esaten duzu
baina ez zazula uste
nik nere rola zurearekin
trukatu egin nahi nuke.
Zu ondo zaude eta nik berriz
berrogeita hamabi urte...

Zuk kartzelan ez zuk infernuan
usteldu behar zenuke!

A. Oiartzabal: Baina infernuan gaude jadanik
barroteekin konpleto
beraz isilik egote hori
zenuke askoz hobeto.
Esaldi bakar bat pentsatzen det
kontzientzia tarteko:
hamar pertsona hil genituen
beste berrehun salbatzeko.

M. Artetxe: Ez, zuk guztiak salbatzeari
egin baitzenion uko;
gu denok izan ginen han bertan
sarraskiaren lekuko.
Nahiz eta ez den han gertatua
sekula ere aldatuko
Jainkoak inoiz ez dakit baina
nik ez dizut barkatuko.

A. Oiartzabal: Kontuak kontu karga ederra
bioi emana digute:
kanpoan bizi guztia preso
barruan hamaika urte...
Kontuak kontu ikasia dut
eta ez zazula uste:
hurrengo txandan erabakia
zuri emango nizuke.

*M. Artetxe*

Gaia: Elkarrizketa.

Neurria: hamabiko handia
Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

Beti hizketan, beti hizketan
ta ez dute ezer esaten
ez gu bizitzen lasai utzi ta
ez pakerikan ematen.
Irtenbidea noiz izango da
gaur, bihar edota aurten?
Egia da bai nola ezin den
egoera hontatik irten
gure buruan hor daudelako
horrenbeste astakirten
bi monologok ez dute inoiz
elkarrizketa egiten.

Horrenbeste hitz ezertarako
hainbeste gezur almazen...
garai batean egia ere
oso gauza ederra zen
baina azkenik Euskal Herrian
ez arima eta ez sen
ez dakit nola denok batera
barku berean goazen;
elkarrizketa eskatzen dugu
denok gogor eta ozen
baina hizketan hasi aurretik
entzuten hasi gaitezen.

## XENPELAR SARIA

*Finala*

## ERRENTERIA (2004-12-08)

*Bertsolariak: I. Urdangarin, B. Lizaso,*
*I. Apalategi, O. Bartra, J. Zelaieta eta X. Murua.*

Gai-emailea: Kepa Esnaola.

Niessen aretoan jokatu zen Xenpelar sariaren azken saioa, arratsaldeko bostetan hasita.

*X. Murua-I. Apalategi*

Gaia: Biok lankideak zarete. Zuk, Xumai, gaur lanera iritsi zarenean larrosa bat topatu duzu zure mahaiaren gainean. Oharra irakurtzen hasi eta Iñakiren sinadura dakar.

Neurria: zortziko txikia
Doinua:

X. Murua:
Gaur goizean ez nuen
nik honen beharrik.
Negarra egiteko
ez daukat indarrik
lore bat ekarria
gainera Iñakik.
Eskuratu nahi nauzu
batekin bakarrik.

I. Apalategi: Larrosa bat utzi det
ondoan papera
eta atrebitu naiz
oharra uztera.
Larrosa bat zuretzat
gutxitxo ote da?
Bat mahai gainean dago
bestea zu zera.

X. Murua: Gogo haundiarekin
egin dit bisita;
gainera bazterretik
"Zu zira polita".
Larrosa hartu dut ta
hor arantzak zista!
Hori utzi zinuen
aurretik jakinta.

I. Apalategi: Ez ez det nahita egin
ez dator kontura.
Ai, nere maitasuna
gaur nola mundura!
arantza heldu dezu
behatza mindu da...
zuk ere utzi zaidazu
zure sinadura.

X. Murua: Mina eman ta gero
izena eskatu
hasi baino lehen nahi du
guztia bukatu
baina ezin diot nik
guzia ukatu.
Hurrengorako beste
leku bat hautatu.

I. Apalategi: Lekua hautatzea
bihurtu al da truko?
Bakarrik otzen zaizkit
bi honen moduko.
Etor zaitez nirekin
ta ez egin uko
horrela larrosarik
ez da zimelduko.

*B. Lizaso-J. Zelaieta*

Gaia: Zu, Beñat, dentistarengana joan zara hagin bat kendu nahian. Julen dentistak sano zegoen hagina kendu dizu.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

B. Lizaso:

Aspalditik nenbilen
haginaren kexu
ta zuk behar ez dena
atera didazu.
Aizu, adarra jotzen
ari al zera zu?
Reklamazio orria
ekarri zaidazu.

J. Zelaieta:

Reklamazioari
egiozu aio.
Nahiz ta odontologia
naizen nahiko iaio
linterna mugitu zait
eta ze arraio !
Beraz egina dago
ta ze egingo zaio.

B. Lizaso:

Fundamentu haundirik
ez du erakusten.
Hala ere pakean
neri ez dit uzten.
Hain arraroa denik
ez diot irizten
altura hortatikan
ez zuen ikusten.

J. Zelaieta:

Lehenago ere egin'ttut
horrelako batzuk
nola denbora sobran
izango duzun zuk.
Behetikan goikoa
ondo ikusten dut
eta goiko guztiak
kenduko dizkizut.

B. Lizaso:

Intentzio ugari
daukazu gaurkoan
zurekin ezin leike
urrutira joan.
Berriz ez naiz jausiko
ni zure jokoan
jotzen baldin bazaitut
belarrondokoan.

J. Zelaieta: Ez da hainbertzerako
lasaitu al zera?
Izena badut eta
hala den antzera;
benga, eseri berriz
ez egin atzera
minez ez zara eta
joango etxera.

## KARTZELA

*I. Apalategi*

Gaia: Eliteko atleta zinen eta istripu baten ondorioz elbarri gelditu zara. Gaur, zure omenez maratoi bat antolatu dute eta saria ematera zoaz.

Neurria: berezia
Doinua:

Hainbeste jendek erakutsi dit
urtez urte mirespena
baina istripu bat izatea
zen neretzat ondamena.
Halere horren eskasa ere
ez da izan ondorena
bildua daukat kemena
ta zutitzeko baimena. (bis)
Baina saria ematea da
momenturik gogorrena
gaur aurrez aurre ikusi baitet
lehen beti atzean zena. (bis)

Nolatan sarri errez igotzen
garen bidetik kotxera
igo ondoren zer gerta leiken
ez gara heltzen ohitzera
eta gogoa ipini arren
noizbait heltzeko heltzera
jada zimelduak gera
hau da hau nere tankera! bis)
Txo, zorionak irabazlea
gaur azkarrena zu zera;
den ibilbide luzeenak ere
helmugan dauka hasera. (bis)

Garai batean ni zu bezela
moldatzen nintzen ederki.
Ai, orain ere hanka gainean

nola ipini baneki!
Noizbait zeozer lortu izan dut
baina ibiltzen naiz poliki
jarraituko det umilki
badet hainbeste aitzaki. (bis)
Lehen elitezko nintzen ta orain
ere hala da Iñaki
sarri eserita ikusi arren
zutik egongo naiz beti. (bis)

# IZEN ETA IZENGOITIEN IZENDAPENA

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

| Liburuan | zen deiturak | Herria |
|---|---|---|
| Agirre, A. | Amaia Agirre Arrastoa | Villabona |
| Agirre, J. | Joxe Agirre Esnal | Azpeitia |
| Agirre, M. | Manex Agirre Arriolabengoa | Aramaio |
| Agirreazaldegi, A. | Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo | Bergara |
| Amuriza, X. | Xabier Amuriza Zarraonaindia | Berriz |
| Artexe, M. | Miren Artetxe Sarasola | Hendaia |
| Apalategi, I. | Iñaki Apalategi Astigarraga | Beasain |
| Arzallus, A. | Amets Arzallus Antia | Hendaia |
| Azpillaga, J. | Jon Azpillaga Urrutia | Mutriku |
| Bartra, O. | Oihana Bartra Arenas | Bilbo |
| Colina, S. | Sustrai Colina Akordarrementeria | Urruña |
| Egaña, A. | Andoni Egaña Makazaga | Zarautz |
| Eizagirre, E. | Estitxu Eizagirre Kerejeta | Hernani |
| Elortza, I. | Igor Elortza Aranoa | Durango |
| Enbeita, O. | Oihane Enbeita Gardoki | Gernika-Lumo |
| Esoain, I. | Ibai Esoain Arruti | Orio |
| Estiballes, A. | Arkaitz Estiballes Ormaetxea | Galdakao |
| Etxeberria, P. | Patxi Etxeberria Zubiria | Lasarte-Oria |
| Garmendia, T. | Txomin Garmendia Galarza | Villabona |
| Gaztelumendi, B. | Beñat Gaztelumendi | Antigua (Donostia) |
| Goikoetxea, E. | Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena | Beasain |
| Gorrotxategi, J.L. | Jose Luis Gorrotxategi Zangitu | Azpeitia |
| Gurrutxaga, I. | Iñaki Gurrutxaga Zubimendi | Orio |
| Ibarluzea, M. | Miren Ibarluzea Santisteban | Mungia |
| Ibarra, I. | Iratxe Ibarra Foruria | Markina-Xemein |
| Irazu, J.M. | Jexux Mari Irazu Muñoa | Larraul |
| Iturriaga, U. | Unai Iturriaga Zuaza-Artaza | Durango |
| Iturrioz, I. | Iñaki Iturrioz Zuluaga | Igorre |
| Lazkano, I. | Imanol Lazkano Uranga | Azpeitia |
| Lekue, E. | Etxahun Lekue Etxebarria | Larrabetzu |
| Lizaso, B. | Beñat Lizaso Alberdi | Azpeitia |
| Lizaso, S. | Sebastian Lizaso Iraola | Azpeitia |
| Lopategi, J. | Jon Lopategi Lauzirika | Muxika |
| Loidisaletxe | Juan Jose Eizmendi Garmendia | Errezil |
| Lujanbio, M. | Maialen Lujanbio Zugasti | Hernani |
| Maia, J. | Jon Maia Soria | Zumaia |
| Mantxi | Iñigo Manzisidor Larrañaga | Zarautz |
| Mañukorta | Gregorio Larrañaga Mandiola | Markina-Xemein |
| Martin, J. | Jon Martin Etxebeste | Oiartzun |
| Mendilluze, A. | Aitor Mendiluze Gonzalez | Andoain |
| Mendizabal, M. | Mikel Mendizabal Garmendia | Itsasondo |
| Munduate, A. | Aitzol Munduate | Ataun |
| Murua, I. | Iñaki Murua Jauregi | Gabiria |
| Murua, X. | Xumai Murua Berra | Azkaine |
| Oiartzabal, A. | Arkaitz Oiartzabal Agirre | Oiartzun |
| Otamendi, As. | Asier Otamendi Alkorta | Urretxu |
| Paia, F. | Alfredo Paia Ruiz "Fredi" | Algorta (Getxo) |
| Paia, X. | Xabier Paia Ruiz | Algorta (Getxo) |
| Peñagarikano, | A.M. Anjel Mari Peñagarikano | Anoeta |
| Perea, O. | Oihane Perea Perez de Mendiola | Gasteiz |
| Sarasola, A. | Alaitz Sarasola Olano | Ordizia |
| Sarriegi, A. | Aitor Sarriegi Galparsoro | Beasain |
| Silveira, X. | Xabier SilveiraEtxeberria | Lesaka |
| Sorozabal, J. | Jokin Sorozabal Ansa | Andoain |
| Uranga, J. | Jokin Uranga Isuskiza | Azpeitia |
| Zelaia, I. | Iñaki Zelaia Irazusta | Hernani |
| Zelaieta, J. | Julen Zelaieta Iriarte | Bera |
| Zubia, F. | Felix Zubia | Zarautz |
| Zubeldia, I. | Iker Zubeldia Akarain | Zegama |